FERJATZAILEAK
PATXI LARRION

PATXI LARRION

FERIATZAILEAK

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

http://susa-literatura.com/ebook

© 2016 Patxi Larrion
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2016ko iraila
Edizio hau: 2016ko iraila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

1

–Vodka! Hori da koktel horrek behar duena!

Barraren izkinatik zetorren gaztigua. Hara itzulikatu ziren Martin eta Luis. Gizon luzanga bat zen, zigarreta ezkerreko eskuan, kopa eskuinekoan.

– Lagundu nahi? –beraiekin biltzeko gonbita egin zion Martinek.

– Dastatzen ez behintzat –armagnacetik ari zen gizona.

Filmaziokoa zen inondik ere, janzkerak salatzen zuen.

Gauerdi irian berebiziko mugimendua zegoen Maisonnave hoteleko kafetegian, hamar egun zeramatzaten errodajekoek han ostatu hartuta. Patton izeneko militar bati buruzkoa zen pelikula, Iruñean eta Ultzaman, eta bereziki Urbasan filmatu behar zutena.

Martin eta Luis ez ziren arrotzak kafetegian, baina amerikanoen etorrerak sarriagotu egin zituen haien bisitaldiak; zerbitzuan ziharduten, argia izan baitzen Gendulain kapitainaren agindua:

– Filmatze lanek irauten duten bitartean libre zaudete kuarteleko betebeharrez. Amerikanoak hornitzea izanen da zuen ardura aurrerantzean.

Espainiako Armadak kontratua egina zuen ekoizlearekin. Bere gain jeep, tanke, kamioi eta gainerako ibilgailuak jartzea; baina ez hori bakarrik, soldadutzan ari ziren *txortak* ere figurante moduan beharko zituzten amerikanoek.

1969ko apirila zen. Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak amaitzeko gertu, bost hilabete pasa zeramatzaten bigarren urtez jarraian Martinek eta Luisek soldadutzan, alferez izateko bidean. Ameskoarra zen Martin, baina Iruñeko izeba Ireneren etxean erroldatu eta, herriko karlista amorratu baten laguntza tarteko, zailtasunik gabe lortua zuen gaua kuarteletik kanpo igarotzeko baimena. Luisek, iruinseme petoa, ez zituen barrakoietako izarak inoiz erabili, haren aita ez zen-eta alferrik ibili Gendulain kapitainarekin gerra garaian.

Unibertsitatean bertan tratukide bilakatu ziren bi gazteen arteko konplizitatea areagotu baino ez zuten egin aurrena soldadutzak eta ondoren Gendulain kapitainaren agindupeko zeregin berriek. Negoziorako beste ate bat zabaldu zitzaien bat-batean, gasolinaren

iruzur aukera nabarmen biderkatzen baitzuen amerikanoentzako horniketak. Luisek ezaguna zuen Gipuzkoa etorbideko gasolindegiko jabea. Tratua garbia zen: bi zerbitzatu eta lau kobratu; ebatsitakoaren parte bat gasolindegikoak atxikitzen zuen, bestea Martinen eta Luisen patriketara. Diru erraza. Erregaiaren kontsumoak gora egin zuen filmazioarekin, txortez zamaturiko ibilgailuek egunero egin behar baitzuten Urbasarako joan-etorria eta horrek asko handitu zituen gasolinaren kontsumoa eta, honenbestez, iruzurra.

– Vodka gehiago, jauna?

Martini ezaguna begitandu zitzaion koktelarentzat vodka iradoki zuen gizon luzanga hura, *Patton* pelikulako kontuak hasi berriak baziren ere, amerikanoak aspaldi ari ziren-eta Nafarroan barrena toki aproposen bila, filmatzeko kanpoaldeak eta atseden txokoak.

– Morroi horrek –ohartarazi zion Martinek Luisi– badik zerbait Goñirekin...

Otsailean, Goñi lotinant-koronelak Gendulain kapitainari bisita egin zionean, Martin Luisekin zen Komandantzian. Kapitainak bi txortei adierazi zienez, Goñi zen arrain nagusia. Bost urte lehenago, *Battle of the Bulge* filmatu zenean ere, Goñi izan zen Espainiako Armadaren arduradunetako bat. Eta 1956ko *Embajado-*

res en el Infierno, Dibisio Azulari buruz Forquek egindako pelikulan ere aholkulari aritu zen.

Koktel berariazkoa asmatzearen kontua Martini bururatu zitzaion, Maisonnave hotelean zeuden amerikanoekin harremanetan sartzeko aitzakia gisa. Emakumezkoak laketago bazituzten ere, filmazioan ari zen edonorekin irabazpideren bat sortzeko irrikatan ziren bi lagunak. Migel Lizarbe barmanari gustatu egin zitzaion Martinen proposamena eta *Patton* izeneko koktela sortu zuen; bazeukan zer berri eskaini aseezinak ziruditen attrezzoko eta makillajeko emakumezkoei.

Koktela prestatzen ari zen bitartean, Luis eta Martinez gain, hiru emakumezko zituen Lizarbek botilen dantzari begira: whiskia, Grand Marnier, laranja azala eta azkenik...

– Vodka neurri bat ala bi?

– Bat ez, bi! Ez utzi Patton jauna gasolina premian! –eta amerikanoak aulki altua ekarri zuen bi alferezgaien eta emakumezkoen taldera.

Blonda izan zen Patton koktela dastatzera ausartu zen lehena. Kopa zabalari musu eman ondoren Luisi eskaini zion edalontzia.

– Zure neurriko tragoa duzu.

Luisek zekien ingeles apurra frantsesarekin dotoretzen zuen amerikanoekin solasean ari zelarik:

– D’accord, baina zure ezpainetatik nahiago... horiek bai nire neurrikoak.

Emakumearengana luzatu zuen burua. Hura ez zen kikildu, musu gozoa utzi zuen Luisen ezpainetan. Zirri-festa ez zen horretan amaitu, koktelaren aitzakian musu gehiago lapurtu zizkien Luisek hiru emakumezkoei, lotsagabeki banatzen zituen lausenguak.

Amerikano luzangak ez zuen koktela dastatu nahi izan, baina txama egin zuen Martinekin. Luisek aski lan bazuen makillajeko blondarekin, attrezzoko bi emakumezkoek logeletarako bidea hartua baitzuten musuen jostetaz asperturik.

Laugarren armagnacak mingaina askatu zion amerikanoari. Pete zuen izena, Domezain abizena, Aezkoakoa sortzez, 30eko hamarkadaren hasieran osaba baten deiari kasu egin eta San Frantziskora joana, denbora gutxi igaro zuen artzain lanetan, osabak berehala lortu baitzion beharra tailer batean. Erabateko kanbiamendua 40an heldu zitzaion, soldadu sartzea baitzen nazionalitate amerikarra lortzeko bide errazena; Europa zuen helmuga, baina aurretik Afrikatik igaro behar, Siziliatik sartu ziren, eta handik ia Europa

osoa korritu Patton jeneralaren agindupean. Sherman tankeek ez zuten sekreturik Pete Domezainentzat. Bigarren Mundu Gerra amaitu eta Armadan jarraitu zuen, baina segituan heldu zitzaion Hollywoodeko deia.

– Irudien bidez edertu behar genuen garaipena –sakonetik mintzo zen Pete–. Gerra-zinemak adituen premia zeukan. Halaxe utzi nuen Armada eta produkzio lanetan hasi nintzen.

Efektu bereziez arduratzen zenaren bigarrena zen Pete Domezain. Urte batzuk lehenago *Battle of the Bulge* pelikulan ibilia zen Segovia aldean.

– Orduan ez zaizu arrotza hemengo tresneria –Martinek bere aldera bideratu nahi izan zuen elkarrizketa, bazekien-eta Espainiako Armadaren ibilgailu zenbait Bigarren Mundu Gerran amerikanoek erabilitakoak zirela.

– Ez tresneria, ezta beharginak ere.

Martinek ulertu zionez, Goñi lotinant-koronelaz eta enparauez ari zen. *Patton* honen filmazioan ez zuen *Battle of the Bulge* hartan gertatutakoak berriz gertatu behar.

– Alimaleko lana egin lokalizazioak topatzen eta prestatzen, eta ia ez ginen Bruneteko kuartel ingurutik irten! Diru gehiegi horren emaitza eskaserako.

Pete Domezainek argi zeukan, oraingoan ez zuten edozein toki onartuko. Otsailean filmatzen ibiliak ziren Almerian eta Segovian, kanpoaldeen grabazioari Nafarroan eman behar zioten akabera.

Patton Nafarroan filmatzeak parez pare zabaldu zion sorterrira itzultzeko aukera Domezaini, Aezkoako Orbaran geratzen zitzaion familia bakarrari bisita egitekoa.

– Izeba bizirik ote den jakiteko bederik.

Solasaldiak iraun zuen bitartean, Martinek tarteka galderaren bat egiten zion edo burua mugitzen zuen kontakizunaren hariari jarraitzen ziola adierazi nahian.

Ordu biak jo hurren bost lagun bakarrik ziren Maisonnave hoteleko kafetegian: barra garbitzen Lizarbe koktelaria, Luisen eskua ipurtaldetik ezin askaturik blonda, Pete Domezainen kontakizunari adi Martin.

– Berandu gabiltza –zutitu egin zen Pete–. Bihar Frantzia zeharkatu behar dugu.

– Cobra operazioan parte hartu al zenuen? – Martinek gustuko zuen zapaltzen zuen lurra ezagutzea, are gehiago Gendulainen agindua jaso ondoren; kapi-

tainak George Smith Patton jeneralaren biografia bat ekarri zion kuarteleko liburutegitik.

– Han galdu nuen bigarren Sherman tankea –Pete Domezainek patriketan sartu zituen eskuak.

– Non lehendabizikoa?

– Alameinen.

– Jarraituko al dugu festa Casa Marinan? –Luisek eten egin zuen haien solasa, makillajeko blondak orduantxe ihes egin baitzion gaueko musu luzeena emanik.

– Ni gabe izan beharko du –Pete hoteleko hallera abiatu zen–. Bihar Urbasara joan beharrean gara.

Martinek kaleko atetik agurtu zuen Pete Domezain.

Baina Luisek ez zuen presarik:

– Hi, nora hoa? Hondarrekoa hartu behar diagu!

– Hemen ez behintzat –Lizarbe barmanak lehor erantzun zion eskuan erratza zuela.

Luis kalera irten zenerako Martin hotel ondoko jauregiari beha ari zen. Lagunaren eskua sentitu zuen besotik heltzen:

– Goazen Casa Marinara, Martin...

– Ez. Gaurkoan eskuz hustu beharko dituk barrabilak. Bihar zeregina diagu.

Luis ez zegoen erraz amore emateko. Kontseiluko plazara ailegatutakoan banku batean eseri zen:

– Logurarik ba al dugu ba!

– Altxa hadi. Urbasan behar diagu argitzen duenerako.

– Zer esaten ari haiz? Ez gaituk inoiz eguerdia baino lehen Olaztira joan.

– Uranga tailerrean harrera eginen zioagu Domezaini.

San Antonera iristean kalea neurtzeko imintzioa egin zuen Luisek, Martinek besotik kontu egin zion. Gisa horretan joan ziren etxeraino, ameskoarra isilik eta iruinsemea etengabeko purrustadan.

– Ez zakiat zer kristo darabilkian buruan, Martin. Mereziko ahal du behintzat! Gaurkoa ez diat nolanahi barkatuko.

2

Izeba Ireneren etxea Mendi jatetxearen gainean zegoen. Zerraldo erori zen Luis balkoi aldeko logelan. Martin, berriz, lo handirik egin gabe zebilen. Seietarako Komandantziara joan, eguneko aginduak eta hornikuntzarako paperak hartu eta etxean zen bueltan argitu zuenerako. Mugimendua sumatu zuen sukaldean.

– Goiztiar ala heldu berri? –izebak ez zuen ilobaren erantzunik ere espero.

– Galtzak bete lan –Martinek ogi zati bat hartu zuen mahai ondoko arasatik–. Zoratuko gaituzte egunotan.

– Gosaldu al duzu?

– Ez dut betarik izan –Martinek lapiko barnean zen burruntzalia baliatu zuen kafea katilura isurtzeko–. Nagi hori esnatzera noa.

– Luis al da balkoi aldeko gelan dagoena? –bazekiena galdetzeko ohitura zeukan izebak.

– Bai.

Martinek zutik hartu zuen kafea eta izebari adio lehor bat esanez alde egin zuen.

Zazpi urte zeramatzan Iruñean Martinek, aise moldatu zen izeba Irenerekin; egia aitortzeko ez zen zaila ere, ez baitziren askorik egoten elkarrekin. Martinek ez zuen gogoratzen izebaren gela inoiz zapaldu izana. Hitzetan laburra zen amaren ahizpa gazteena. Hamahiru urte bete berritan Iruñera joan zen prokuradore baten zerbitzuko neskame; Fulgencio Ortiz zuen grazia legelariak, ezkongabea eta osasunez beti makal zebilena, Martin jaio eta handik gutxira hil zena. Dirudienez *in articulo mortis* esposatu ziren izeba eta prokuradorea, etxea Ireneri utzi nahi baitzion, eta hori gerta zedin ezkontza zen neskamearen aterabidea bermatzeko modu seguruena. Prokuradorearen familiak ez zuen amore eman nahi izan, zalantzan jarri zuen ezkontza agiria, iruzurtzat hartu, baina alferrik, eliza izebaren alde jarri zen, tira, Eliza baino On Castor jarri zen tinko, bazuen aginte makilarik karlisten kapilau izandako ameskoarrak. Izeba Irene tarteka Argarai koloniako txalet neo-basque batean aritzen zen beharrean goiz partean, eta arratsaldez etxean lan egiten zuen, Salon del Visillo oihal dendarako josten.

– Altxa hadi! –Martinek ohetik bota zuen Luis.

– Kaguendios! –zoruan ahoz gora etzanda ukabila erakutsi zion Luisek.

Logelatik irten, korridorea balantzaka igaro, eskailerak arrapaladan jaitsi eta erdi jantzian sartu zen jeepean. Harresien aldeko Atari Berrira iritsi zirenerako lo seko zegoen berriro.

Aitzoaingo kuartel berrian sartu-irten bat egin zuen Martinek, handik ere ibilgailuren bat abiatuko baitzen. Egunero aurkezten zuen Gendulain kapitainak sinatutako ordena Aitzoaingo kuartelean, Urbasara infanteriako zenbat txorta eraman behar zituzten adierazten zuten agiriok. Paperak utzi eta, Urbasa helburu, martxan jarri zuen jeepa.

Arbizu parean eten ziren Luisen zurrungak.

– Egunon, loti eder hori!

Luisek nagiak atera eta, soa jeeparen leihatilan zuela, kontu eske hasi zitzaion:

– Kopon! Esanen didak zer darabilkian buruan?

– Aurrena esna hadi eta gero.

– Gasolinaz enpo egin behar al dugu?

– Gasolinaz eta gasolina ez denaz.

– Mintza hadi garbi behingoz.

– Hi egon hadi lasai, eta utzi niri.

Isilean egin zuten Olaztirainoko bidea. Bazirudien bizitza osoa elkarrekin emana zutela, begirada bakarra aski zuten batek bestea ulertzeko.

Martin, batxilergoa egitera Iruñera etorri aitzin Estellerritik atera gabea, hiru anai-arrebatatik gazteena zen, puskaz gazteena. Haurra zelarik hil zitzaien aita, eta anaia nagusiak hartu zuen etxeko ardura; ama Aranaratxera ezkondutako alabarenera aldatu zen. Unibertsitatean hasi baino lehen batetik bestera ibili ohi zen, baina Ameskoara itzultzen zen aldiro. Motxorrosolo fama zuen arren, denek estimatzen zuten familian, ez zen alferkerian arituko ez anaiarenean ez arrebarenean. Kazetaritza ikasketak hasi zituen garaian, arrebaren senarrak Agni enpresan lana topatuta, Lizarrara aldatu ziren, ama herrian bakarrik utzita. Orduz geroztik ia beti amarengana jotzen zuen Martinek.

Luis, berriz, seme bakarra zen, jaio zenetik esnemamitan hazitakoa. Ama ezagutu gabea, ninia zelarik zendutakoa. Edoskitze zaila eduki zuen eta koxkortu zenetik ezin esan etxe finkorik zuenik, Carlos III.eko aitaren etxean bezainbeste gau ematen baitzituen izeba Paularen Argaraiko txaletean, eta soldadutzan hasita Komandantziatik hurbil egotearen aitzakiarekin noiznahi lo egin zuen Martinen izebarenean. Nagiaren paradigma zen Luis, inork ez zuen ulertzen nola iritsi zen Unibertsitatera, ziur aski Martinek egin ohi zizkion

lanek bazuten zerikusirik aitzinatze harrigarri horretan.

Olaztin sartu bezain laster eten zuen isilaldia Luisek:

– Jakinaren gainean egonen haiz...

– Zer jakin behar nikek ba? –sekula ezer eskapatzen ez zitzaiola uste baitzuen Martinek.

– Gendulain kapitainak soldadu baztandar bati galdetu zioan atzo: “Zer sentitzen duk gure nazioaren bandera mastaren puntan zabal-zabal ikusten duanean?”. Eta baztandarraren arrapostua: “Haizea!, Gendulain kapitaina”.

– Luis, hi haiz haizeak nondik jotzen duen konturatzen ari ez den bakarra.

– Joder, Martin, zer gertatzen zaik? Muturtuta habil nirekin azken aldi honetan.

Eta haserre zegoen, bai, kostatzen ari baitzitzaion Uranga tailerraren ondoko orubean aparkatzeko tokia topatzea; Armadako tankeek, kamioiek eta jeepek hartuak zituzten Burundako ingurumariak.

Koipe eta goma lurrinak eman zien ongietorria atea zabaldu orduko. Filmaren grabazioan matxuratutako lau ibilgailu ikusi zituzten tailer barnean.

– Honi beste karburagailu bat ipini beharko zaio –urangatarren artean gazteena ari zen tailerreko lanak zuzentzen.

– Egunon Jainkoak...

– Hara! Goiz heldu zarete gaur.

– Zeregin berriak agindu zizkigutek.

Urangak mekanikarien esku utzi zuen jeeparen konponketa. Bulego moduko estalpe batera gonbidatu zituen Martin eta Luis.

– Matxuratutako ibilgailuak konpontzen laguntzera al zatozte? –Uranga trufariak bazekien Martinek berehala argituko ziola horren goiz agertzearen zioa.

– Datozen egunetan zuen tailerrean lan eginen diagu, bai, hain zuzen ere –erantzun zion Martinek.

– Zuek biok? Bai, to! Zuek ez duzue inoiz eskurik belztu!

– Ezta belzteko asmorik ere. Hemendik aurrera ez duzue horrenbeste konponketa egin beharko eta...

Soila zen bulegoa. Espainiako mapa batek eta Lambretta baten gainean eseritako emakume baten egutegiak janzten zituzten hormak.

– Ba zail daukak. Fuerte ari dituk. Gerrak gogor astindu behar dik Burunda aldea. Filmaziokoek aipatu di-

gutenez, sua ausarki izanen diagu eta ibilgailu guztiak prest eduki behar ditiagu.

– Arrazoia eman didak, beraz –esan zion Martinek.

– Argiago mintzatu beharko duk.

– Lana murriztuko zaizue, baina eginen duzuen apur hori garbia izanen duk. Nire proposamena entzuteko prest?

– Bota.

Bost minutu eskas aski izan zituen Martinek buruan zeuzkan asmoak Urangari ulertarazteko. Luis bera ere aise jabetu zen asuntoaren tamainaz.

– Hi haiz hi alua! –Luis lozorrotik ateratzea lortu zuen Martinen planak–. Ez diat aspaldian hau baino jokaldi hoberik ezagutu.

– Hago isilik, utzi niri.

3

Autobus bat heldu zen Uranga garajearen aparkalekura. Ateak ireki eta filmaziokoak hasi ziren jaisten, haien artean Pete Domezain.

– Frantzia zeharkatzeko listo? –agurtu zuen Martinek.

– Aurretik armada prest ote den jakin behar.

Amerikanoak libreta gorri bat atera zuen txalekotik eta ibilgailuen inguruan zeuden hiru gizonei etortzeko deia egin zien. Produkzio taldeko teknikariak ziren. Martin ez zen sobera urrundu, ikusi ahal izan zuenez, krokis modukoak zirriborraturik zituen libretan, eta krokis horietako bat seinalatzen zien atzamarrarekin han eta hemen. Martinek ez zuen gauza handirik entelegatu, salbu eta Domezainen ezpainetatik *trak, trak, trak* soinua ateratzen zela etengabe. Irakurtzeko adina bazekien ingelesez; baina entzunez amerikanoei ulertzeko, komeriak. Petek libreta itxi eta eskuaz Urbasa aldeko eremu bat seinalatu zien hiru teknikariei.

Bizi-bizi, aldamenean zuen Luisi giltzak eman zizkion Martinek.

– Agudo! Ekar ezak gure jeepa!

Eta segituan, libreta eskuetan zekarren amerikanoarengana hurbildu zen.

– Plazer baduzu, geuk eramanen zaitugu.

– Ez da beharrezkoa, teknikariekin joanen naiz.

Luisek bi gizonen aurrean gelditu zuen jeepa, katu bat harrapatu nahian atzetik zihoakion zakurra zapaltzeko puntuan.

– Gurekin azkarrago iritsiko zara –esan zion amerikanoari–. Nekez topatuko duzu inguru hau gu bezain ongi ezagutzen duenik. Neguko maniobrak Urbasan egin ditugu.

Gezurrak esaten ez zegoela Martin baino trebeagorik etorri zitzaion Luisi, baina bazekien kontu hartan arrazoi osoa zuela: Martinek ongi ezagutzen zituen paraje haiek, umetatik.

– Ez al duzue ba beste zereginik?

– Gure kapitainaren agindua da: gu zure zerbitzuko.

Martinek jeeparen atea zabaldu eta sartzera gonbidatu zuen amerikanoa.

– Ezer behar baduzu, hemen gu –Martinek gogoan zituen libreta gorriko krokisa eta *trak trak trak* haiek.

– Gau parteko erasoan kamioi bat sutan jarri behar dugu, baina ez dugu geldian egin behar, kamioiak martxan segitu behar du. Figuranteek sekuentzia arriskutsua dela diote, irauliko ote den beldur dira, aukeratutako tokia ere ez da sobera laua eta...

– Orduan, ezponda txiki batekin nahikoa duzue –bizkor ibili zen Martin.

– Arrisku handirik ez dezala izan. Horrek amiñi bat erraztuko luke eszena.

– Gure kontu! Urbasan heziak gara. Luis, kontatu egiok urtarrilean egin huen balentria.

– Ez zen hainbestekoa izan. Martinek badaki niretzat ez zela ekintza zaila izan, baina nahi izanez gero kontatuko dizut nolatan...

Amerikanoak bekainak goratu eta irri bat marraztu zuen ezpainetan:

– Batailak gero ere ikusiko ditugu, filmaketa unean. Tira, zuekin joanen naiz. Beti aitzina.

Domezainek, teknikarien jeepari begira, keinu egin zuen beraien gibeletik joan zitezen. Martinen aginduei jarraiki, Luis zihoan gidari; Urbasako portua igotzen hasi eta bigarren kilometroan errepidea utzi zuten, ezkerreko mendiko pista hartu eta hamar minutu igarota zabalgune batera ailegatu ziren. Urrunene-

an, firrinta more batek baino ez zuen mugatzen larrea. Hodeiek belardian egiten zituzten itzaletan galdu zitzaion gogoa Martini une batez. Hegoaldera artzainen bidezidor batzuk ikusten ahal ziren, halako urradura batzuk soilgunean.

Pete jeepetik jaitsi eta zabalgunearen ezkerreko bazterrerantz jo zuen, Martin atzetik zerraion. Ertzean, ehun metro eskasera ageri zitzaien ezpondari begira geratu ziren. Atzetik zetorren teknikarien jeepa Domezain zegoen tokiraino heldu zen. Ibilgailutik jaitsi bezain laster erreparatu zioten errekaldeari.

– Aukeran, txikiegia eraso bat filmatzeko.

– Baina muino ttattar horren gibelean bada beste zabalgune bat –Martinek ezkerreko bidea erakutsi zion–. Ezpondak segida du horretan ere.

Oinez egin zuten beste zabaldirainokoa. Luis ez zen jeepetik higitu ikuskatzeak iraun zuen bitartean.

Ezponda ez zen Domezainen atentzioa bereganatu zuen eremu bakarra, inguru osoa aztertzen zihardu en. Azkenean hiru teknikariak zeuden eremura jaitsi zen. Hamar bat minutu igaro zuten solasean, gizonen artetik itxuraz zaharrenak buruaz baiezko keinua egin zuen, eta horren ondotik Martinengana bueltatu zen Pete Domezain:

– Ez da toki txarra –argazki makina atera zuen txalekotik–. Gainera, gau parteko eszenak grabatzeko ez ezik goizaldekoak antolatzeko ere balio lezake.

Amerikanoak hogei bat argazki atera zituen: ezpondari dozena bat, bizpahiru panoramika eta, hondarrean, atzean zeukaten haritzari egin zizkion beste batzuk.

– Orduan, erasorako prest! –eskuak igurtzi zituen Martinek.

– Hori Iruñera itzulitakoan jakinen dugu. Nire nagusi Alexek ere ikuskatu beharko du tokia. Eta gero Schaffner jaunarena izanen da azken hitza.

– Bai, noski, zuzendariari iruditu beharko zaio egokia den edo ez.

– Edozein modutan, Martin, hemen filmatzekotan... haritz horrenak egin du!

Teknikariak ezpondaren luzera neurtzen ari ziren bitartean Petek zerbait zirriborratu zuen libreta gorrian. Ordurako jeepean zain ziren Martin eta Luis. Azken honek burua jiratu zuen zuhaitza zegoen lekurantz.

– Lote ederra!

– Baiki. Gaztigua pasatuko zioat lehengusuari –Martinek erabakita zeukan nork botako zuen zuhaitza.

20th Century Fox ekoiztetxeak Espainiako Armadarekin zuen egina kontratua, Armadak filmerako ibilgailuak hornitzeaz arduratu behar zuen, baina lurrak Diputazioarenak ziren. Nonbait, 100.000 pezetako kontratua sinatua zuten Nafarroako Diputazioak eta 20th Century Foxek. Ez ziren munta txikikoak filmazioak erresuma zaharrean eragin behar zituen kalteak: lurrak mugitu, errepideren bat hondatu eta tarteka, kasu honetan bezala, zuhaitz eder batzuk bota. Kontu hau basozainen lana zen, eta Martinek berehala pasatu nahi zion abisua lehengusu Pedrotxori, menturaz haritza markatuko zuen basozaina hurbilekoa izan zitekeen edo, beste era batera esatearren, basozainak ez zuen lehengusua begiz jota izanen. Martinek gogoan zuen Pedrotxok Aste Santuan kontatu ziona: antza denez, *Patton* errodatzen hasi baino lehen mendiko pista bat zabaldu behar izan zuten, konboi oso batek igaro behar zuen mehaka batetik, eta pago bat zenez afera, hura botata konpondu zuten arazoa. Zudairiko Evaristok markatu zuen ordukoan pagoa. Hiru egunen buruan, markatutakoa eraitsita ote dagoen ikustera

joan da eta, espero moduan, motzondo bat izan da aurkitu duen arrasto bakarra. Baina hori ez da dena, hamar metro eskasera beste bat aurkitu baitu, noizbait pago lerdena izandako mozkina. Hura ikusitakoan, Evaristok zuzenean jo du Pedrotxorengana kontu eske.

– Zertan aritu haiz, ez al nian bakarra markatu?

– Badakizu maitasuna zer den, bat bota eta bestea zoratu egin da –horixe izan zen Pedrotxoren erantzuna.

Pete Domezainek hurbiltzeko keinu egin zien bi txortei. Luisek amerikanoa zegoen tokiraino gidatu zuen jeepa.

– Badaezpada ere, haritza lehenbailehen bota behar dugu. Ba al da basozainik inguru honetan?

– Irubide jatetxean topatuko dugu baten bat –erantzun zion Martinek–. Nahi al duzu neu arduratzea?

Martinek berak bete nahi zuen mandatua, kosta ahala kosta.

– Eskertuko nizueke. Eguerdia da eta nik ibilgailuez arduratu behar dut. Goñi lotinant-koronelarekin negoziatu behar nuke hau. Baina lotu beharrekoak ia

beti Alvarez sarjentuarekin lotzen ditut. Lehen ikusi al dituzue aparkalekuan?

– Goñi ez, baina Alvarez bai, morroia ez da Armadaren dendatik mugitu ere egiten –korroskada bat eskapatu zitzaion Luisi–, gaua ere bertan ematen duela diote.

– Akort, itzul gaitezen Olaztira –Petek eskuin eskua eraman zuen sabelera–: Non bazkaldu behar duzue zuek?

– Irubide jatetxean bertan. Zain izanen nauzue, lekua hartuko dut denontzat.

Bizkor ibili zen Martin, bizkor ibili zenez.

4

Jatetxeko aparkalekuan utzi zuten Martin.

– Ordu bietarako bueltan izanen gara –kopilotuaren eserlekutik ari zen Pete Domezain–. Prest egon dadila mahaia.

– Nire kontu. Ez kezkatu. Zure zerbitzuko gaude gu –Martinek bere buruaz harro agurtu zituen Luis eta Aezkoako amerikanoa; dena behar bezala gertatzen ari zen, eta gertatu behar zuena gertatuko zen.

Bederatzi auto zeuden aparkalekuan, basozainen land rover zahar bat horien artean. Ostatuan kamioilari batzuk ziren barraren bueltan. Martinek zuzenean jo zuen jantokira, aldameneko mahaian eserita zegoen basozaina, eta Martinek bere kolkorako: “Zortekoa ni!”, Bakedaoko Andres baitzen, Pedrotxo baino hamabost bat urte nagusiagoa baina lehengusuarekin aspaldi txama egina zuena.

– Goiz etorri zaizu gosea! –basozainak mahai gainean zeukan ardo pinta seinalatu zuen Martinek.

– Zer gerta ere, hobe lehenbailehen.

– Jeneralaren aginduak dakarzkizut. Lan erraza: haritz bat markatu beharra dago Barga inguru horre-

tan, baina berantenez biharko botata behar du. Segituan joanen bagina...

– Ez sabela berdindu arte.

– Nahi al duzu lanak neronek aurreratzea?

Sardexka ogiaren ondoan utzi eta begira jarri zitzaion Andres:

– Honetan ez duk inor zorabiatuko, ezta?

– Lasai, haize fina dabil gaur. Hara! Ez daukat nola joan eta utziko al didazu zure land roverra?

Patrikan sartu zuen eskua gizonak.

– To, eta azkar bueltan.

– Ordu erdi barru hemen naiz, bertan bazkaldu behar dugu-eta.

– Piura horrekin filmekoa haizela pentsatuko ditek.

– Horrexetan ari gara.

Arin ibili nahi zuen, haritza markatu eta Irubide jatetxean behar zuen Pete Domezain eta Luis itzultzen zirenerako, eta bide batez lehengusua abisatu. Pedrotxok ia egunero Zudairiko Irigoyen hostalean hartzen zuen kafea. Amerikanoa iritsi aurretik telefonoz deitu eta mandatua utziko zion.

Urbasako errepidea utzi eta pistatik abiatu zen berriz ere. Behor gorrikarak larrean barrena urrundu ziren. Jeep batekin topo egin zuen bide bazterrean. Es-

painiako Armadakoa zirudien. Aurrera segitzea otu zitzaion, baina parean jarritakoan land roverra gelditu eta jeeparen barrualdea gainbegiratu zuen: kopilotuaren eserlekuan mapa bat zabalik. Ikusia gorde eta aurrera segitu zuen. Maite zuen gain haietan gidatzea, eguzkiak arrunt berotzen ez zuela.

Zabalgunera ailegatu baino ehun bat metro lehenago loka jarri eta motorra itzali zuen. Ahalik eta asots gutxien atereaz hartu zituen aizkora eta zuhaitza markatzeko behar zituenak atzeko atetik. Isil-gordean hurbildu zen zabaldiaren hasierako ertzera. Ez zuen inor sumatu. Azkar egin zuen haritza markatzekoa, sabelak gosea salatu zion land roverrean sartzean. Pistatik bueltan zela, ez zuen jeeparen arrastorik ikusi. Errepidea hartu eta zuzenean jo zuen Irubiderantz.

Andres basozaina ostatuko barran zegoen ordurako.

– Egina –Martinek eskura eman zizkion giltzak.

– Ezer hartu nahi al duk? –basozainak gogotik tiratzen zion puru piztu berriari.

– Ez, estimatuta dago.

– Nola abisatu behar duk Pedrotxo?

– Hostalean utziko diot mandatua telefonoz, Irigoyenen.

– Zudairitik pasatzeko asmoa diat. Neuk erranen zioat haritza non den.

Martinek duda egin zuen lipar batez.

– Nahi duzun bezala –baina Martinek inoiz baino argiago zuen berak ere gaztigua pasatu behar ziola lehengusuari.

Telefonoaren kontagailua jartzeko eskatu zion zerbitzariari, Irigoyen hostaleko zenbakiak markatu eta segituan hasi zen hizketan:

– Martin naiz, Pedrotxoren lehengusua. Esaiozu, faborez, zortziak alderako zuenean egon dadila. Eskerrik asko.

Basozainak berriz gonbidatu nahi izan zuen gaztea.

– Kafea hartzen dudan bitartean hik edanen duk ardo bat.

– Ez ba, egun luzea dut gaurkoa. Ez dut arraildurik akitu nahi.

– A ze batailak antolatzen ari zareten larraitzean! –basozainak ezagun zuen solasa nahi zuela.

– Batailak? –harritu plantak egin zizkion Martinek.

– Bai, bat beharrean bi. Batean tankeak, bertzean kanoiak. Orain Albertoren tabernan diat hitzordua

haiekin, ingelesak omen dituk. Zuek amaitu eta bertze horiek hartuko ditek larraitza.

– A! *Cromwell.*

Martinek ikusiak zituen antzinako kanoiak pilotalekuan. Andiako markesaren jauregian ostatu hartutako turistek argazkiak ateratzen zituzten haien aurrean. Urbasa mundu bat zen egun haietan. *Patton* filmatzea amaitu gabe, hor ari ziren Ingalaterrako erregeari burua moztu zion militar errepublikarraren bizitza pantailara ekarriko zuen beste pelikula bat prestatzen. Ordurako, *Oliver Cromwell* grabatzen hasiko zirenerako, soldaduska amaituta izanen zuten bai Luisek bai Martinek; baina nork jakin, menturaz beste produkzio horri ere etekinik atera ahalko zioten. “Ez dadila militarren emaria agortu”, pentsatu zuen gazteak.

– Amerikarrak, alemanak, ingelesak, irlandarrak... –Martin inorentzat ariko ez balitz bezala mintzo zen–, armada guztiak bildu zaizkigu Urbasa aldean.

– Karlistek ordea... –puruari kea ateratzen segitzen zuen basozainak–, aurki denei aurrea hartuko zietek karlistek.

– Txapelgorriak ere pelikula egitekotan al daude ba?

– Urbasan ez, Jurramendin –Andresek barnera egin zuen irri, ia eztul bat izan zen.

Martinek ahaztuta zeukan maiatzeko lehendabiziko igandea. Espainia osoko karlistak Estellerriko Jurramendin biltzen ziren erromerian. Nerabe zelarik, Iruñera ikastera joan baino lehen, ibarreko gazteak Zudairiko kolonietan biltzen ziren maiatzeko lehen igandean eta Monico karlista zaharraren agindupean igotzen ziren mendira. “Eutsi tradizioari!” izaten zen haren oihua. Gazteentzat igandea herritik landa igarotzeko aitzakia zen hura, eta bidenabar arratsalde partean Lizarran aitzur galanta harrapatzeko tenorea. Iluntzean, berriz, Urederra autobusak proban jartzen zituen gazte nerabeen sabelak, urte batean ez bazen hurrengoan denek egina zuten goitika etxera bueltako txangoan. Denak, Pedrotxok izan ezik. Martinek ez zuen gogoan lehengusua trantze horretan inoiz ikusi izana, ez garai hartan ez ondoren ere. Sekulako masadera zuen mutilak sabelean.

– Eta zu, Jurramendirako asmotan al zara? –Martinek bazekien zer ihardetsiko zion Andresek.

– Ni Jurramendira? Bai, to! Beltza zaramat nik txapela.

– Eta betiko gainera –xaxatu zuen Martinek.

– Aztoratuta zabiltzak handiuste horiek. Eta arrailtzen direnean ez ditek ezer errespetatzen.

– Karlistak aztoratuta, zergatik?

– Madrilek ez omen ziek kasurik egiten. Atzo hor ari zuan Monico zaharra Irigoyen hostalean, errege familia kanporatu dutela eta kupoa igoarazi nahi digutela eta kristorenak erraten.

– Kupoa?

– Badakik, batzuei patrika ukituz gero, akabo –eta ke bafada bat bota zion Martini muturrera, itotzeko modukoa.

5

Etxekoek mahai gainean jarritakoa jaten zen Irubiden, hainbeste jakinen zuen Pete Domezainek, horrexegatik eskatu zuen ardorik onena ekartzeko, eskuak garbitzera komunera joan baino lehen. Martini iruditu zitzaion aktoreen antzeko pausajea zeukala, Hollywoodekoen artean ibiltzetik ikasitakoa.

Efektu berezien arduraduna mahaian ez zegoela probesturik, Luis galdekatzea izan zen Martinek egin zuen aurrenekoa.

– Alvarez sarjentuarekin egon zarete?

– Bera aritu duk. Ni ez nauk hurreratu ere egin.

– Ongi egina. Baina hi ikusi al hau Alvarezek?

– Ez diat uste, jeeparen atzealdetik zelatatu ditiat. Bazirudik trabaren bat ipini diola. Badakik, zorrotz plantak egiten ditik beti morroiak, zain-zakurra zirudik. Ez ziguk erraz jarriko.

– Pete gure alde jarriz gero egina zagok.

Domezain eskuak igurtziz etorri zen komunetik.

– Armada erasorako prest, ezta? –esan zion Martinek, Alvarezekin izandako solasari buruzko zerbait ehizatu nahian.

– Hori arratsaldean jakinen dut, Goñi lotinant-koronelarekin hitz egindakoan. Alvarez sarjentuak ez digu bidea erraztu. Nonbait beldurra diote sasiari, kamioiaren eszena tailerraren ondoko orubean filma dezagun nahi du.

– Baina hona etorriko al da ba Goñi? –Luisek ardoz bete zituen edalontziak.

– Ez, ez, hura Iruñeko Komandantzian izanen dut zain.

Alvarez sarjentua Goñi lotinant-koronelaren morroia zen. Goñi gutxitan hurbilduko zen Urbasara, filmatze garaian besterik ez, denek ikus zezaten zein zen han arrain handia. Produkzio lanen jarraipena Alvarezen esku utzita zeukan, sarjentu hura zen *Patton* filmekoen eskaerei bide ematen ziena Armadan, nahiz eta trabak ipintzeko trebatuago zeukaten beste ezertarako baino. Bazkalaurrekoa ez zen produkziokoek sarjentuarekin izandako desenkontru bakarra, gogoangarria izan baitzen ibilgailuak Olaztira iritsitakoan efektu berezien buru Alexekin izan zuen kalapita. Fox etxearen eta Armadaren arteko kontratuaren arabera ibilgailu oro erabil zezaketen, bestela zertarako garraiatu trenez horrenbeste tona material militar, baina horren guztiaren azpian aseguru kontuak ere bazeu-

den, eta Domezainek esan zienez ez ziren munta txikikoak sinatutako poliza eta diruzko beste kontu batzuk.

– Aseguru polizaren atzean ere haiek daudela ulertu behar dugu?

– Bai, sosa den artean...

Luis ulertzera iristen ez zen konplikazioez ohartu zen Martin, beraiek gasolinarekin iruzur egin bazezaketen, berehala jabetu baitzen zenbatekoak izan zitezkeen Gendulain eta Goñi bezalakoen jukutriak.

– Diru beltza!

– Hori da. Eta sosak non kokatu, orain horretan ariko dira.

– Hain fuerte al dabil Alvarez ergel hori? –Luisek ezin zuen sinetsi.

– Goñi da izapide horien gobernatzailea –argitu zion Petek–, eta Alvarez txorimalo bat, gure aurrean zaunka egin dezan paratu dutena.

– Arazoak desblokeatzeko, beraz –Martinek Domezainen hurrengo urratsen berri jakin nahi zuen–, Goñirengana joanen zara.

– Bai. Eta behar dudan baimenaren ordainetan hark beste zerbait aterako dit mahai gainera.

Irubideko alabak babarrun gorriz beteriko ontzia ekarri zuen, ez zen sakramenturik falta lekarien tartean.

– Baina orduan, zer zaunka klase egin dizu Alvarezek?

– Makularik gabe itzuli nahi ditu ibilgailuak.

– Eta zuk zer erantzun diozu?

– Gerran gaudela, ez antzokian.

Platerak zerbitzatzen hasi zen Pete Domezain. Berea betetzen zuen bitartean Martinek ez zuen besterik buruan, nola zelata zitzakeen amerikanoaren eta Goñiren arteko elkarrizketak. Komandantziako dependentzietan nahi gisara ibiltzen ziren Martin eta Luis, beren bulegoa ere bazuten beheko solairuan, baina negoziazio hura aditzearena gehiegitxo izanen zen. Kosta ahala kosta elkarrekin afaldu beharko zuten gau hartan, ganorazko zerbait jakin nahi bazuen.

Txilindron erara prestatutako arkumea babarrunak baino goxoago zegoela iruditu zitzaion Domezaini. Eta Irubideko alabak arroz-esne ontzia mahaira ekarri zuenean, Martinek egokiera probestu zuen zerbitzariari keinu bat eginez adierazteko ekar zezala botila bat ere jantoki erdiko armairutik.

– Hara! Hemen ere ezagutzen dituzte nire gustuak –Pete ez zen batere harritu armagnaca ikustean–. Uste dut zuekin urrunago iritsiko naizela Goñirekin eta Alvarezekin baino.

– Osasuna! –topa egin zuen Luisek.

Likorea ahoan erabili eta astiro irentsi ondotik, bi gazteak aztoratuko zituela igarrita zeukana bota zuen Domezainek:

– Zuen kapitainak ere parte hartuko omen du Komandantziako bilkuran.

– Gendulain kapitainak?

– Ez dit abizenik aipatu.

– Bilkuran ez duzu zertan esan gure proposamena izan dela ezpondan grabatzea.

Ez entzunarena egin zuen Petek.

– Bostetarako egon behar dut Komandantzian.

– Oraintxe eramanen zaitugu.

– Alex nire nagusia ere agertuko da bilkurara. Ea geure neurriko ikusgarria egiten uzten diguten behingoz.

Pete Domezainek ordaindu zuen hiruren bazkaria. Eta esker oneko azaldu nahi izan zuen Martinek:

– Plazer baduzu afaltzera gonbidatuko zaitugu. Ezagutzen dut leku bat sekula ahaztuko ez duzuna.

– Ez nuen gutxiago espero –irri egin zuen amerikanoak, efektu espezialik gabe.

– Zein tenoretan?

Domezainek ez zuen berehala erantzun. Armagnac kopari azken musua eman eta zigarreta bat piztu ondotik mintzatu zen:

– Bederatziak aldera Maisonnaven.

– Han izanen gaituzu.

– Dotore jantzita joan behar nuke?

6

Zortziak irian sartu ziren izeba Ireneren etxera, aurretik Gendulain kapitainarekin solastatu baitziren Komandantzian. Hurrengo egunetan Urbasan burutu behar zen batailaren nondik-norakoak azaldu zizkioten bertan. Kapitainak begirik kendu gabe jarraitu zituen bi alferezgaien azalpenak. Ordurako Martin bezain kartsu mintzo zen Luis filmazioaren ikusgarritasunaz. Pelikulan egiazko gerraren itxura behar zutela azpimarratzen zion behin eta berriro kapitainari.

Luisek aski ongi ezagutzen zituen Gendulainen harropuzkeriak. Aitak ezer gutxi kontatzen zuen gerrako kontuez; “hura beste garai bat izan zen”, zerbait ezkutatu nahi balu bezala aritzen zen, arrangura isil batek erretzen ziola barnekoa ez adieraztearren. Gendulainek, aldiz, atzo gertatu izan balira bezala kontatzen zizkion Ebroko batailakoak. Luisek aitaren gerrako ibileraz ezer bazekien Gendulainek kontatuta zekien.

Kapitainaren karrera militarra oparoa baino mugitua izan zen. Gerra ondotik Dibisio Azulean ibili zen. Errusiatik itzuli eta, Guadalajarako eta Toledoko Infanteria akademietatik igaro eta gero, AEBetako Fort Le-

avenworthera bidali zuten 50eko hamarkadaren erdian urtebeteko ikastaroa egin zezan; han ikasi zuen zekien ingelesa. Martinek gogoan zuen filmazioa hasi aitzin Gendulainek Komandantziako liburutegian erakutsi zizkion aleak. Ia gehienak ingelesezkoak ziren. 50eko hamarkadako bigarren erdian itzuli zen Nafarroara. Zeuzkan ikasketak eta maila kontuan harturik, lasai egin zezakeen karrera Armadan, baina Iruñeko kuartelean geratu izanak ez zion eskalafoian aitzinatzen lagundu. Halakoak izaten ziren alferez bidean zeuden bi gazteei Gendulain kapitainak bere ibilbideaz eman ohi zizkien azalpenak.

Gisa guziz, arratsalde hartan ez ziren sobera luzatu, kapitainarekin solasean ari zirela soldadu bat agertu baitzen.

– Kapitaina, zure zain daude.

– Segituan noa.

Arriskatu beharra zegoen, Gendulainen bulegoa eta bilera gela elkarren aldamenean zeuden. Ahal zela, Martinek edo Luisek, bietako batek bilkura zelatatu behar zuen, nortzuk ari ziren jakin bederik. Kapitainaren idazkaria makinan jotzen ari zen Luis bulegoan sartu zenean. Bizkor ibili zen Luis. Berehala ohartu zen mahaiaren eskuineko erretilua hutsik zegoela.

– Ze gisa? Parteen inprimakiak akitu zaizkigu.

Idazkariak burua altxatu gabe paratu zuen eskua erretiluan.

– Hemen ez daukat gehiago. Biltegitik ekarri beharko ditut. Presatuta al zabiltza?

– Hala nabil, bai.

– Zatoz nirekin.

Idazkaria eta Luis biltegirako bidean zirela, Martin bulegoan sartu eta bilera gelaren ate aurrean makurtu zen. Gakoa atera eta behatxulo gisa erabili zuen sarraila. Bost lagun: Gendulain kapitaina zutik mahai-buruan, ezkerrean Pete eta errodajeko bat, Gendulain mintzo zen eskuinean zirenei begira, Goñi lotinant-koronela eta Komandantziakoa ez zen beste militar bat. Martinek gakoa sarrailan irristatu eta ziztu bizian alde egin zuen bulegotik.

Urrutitik entzun zuen Luisen ahotsa, “Iruñean ez dago neska ederragorik!, Esmeralda izena du niri gehien gustatzen zaidanak, eramanen zaitut egunen batean...”, Komandantzia osoan aditzeko moduko kalakan zetorren idazkariarekin.

– Zer arraio, mundu guztiari kontatu behar al diok non ibiltzen garen?

– Larruko laketak aipatzea baino hoberik ez zagok edozer gauza lortzeko. Erregimentu bat martxan jartzeko adina inprimaki eskuratu diat –paper multzoa erakutsi zion Luisek.

– Bikain. Goazemak izebarenera.

Telefonoa korridorean zegoen izeba Irenerenean. Martinek dei bat egin zuen Eulateko telefono publikora: hots egiteko mandatua utzi zuen osaba Jeronimorentzat. Ez ziren bost minutu igaro honek deia itzuli zionean, tabernatik telefono publikora joateko behar izan zuen denbora, hain juxtu. Ez zen luze mintzatu osabarekin. Luis balkoi aldeko gelatik korridorera hurbildu zenean Martin despeditzen ari zen. “Osteguneanbehar du!” esaldia izan zen Luisek Martini entzun zion bakarra.

Jarraian Zudairiko Irigoyen hostalera deitu zuen. Pedrotxoz galdetu zuen. Luisek ezaguna zuen Martinen lehengusua. Aste Santuko baimena probestu zuten Artatzara, haren sorterrira joateko. Ez zuten erraz ahaztuko Ostiral Santuko gaua, zeharo arrailduta bukatu zuten egun hura Pedrotxoren etxean. Baina, aurretik, egun argiz, lehengusuaren jeep zaharra baliatu zuten Urbasari itzulia emateko, eta otarrea ez zen hutsik heldu etxera. Goiztiarra izan zen udaberria,

perretxikoz enpo egin zuten egun hartako afari legea; tira, eta dena esaten hasita, ez ziren egun hartan perretxikoez gozatu zuten bakarrak, etxera bidean gelditu zituen guardia zibil pareak ere eraman baitzuen bere partea.

Martinek berehala gakotu zuen telefonoa, nonbait Pedrotxo ez zen une horretan hostaleko tabernan. Luisek begiratu batekin zerbait galdetu nahi ziola igarri baitzuen Martinek, aurreratu egin zitzaion:

– Hi lasai, geroxeago kontatuko diat.

Kalerako ibiltzen zuen jaka grisa telefono ondoko esekitokitik hartu eta jantzi egin zuen Martinek.

– Goazemak bizkor Maisonnavera, han egon beharra zaukaagu Domezain kafetegian agertuko orduko.

Baina kalerako prest zirela, ate hotsa aditu zuten.

– Berandu zabiltzate, mutilak –izeba Irene atalasean, poltsa bana eskuetan–. Gaur ere gerra al duzue gau partean?

– Gau eta egun ari dira pelikulakoak...

– Eta zuek haien moldera egokitu behar, ezta?

– Halaxe da, beti badugu zerbait.

Andreak pasilloko esekitokian zintzilikatu zuen berokia, sukalderantz abiatu aitzin. Martin atzetik jarrai-

tu zitzaion. Maite zuen gazteak zoru argizariztatu berriaren usaina.

– Arestian Pedrotxok deitu dizu –izebak mahai gainean utzi zituen bi poltsak.

– Bai, badakit, Irigoyenen utzi diot mandatua. Ez dut uste hona berriz deituko duenik.

– Eta deitzen badu? –izeba Irenek arasan utzi zuen arroz paketea.

– Esaiozu nik hots eginen diodala.

– Ez badu deituko, ez diot ezer esanen.

– Tira, izeba, alde egin beharra dugu.

– Gaur ere biak etorriko al zarete lotara?

– Nork daki!

– Orduan ez zarete etorriko?

Bihurria iruditu zitzaion emakumeari Martinen begirada.

– Zintzo ibili.

7

Ilundu zuen Maisonnave hotelera iritsi zirenerako.

– Gustua hartu diozue –Lizarbe kopak garbitzen ari zen.

– Hire koktelen parekorik ez zagok Hiri Buruzagi osoan.

– Patton bana?

– Goiz duk, oraingoz ez diagu gasolina premiarik.

– Baxoerdi bana beraz.

Luisek aukeratutako mahaian eseri ziren, ondokoan zegoen-eta bart arratseko blonda. Martinek hankak luzatu zituen aulkian esertzean, nekea sumatzen hasia zen: lo handirik ez, egun osoa dantzan eta, hori guztia gutxi balitz, une oro hausnarrean amarruaren hariak lotu nahian.

Bakarrik heldu zen kafetegira Pete Domezain. Txortak ikusi eta haiengana joateko imintzioa egin zuen, baina diosala egiterako barran zegoen gizon bizkar zabalarengana hurreratu zen. Ingelesez mintzatu ziren biak. Petek prakak seinalatu zizkion, eta bizkar zabalak baiezkoa egin zion buruarekin. Gizonak lokaztuta zituen belaunetik behera. Martinek ez zien begi-

rik kendu elkarrizketak iraun zuen bitartean. Bizkar zabalak barrari eusten zion ezkerreko eskuarekin, whiski edalontzia zuen eskuinekoan, tarteka burua makurtzen zuen Domezaini ameto eman nahian edo. Bizkar zabalak monosilaboak jaurtitzen zituen burua makurtzen zuen aldiro. Petek atzamar erakuslea gorantz mantentzen zuen hizketan ziharduenean, keinu hark aetzarekin aurreko gauean izan zuen solasaldia ekarri zion gogora Martini, hatza aginte makila gisa ibiltzen zuen Petek lanaren inguruko xehetasunak ematerakoan. Petek azkenik eskuineko sorbaldan paratu zion eskua bizkar zabalari, agurrak ezustean harrapatu zuen hau eta ezker eskua baliatu behar izan zuen edalontziari eusteko, oreka galdurik barraz kanpoaldera balantza egin zuen gizonak eta Petek kontu egin behar izan zion eror ez zedin. Bizkar zabalak ezker eskuarekin bilatu zuen barraren babesa berriz ere, eskuinean zuen edalontzia, zurruterako pronto.

Domezain bi gazteen mahaira hurbildu zen.

– Hori al da...

– Bai, Patton jenerala –moztu zion amerikanoak– eta lagunentzat, Scott. Hobe horrela, orain zeharo mozkortuz gero, ez du asko aguantatuko. Eta hartara,

laster oheratzen bada, bihar fresko samar izanen dugu batailarako.

– Noiz dugu erasoa? –Martinek sua eman zion aetzaren zigarretari.

– Bihar, etzi. Tokia egokia iruditu zaie tankeen eta konboiaren erasorako, baina eguraldiaren menpe gaude. Ilunabarrean nahi dute, ahal bada oskarbi dela.

– Bihar bertan orduan –Martinek osaba Jeronimorekin hitzartutakoa zuen gogoan–. Etzikoa baino hobea dator biharkoa.

– Eguraldi kontuez ere badakizu...

– Fida zaitez Martinekin –aholkatu zion Luisek.

Pete Domezainek sabelera eraman zuen eskua, handik pistola bat ateratzera balihoa bezala.

– Afaltzeko tenorea ere izanen da ba honezkero...

– Baiki.

– Zurekin fidatuko naiz, Martin, zurea da-eta gonbita.

– Goazen Josefarenera.

Luis izan zen altxatzen aurrena, begi-kliskako bat egin zion blondari, eta honek musu bat eman zion Patton koktelari.

Kontuen Ganbaratik igarotzean eraikinari begira geratu zen Domezain, nonbait ez zitzaion arrotza ingurua. Campana kalean ezkerreko tabernatik atera berri zen gazte batekin gurutzatu ziren, zakuto bat zeraman sorbaldan. Luisek agurtzeko imintzioa egin zion gazteari, honek hiru gizonei erreparatu gabe azkartu zuen ibilera. Tabernako atea ireki eta barneratzean bi eskailera mailak jaitsi zituzten jantokira iristeko. Ezkerreko mahaia hobetsi zuten, bat izan ezik eskuin aldekoak hutsik baziren ere. Tabernako sukaldea agerian zen. Bi emakumezko ari ziren lanean lapiko eta zartagin artean.

– Gabon, Josefa –esan zuen Luisek–. Jende guti, ezta?

– Guti edo anitz, beharra igualtsu.

Ile urdindua zuen Josefak, ondoan zaharxeagoa zen emakumea zopa-ontzi bat betetzen ari zen, eskuineko mahaikoek dastatu behar zutena.

– Ba al duzue anderrairik? –galdetu zuen Martinek.

Aspaldiko bezeroa zen La Campana tabernan. Nerabe zenean dastatu zituen estreinakoz Josefaren zuritabeltza, tripakiak, ajoarrieroa; baina inondik ere anderraiak zituen gustukoen. Soldadutzara joan aurretiko azken sanmigeletan ere bertan bazkaldu zuen osa-

bekin, Cristobalekin eta Sabinorekin; hauek Lizarratik autobusez heldu, ferian ikusi beharrekoak ikusi eta bazkari legea Josefarenean egin zuten, bertan batu zitzaien Martin; ondoren etorri bezala desagertu ziren, San Gregorio aldean arreoren bat erosi behar zuten aitzakiarekin. Eta bertan geratu zen Martin, Josefarenean geldi, feria egunetan mahaiak zerbitzatzen zituen neskatoari beha. Azkenik Nabarreria aldera hurbildu zen, Pedrotxok inguru horretan bazkaldu behar zuela aditu baitzien osabei. Aise topatu zuen lehengusua.

– Bakarrik utzi al haute? –Pedrotxok sorbaldan zeraman jaka.

– Badakik, tresneria kontuak. Geltokian elkartuko gaituk gero.

– Ia bi ordu ditiagu libre autobusa ateratzen den artio, nahi al duk probestu?

– Ez zakiat denbora zertan eman.

– Nik bai.

Mañuetatik behera abiatu ziren. Feria eguna izaki zabalik zeuden denda gehienak, bazebilen jendea arratseko lehenbiziko tenorean ere. Frontoitik pilotakaden asotsa heldu zitzaien. Zakatina inguratu eta

museo aldera jo zuten. Oinutsik kalean sartzear zirela Pedrotxo ate urdinkara bati begira geratu zen.

– Nora naramak!

– Ederki dakik hik ere –Pedrotxok jantzi egin zuen ordura arte sorbaldan eraman zuen jaka–. Sosik ez baduk, lasai, gaurkoa nire kontura.

Atea barnerantz ireki zen, lehengusua bizkor ibili zen, Martin jarraiki zitzaion, atalasean zeuden bi gizon heldu kanporatzen ari zirenean.

– Ze ari haiz hi hemen!

– Ez genekien zuek non aurkitu eta honaino ere heldu behar –Martini ez zitzaion besterik bururatu desenkusa moduan bi osaben aurrean.

Laurak isilik irten ziren kalera. Eta isilik eman zuten autobus geltokirainokoa. Martinek ez zien ia agur ere egin bi osabei eta Pedrotxo lehengusuari Lizarrako autobusera igo zirenean.

Lehenbiziko pisura ailegatu ez bazen ere, hura izan zen Martinek Casa Marina zapaldu zuen aurreneko aldia. Harrezkero gehiagotan ere joan izan zen, Luisekin txama egin ondoren sarriago. Unibertsitatean elkar ezagutu zutenetik, La Campanako otordua Oinutsik kalean finitu ohi zen, atea urdinez margotua zeukan etxe hartan.

Baina istorio horiek ez ziren edonoiz kontatzekoak; izan ere, Josefak salda ontzia utzi zuen mahai gainean, eta Martinek fansaina egin zuen mol zabaldu berriarekin.

– Halakorik ikusi gabea naiz aspaldi –poztu egin zen Pete.

– Dastatu nahi? –botila bete mol eskaini zion Martinek.

– Ezin errefusa! –Petek ardoarekin belztu zuen salda.

Beste mahaian futbola zuten hizpide, bost gizonezko sesioan. Luisek bazuen ezagunik horien artean, Portillo erlojugilea tartean baitzen. Eztabaida berotzen ari zela oharturik, adarra jo nahi izan zien:

– Hobe zenukete Oberenarekin bat egitea –denek entzuteko moduan bota zuen eta bostak itzulikatu ziren Luisengana, baina ez zen preseski umore onik haien bisaietan.

– Hago isilik, Luis –kargu hartu zion Martinek–. Utz itzak bakean, noiznahi daukak Iruña taldekoei adarra jotzeko aukera.

– Bale, bale, ez hadi horrela jarri.

– Gu geurera, biharkoa prestatu behar dugu-eta.

Pete Domezainek libreta gorria atera zuen txalekotik. Zirriborro trebe haietan zeuden bilduak Urbasako zabalguneak. Martinek adi-adi segitu zituen amerikanoaren azalpenak. Itxura guztien arabera, bigarren zabaldian paratuko zuten konboia. Erasoa filmatu ondoren lehendabizikotik bigarrenera helduko zen Patton, jeneralak batailan kolpatutako soldaduak adoretu behar zituen.

– Hiru jeep eta kamioi bat sutuko ditugu.

– Sua behar baduzu, sua izanen duzu –esan zuen Luisek labana eskuan zuela.

– Bi eszenak errealismo handikoak izatea komeni zaigu.

Josefak salda katiluak bildu eta hiru plater eta metalezko bi azpil utzi zituen mahai gainean, anderraiak batean, ajoarrieroa bestean. “Hementxe daukazu errealismoa”, pentsatu zuen Martinek, baina ez zuen burutazioa ahora eraman.

Pete Domezainek orriak zirriborratzen segitzen zuen.

Harira jo zuen Martinek:

– Zeu arduratuko al zara ibilgailuez?

– Ibilgailuez, munizioaz eta gainerako guztiaz. Gerrarako attrezzoa eta efektu espezialak gobernatzea da nire egitekoa.

– Guk lagunduko dizugu hori guztia hara eramaten –proposatu zuen Luisek.

Amerikanoak ez zuen kontrakorik esan. Edalontzia hustu eta ajoarrieroari ekin zion.

– Bigarren zabalgunean ez da lurra berdindu beharrik. Tankeak aise helduko dira, baina kamioia nekez sartuko dugu. Lokatzetan trabatuta geratu da.

– Lokatza? –Martin harritu egin zen.

– Eguerdian filmatu dute. Atzo prestatu genuen. A ze iskanbila izan duten gaur kamioia handik ateratzeko! Ez al dituzue Patton jeneralaren prakak ikusi Maisonnaven?

Scott aktore bizkar zabalarekin izandako solasaldikoak azaldu zizkien Domezainek:

– Bidegurutze bat nahita lokaztu zuten atzo. Filmatu berria zuten eszenan ibilgailuek enbarazu egiten zioten elkarri. Kontua da Patton jeneralak anabasaren erdian agertu behar zuela ibilgailuen trafikoa zuzentzen, korapiloa askatu arte. Azkenean, kable baten laguntzaz atera behar izan dute kamioia filmazioa amaitu dutenean.

Martin hari-muturrak lotzen ahalegintzen ari zen.

Uranga tailerreko gazteak agindu zionez, bazuen ia txatarrerako zegoen jeep zahar bat. Esan zionez prest izanen zuen ibilgailua erasoaren bezperarako.

Baina kamioia ere... gutiziatsua zen oso.

Ordezko bat bilatu beharra zegoen.

Non ordea, hori ere Uranga gaztearekin lotu beharko zuten.

Nolanahi ere... Petek zuen lehentasuna! Amerikanoaren gogoa beraien aldera makurrarazi beharra zegoen.

Eta... Oinutsik kaleko Casa Marina... Martini iruditu zitzaion Domezain limurtzeko hurrengo pausalekua ate urdinkara zeharkatuta kausituko zuela.

– Barkatu, Josefa, berandu da guretzat eta beste nonbaiten hartuko dugu kopa bizkor-bizkor. Ordaindu eginen dizut. Itzuliko gara laster berriz ere.

Domezainek zinez eskertu zuen Martinen gonbita, baina ez zen isilik geratu:

– Aizue, zuek biek, zer darabilzue eskuartean?

– Guri on eginen digunak ez dizu zuri kalterik ekarriko.

Domezainen galderak ez zuen Martin ezustean harrapatu. Ameskoarraren erantzunak ez zuen aetza konformatu.

– Harira, Martin, harira!

– Gerraren ikusgarritasunak on ekarriko digu denoi.

– Argi mintzatzen ez bazara, hemen bukatuko da gure artekoa.

– Azaldu beharrekoak Marinaren etxean azalduko dizkizut.

– Ez, orain eta hemen.

– Eguerdian esan dizut ezagutzen dudala leku bat sekula ahaztuko ez duzuna, eta oraindik ez gara hara iritsi.

8

Jarautan norbait kantari ari zen etxeren batean, garbi heltzen zitzaien gitarra hotsa. Oinutsik kalean sartzean, Luis ate urdinkarara aurreratu orduko Martinengana jiratu zen Pete Domezain.

– Hemen ez da tabernarik! –amerikanoak atzera egin zuen.

– Baina ez da mama gozorik faltako –Martinek besotik tiratu zion.

Konturatu orduko eskaileretan gora zihoazen hirurak. Lehendabiziko pisuan egongela handia zegoen ezkerraldean. Inor ere ez. Altzari eta dekorazio urria, moketa zoruan eta paper tindatua hormetan, paretaren erdian kuku-erlojua, ertz batean mostradore moduko mahaia eta horren atzean errezel morea, beste gela batera ematen zuena. Errezela doi bat zabaldu eta emakumezko heldu bat ikusi zuten.

– Gabon, Marina.

– Gabon, bai. Goiz heldu zarete!

– Goizago nahiago nik, baina eginbeharrak agintzen du.

Luisek eskutik oratu eta musu bat utzi zion emakumeari hatz-koskorretan.

– Ezer edan nahi al duzue?

– Ba al daukazu armagnacik?

Emakumeak eskua eraman zuen eskuineko belarritakora eta errezelaren atzetik desagertu zen.

Hiru gizonak mostradore ondoko sofan eseri ziren. Pete Domezainek ez zuen deus ere esaten. Erretilu batekin itzuli zen Marina anderea, hiru kopa eta brandi botila zekartzan.

– Ea armagnacaren parekoa den.

– *Independentzia!* –Luisek brandi botila jiratu eta etiketa irakurri baitzuen–. Honek debekua dakar.

Emakumeak purrust egin zuen.

Martinek hiru kopak bete zituen *independentzia* hartatik.

– Nahi al duzue inori deitzea? –galdetu zien Marinak.

– Gisele... –eskatu zion Martinek.

– Esmeralda eta Chela bai.

– Eta Gisele?

– Begiratuko dut –Marina andereak purrust egin zuen berriz ere.

Handik gutxira bi emakumezko azaldu ziren aretoan. Bata blonda, bestea beltzarana.

Blonda Luisen ondora hurreratu zen.

– Atzo hire falta izan nian –Esmeraldak Luisen sorbalda ferekatu zuen.

– Nik ere bai hirea.

Pete Domezainek musu eman zion kopari, Luisek gerritik heldu zion Esmeraldari eta ia airean aterarazi zuen egongelatik.

– Hau presa! –irri egin zuen Esmeraldak.

Chelak zigarreta pakete bat atera zuen sofaren ondoko sinfonierretik, eta bi gizonei eskaini. Biek hartu zuten. Ameskoarra baino azkarrago ibili zen aetza metxeroa ateratzen. Zippoak ezantza usaina barreiatu zuen egongelan.

Eta orduan, errezela berriz ere zabaldu eta bilogorri bat agertu zen.

– Hau edertasuna! –Martinek silaba guztiak nabarmen ebaki zituenean, ezpainak okertu zituen Chelak.

– Ez al da Luis etorri? –Giselek adats gorriak orraztu zituen eskuaz.

– Luisek utzi egin gaitin, hemen dun gure lagun berria, Ameriketatik ekarri dinagu. Hitz gutxikoa dun, baina ziur naun ongi konponduko zaretela.

Giselek eskutik heldu zion Pete Domezaini eta honek libre zuen eskuarekin hustu zuen brandi kopa. Egongela utzi aurretik begirada konplizea bota zioten elkarri Giselek eta Martinek. Chelak bizkarra eman zion Martini eta errezel morearen atzean desagertu zen.

Sofan luze etzanda zegoen Martin, Marina anderea egongelara itzuli zenean. Kopak erretilu gainean biltzean sortutako txilinak atera zuen lozorrotik.

– Segi ezak lotan nahi baduk, ez zirudik gaur mugimendu handirik izanen dugunik. Egongela txikia ere libre daukak, nahi izatera.

Martinek eskuak aurpegira eraman zituen agontzerakoan.

– Presarik ez amerikanoarekin.

– Horraino entelegatu diat.

– Kontuak egin ditzagun –diru-zorroa atera zuen Martinek.

– Hiru zerbitzu.

– Ugaldu egin al dira ba goian?

– Amerikanoak kanonigoaren txanda hartu dik, beraz doble.

Martinek sei billete utzi zituen mostradore gainean.

Gauerdirako bost minuturen faltan bueltatu zen Luis. Moda aldizkari bat leitzen ari zen Martin.

– Hau ere zor didak.

– Jakina! –Luisek patrikan sartu zuen eskua.

– Trankil, operazio osoa amaitutakoan eginen ditiagu kontuak.

– Luzerako al du amerikanoak?

– Hoa, nahi baduk. Baina hemendik zuzen-zuzen etxera.

– Bai jauna! –soldadu agurra egin zion Luisek.

Aldizkariko nesken arropei begira jarraitzen zuen bitartean, Domezainez berantetsirik, planaren harimuturrak lotzen ahalegindu zen Martin. Ahalik eta informazio gehien bildu nahi zuen Peterengandik. Alvarez sarjentuak ez zuen deus ere sumatu behar, eta hala gerta zedin aski lanpeturik eduki beharko zuten Goñi lotinant-koronelaren zakurra.

Horretan ziharduela, arin sartu zen Marina anderea, ez zuen txintik ere esan eta eskuaz egongela txikira pasatzeko agindu zion. Bi minutu eskasera solasaldi baten zurrumurrua aditu zuen Martinek egongela txikitik. Giselek ez aspaldi erakutsi zion trikimailua gogoratu zuen: bi egongelak banatzen zituen paretan zintzilik zeramikazko plater bat zegoen, hura jiratu eta

ondoko logela ikus zitekeen. Martinek ez zion tentazioari eutsi, berak berriki utzitako sofan hiru gizonezko ari ziren solasean, Goñi lotinant-koronela zuen hurbilen, urrutien Gendulain kapitaina, eta hiruretatik dotoreena erdian eserita.

– Nor da erdian dagoen begi urdin hori? –galdetu zion Marinari.

– Ez diat ezagutzen.

Ez zen ohikoa Gendulain kapitainak Marinaren etxea bisitatzea, bestelako zuloetarako joera zuten. Guardia zibilen eremutzat zuten Iruñeko militarrek. Etxeari Casa Marina esaten bazioten ere, mugaldeko merkatari bat zen jabea, gazte zelarik guardia zibil aritutakoa eta orduan ere kide izandakoekin estuki lan egiten zuena.

Hiru gizonak kontu-kontari ari ziren Marina errezelaren bestaldetik agertu zenean. Zerbait eskaintzeko keinua egin zien andereak, hirurek buruarekin baiezkoa eman zioten.

Egongela txikiko atea ireki zenean Martinek bi eskuekin eutsi behar izan zion zeramikazko platerari eror ez zedin. Gisele bilogorria sartu zen.

– Eta amerikanoa? –Martinek ezin zuen urduritasuna ezkutatu.

– Lo geratu zaidak. Beste horiek despeditutakoan esnatuko diat. Horren gozo geratu duk!

– Nolatan hauek hemen? –gaitziturik zegoen Martin.

– Gendulain ez duk arrotza gurean. Lotinant-koronela, berriz, aurreko asteburuan ezagutu nian. Hirugarrena zaidak arrotza, baina lepoa eginen nikek... hori bestaldekoa duk.

– Nola dakin?

– Hemen ez zarete usatuak horrelako dotoreziatara.

Giselek platera eskuetatik kendu Martini eta paretan zintzilikatu zuen.

– Libre daukak ganbarako nire gela, hoa deskantsatzera, utzi niri –masailean pot bat eman zion neskak.

– Eta zer eginen dugu amerikanoarekin?

– Lo segituko dik horiek alde egindakoan ere.

Giselek egongela txikia utzi zuenean Martinek ezin izan zion eutsi berriro platera jiratzeko tentazioari. Hiru urde haiek tente jarri ziren bilogorria agertzean, ordurako han ziren Chela beltzarana eta Esmeralda blonda. Eta azkenik Marina andereak, mostradoretik, eskua goraka astindu zuen bi egongelak erdibitzen zi-

tuen hormako kuku-erloju aldera, Martini adieraztearren aski barrandatu zuela behatxulotik.

Giseleren gelako ohean etzan zen Martin, goiko ganbaran, neskaz zekienari errepasoa ematen begiak itxita. Inoiz kontatua zion nolatan heldu zen Iruñera hamabi urte bete berritan; gero hemendik, Itsasuko izeba bat tarteko, Bordelera joan zen merkatari aberats baten zerbitzuko. Hiru urte eman zituen Garona ertzeko etxe handi hartan, baina zaharra hildakoan herriko etxearen ondoko hotel batean hasi behar izan zuen lanean. Han ezagutu zuen hondamendia ekarriko ziona: Piarres izeneko maitreak begiz jo zuen bilogorria eta ibiliaren ibiliz haurdun utzi. Sabelaren handitzea ezkutaezina zenean desagertu zen Piarres. Orduan sartu zuen hoteleko nagusiak komentu batean Gisele. Hilik jaio omen zen haurra, hori esan zioten bederen. Monjek Clermont-Ferranden zuten etxera bidali nahi izan zuten, baina Giselek argi zuen hura ez zela bere tokia. Gau batean, atabakako dirua ebatsi eta hartu zuen trena Bordelen. Frantzian bere bila hasi eta aise topatuko zutela jakinda, muga igarotzeko deliberoa hartu zuen.

Trenez heldu zen Baionako geltokira. Itsasun gelditzea otu zitzaion Garazirako trenera igo zenean, be-

rehala uxatu zuen ideia burutik, ordea. Iluntzean heldu zen Garazira. Iraila zen eta eguraldia lagun egin zuen Arnegirako bidea; han zen Joana, Luzaideko benta batean ari zen herriko adinkidea. Joanak hasieran ez zion harrera berorik egin, baina errukituta, segituan asmatu zuen gezurra bentako nagusiarentzat. Zuberoatik heldutako lehengusu txikia zuela; bistan zenez, honek ez zion sinetsi, baina neska liraina zela ikustean bentan aritzea eskaini zion.

Giselek Joanarekin ohe berean lo egin zuen lehendabiziko bi gauetan, hirugarren egunerako gela txiki bat atondu ziotela esan zion nagusiak, eta menturaz bizitzan lehen aldiz, gela propioan egin zuen amets. Laugarrenean, lokartzeko puntuan zela, atea ireki zen. Konturatu zenerako gainean zuen gizona. Bosgarren gauean errepikatu egin zen bisita, eta bide beretik zihoan seigarrena sekulako iskanbila sortu zenean pasilloan. Berehala ezagutu zuen norenak ziren oihuak. Gisele ohetik jaiki eta korridorera atera zen: andrea zutik burruntzali bat eskuan, gizona zoruan luze, ahaleginak eginda ere ezin altxaturik. Gau hartan bukatu zen Giseleren egonaldia Luzaideko bentan. Biharamunean Joanak lagundu zion autobusera, eta agur egitean paper bat eman zion, helbide honekin: Marina

Espoz, calle Descalzos 7, Pamplona, azken bi urteetan Giseleren abaroa izan dena.

Arrunt txikia zen goiko ganbarako logela: ohea, aulkia, komoda zahar bat eta egurrezko mahaia leiho bakarraren ondoan. Giseleren urrinak iratzarri zuen Martin.

– Ze tenore dugu?

– Amerikanoak lo segitzen dik eta militarrak joanak dituk. Tira, militarrak eta militarra ez dena.

– Nor zen ba begi urdin dotore hori?

– Garazikoa omen.

– Nola dakin hori?

– Galdetzea ere...

– Berak esan din?

– Esmeraldarekin egon duk. Niri Goñi egokitu zaidak.

Martinek besarkatu egin zuen Gisele, eta hala egon ziren isilean une batez. Ameskoarrak ipurdi mazelak igurtzi zizkion, itsasuarrak gizonaren bularra bilatu zuen ezpainekin. Ez zen izanen Giseleren ohean gaua igaroko zuen lehenbiziko aldia.

Agerikoa zen zerk erakartzen zuen, zailagoa zitzaion bien artean sortutako konplizitatea azaltzea. Bilogorria puskaz rameganteena zen Casa Marinan. Mar-

tinek, Luisek ez bezala, ez zien sobera erreparatzen Bigarren Zabalguneko kafetegietan arratsaldeak ematen zituzten neska pinpirinei, inoiz ere ernegatu eta guzti ere egiten zen Luisek gorteiatze-toki horietarako zuen joerarekin. Tontodromotik kafetegietara heldu berriak ziren neska horiek gora eta behera ibiltzen zuten aurretik Carlos III.a etorbidea. Gora abiatu eskuinetik eta ezkerretik hogei bat metrora behera zihoan neska kuadrillako ausartenari begiradaren bat lapurtzea zen bi mutilek erdiets zezaketen zirri bakarra. Inoiz esana zien izeba Irenek, hobe zuketela eguerdiko mezatara joan, elizan bederen bertatik bertara edukiko zituztela, eta argi-ilunen jolas batean, gainera.

Tontodromoko neskak sobera argiztaturiko Bigarren Zabalguneko kafetegietan esertzen ziren. Giselek ez zuen harako joerarik, Genelarisimo etorbidea igarotzea eskandalua zatekeen. Bere gisakoak bestelako txokoetan laketzen ziren, Tres Reyes hoteleko kafetegian, konparazio batera. Martin eta Gisele elkarrekin egonak ziren han, bezeroen joan-etorriak nolabaiteko intimitatea bermatzen baitzien.

– Zertan ote dabil Garaziko gizon dotore hori militarrekin nahastuta? –esan zuen Martinek lau orduko loaren ondotik.

– Auskalo. Goñik ordaindu dik dena.

– Arrain handia dun hori.

– Ez harritu ostiralean berriz hemen badira.

– Ze ba?

– Antza denez, gose geratu dituk. Jaisten ari zirenean, aurki itzuliko direla bota dik Goñik.

Martin ohetik altxatua zen eta leihotik begiratzen zien teilatuetan gora dirdiraka ari ziren izarrei. Ke-hari bat zerion tximinia bati ez oso urrun.

– Berandu dun, laster argituko din. Amerikanoa esnatzen lagundu behar didan.

– Bai, oraintxe –Giselek bata loreduna jantzi zuen–, baina gera hadi gero nirekin eta gosaria ekarriko diat ohera.

– Gaur ez, Gisele. Amerikanoa entregatu beharra zaukanat Komandantziara abiatu aurretik.

Esnatzen ari zen hiriko karrika hutsetan barrena gidatu zuen Domezain Maisonnaveraino. Erlojuari eman zion begia. Seiak eta hamar ziren hoteleko atarian utzi zuenean. Bakarrizketan eman zuen bidea Martinek. Tartean behin Petek ameto keinuak egiten

zizkion, hain ongi mamitua ikusten zuen lapurretaren plana.

9

Gozo esnatu zen maiatzaren lehena. Ireneren etxeko sukaldean Luis esne-zopak gosaltzen ari zen Martin Komandantziatik heldu zenean, tantez eta birrinez zipriztinduta zuen mahaia.

– Garbi al daukak gaurko operazioa?

– Bai, baina azalduko diat bidean. Orain ez diagu betarik.

– Gosaltzen amaitzeko ere ez?

Pauso hotsak aditu ziren korridorean. Izeba Irenek txabusina lotu zuen bi gazteen aurrera agertu aurretik.

– Goiz zabiltzate gaur ere.

– Egunon, izeba.

– Atzo Pedrotxok hots egin zian –izeba Irenek kikara bat bete zuen–. Hamarretarako agertuko omen duk adostutako tokian.

Izebak eskainitakoa onartu eta Martinek hurrup bakarrean irentsi zuen kafea.

– Gaur ere galtzak bete lan...

– Mutilak, prest utzi dizuet mokadu bat lapiko horretan.

– Eskerrik asko, izeba; bidean janen dugu.

– Estherrenera joanen nauk, ez zakiat Argaraitik noiz itzuliko naizen.

– Zer du ba Estherrek? –Martinek aski ongi ezagutzen zuen izebaren laguna. Iruñeko Seminariotik gertu, Argaraiko txaletetako batean ari zen lanean. Etxebizitza hutsik zegoen ia beti, jabea Madrilen bizi baitzen.

– Nagusia zatorrek. Atzo bertan eman zioan gaztigua eta den-dena txukundu behar dik astebururako.

Bi aste lehenago izan ziren Luis eta Martin azkenekoz bertan. Luisen izeba Paulak ere txalet bat zeukan kolonia hartan, Estherrek lan egiten zuen etxearen ondo-ondoan.

– Goraintziak emazkiozu –eta Martinek keinu batez altxarazi zuen Luis.

– Ongi pasatu eguna, Irene –Luisek zutik irentsi zituen azken hondarrak.

Eskailerak jaisten ari zirela, Martinek jeeparen giltzak bota zizkion lagunari.

– Gaur hiri tokatzen zaik.

– Zer, hire bilogorriak akiturik utzi hau bart, ala?

– Hik segi Aitzoaingo kuartelera.

– Ez al gara gasolindegian sartuko?

– Gaur ez.

Aitzoaingo kuartelean sartu-irtena egin ondoren, Luisi plana azaldu zion Martinek:

– Pedrotxo hamarretan agertuko duk Uranga tailerrera.

– Noiz hitz egin duk ba lehengusuarekin?

– Ez diat hitz egin, azkenean abisua osaba Jeronimori eman nioan gaztigua pasa ziezaion.

– Eta seguru haiz Pedrotxo etorri eginen dela?

– Hik zer uste duk? –Martinek ez zuen luzamenduetan aritzeko gogorik–. Bazkalaurretik eraman behar ditiagu gure ibilgailuak Urbasako ezkutalekura.

– Eta Armadakoak? Trukea egin beharko diagu ba!

– Hago isilik eta entzun. Pedrotxo zain edukiko diagu Uranga tailerrean. Bi bidaia egin beharko ditiagu. Lehendabizikoan, gure jeepak eta kamioia portura igo.

– Kamioia?

– Bai, kamioia. Ez zakiat nola, baina kamioi bat ere ebatsiko diagu. Haiek ezkutalekuan utzi eta segidan aparkalekura jaitsiko gaituk besteen bila.

– Eta nola jaitsi behar dugu ba, txingoka?

– Lau gaituk. Domezain ere gure bila helduko duk hara gora.

– Beraz, ederki limurtu duk amerikanoa...

– Ez duk debalde izan. Ez ahantzi erdi bana dela bart gaueko libertimendua.

– Erdi bana, doike!

– Ibilgailuak gordean ditugula, Armadako ikurrak kendu eta geureei paratuko zizkieagu. Hori eginda, Petek esandako moduan kokatuko ditiagu. Dena filmaziokoak heldu aurretik egin beharra zagok. Ez zakiat gaur bazkaltzeko betarik hartuko dugun.

– Urruti al dago ezkutalekua filmazio tokitik?

– Pedrotxok jakinen dik hori.

– Baina ez ote da hobe, gure ibilgailuak hara eraman beharrean zabalgunean bertan uztea, filmatu behar duten tokian berean?

Martinek zalantza egin zuen une batez. Irribarrea loratu zitzaion.

– Ez duk ideia txarra.

– Pozten nauk. Beti esaten didak “utzi niri, utzi niri!”, eta heu bakarrik korapilatzen haiz heure hitzetan.

Orduan kontatu zion Martinek Pete Domezainena, nola onartu zituen plana eta tratua Casa Marinatik Maisonnave hotelera bidean.

Trukea egun argiz eginen zuten, errodajekoak agertzerako erre beharreko ibilgailuak prest behar zi-

tuzten zabalgunean. Gero hamar bat orduz edukiko zituzten gordean. Horrek bazuen abantaila bat: jeepak eta kamioa itxuraldatzeko aukera izanen zuten. Espainiako Armadako ahalik eta ikur gehien lortu beharko zituzten erre beharreko ibilgailuei itsasteko. Zer gerta ere, komeni zen haiek jeepen karrozerian agertzea.

Bazuten beste arazo bat, Alvarez zen Martinen kezka nagusia, sarjentuak berehala antzemanen baitzuen horiek ez zirela Armadako ibilgailuak. Horretan ere Pete Domezainen laguntza izanen zuten, zerbait bururatuko zitzaion aetzari Alvarez fidagaitz hura aparkalekutik mugi ez zedin.

Pedrotxok ahalik eta goizen egon beharra zuen Uranga tailerrean. Aurretik ezkutalekua aukeratuko zuen, hura kamuflatzeko materialik ez zitzaien faltako, pagoak zein haritzak aski ongi jantzirik zeuden-eta maiatzeko hasiera hartan.

Urrutitik antzematen zen Olaztiko aparkalekuaren berde kakia. Jeepak, tankeak, kamioiak erasorako prest ziren. Inoiz baino behargin eta teknikari gehiago zebilen inguruan, baina aparkalekuan ez zen Domezainen arrastorik.

– Hi gera hadi Peteren zain –Martin bulegora abiatu zen.

Uranga gaztea bulegoaren atzealdeko eremuan zegoen, mangera eskuan, bezperako filmazioan goitik behera lokaztutako kamioia garbitzeko prest. Luis ez zen jeepetik jaitsi.

– Uztak hori! –agindu bat izan zen Martinen diosala.

– Heuk egin nahi duk, ala? –Urangak ez zion begiratu ere egin.

– Garbitu ez, lokaztu egin behar ditiagu traste zaharrok!

Urangak mangeraren gakoa itxi zuen.

– Kamioi bat behar diagu –eskatu zion Martinek.

– Hara bestea! Eta nik tanke bat!

– Serio ari nauk. Kamioi bat, zaharra bada hobe.

– Garajean ez diagu horrelakorik. Tira, hor daukak Portlandekoen autobus zaharra, kamioi baten tankerako muturrarekin –Urangak aparkalekuaren bazter batera so egin zuen–, baina ez zakiat martxan jarri ahal izanen dugun.

– Goazemak –Martinek bultza egin zion mekanikariari.

– Hago, geroxeago saiatuko gaituk, hik bisita daukak –Urangak bulegoko sarrera seinalatu zion Martini;

honek berehala erreakzionatu zuen, bazekien nor topatu behar zuen estalpe barnean.

– Garaiz heldu haiz. Non daukak jeepa?

– Estalpearen gibelean –Pedrotxo ez zen besaulkitik higitu lehengusua sartzean–. Osaba Jeronimok ez zidak gauza handirik kontatu, munta handiko zereginen bat dugula besterik.

– Hik... nahi al huke jeep berri bat?

– Galdetzea ere! Baina zeren truke?

– Merke aterako zaik –Martinek burua jiratu zuen, Uranga bulegoan sartzera ote zihoan erreparatzeko–. Luis zain zagok aparkalekuan, hark azalduko ditik gaurko egitekoak. Nik beste horrekin solas egin behar diat orain.

Pedrotxo eta Uranga estalpearen atalasean gurutzatu ziren. Higuin keinuz agurtu zuten elkar.

– Azkar despeditu duk lehengusua –Uranga trapu batez eskuak xukatzen ari zen.

– Bizkor, ea autobus hori martxan jartzen dugun.

Urangak erreminta kutxa hartu zuen estalpetik.

– Heldu egiok honi. Gasolina hartu behar diat.

Portlandekoen autobusa jendea garraiatzeko prestaturik zegoen, baina nondik begiratuta, kamioia zirudien. Mekanikariak aurrealdeko kapota altxatu zuen.

Minutu pare bat eman zuen bihurkina dantzan. Gero bidoia hartu eta gasolina bota zion ibilgailuari. Lehendabiziko saiakeran ez zuen arrankatu, bigarrenean kostata, baina martxan jartzea lortu zuen; ihes-hodiak ez zion inbidiarik Etna sumendiari, keak albo batean zen Martin inguratu zuen.

– Listo, hau bazabilek –ibilgailutik jaitsi zen Uranga.

– Esan, zenbatean aterako zait txatarra hau?

– Txatarraren prezioan ez.

10

Bizkor egin zuen Martinek aparkaleku nagusirainokoa. Han topatu zituen solasean Luis eta Pedrotxo. Azken honek berehala sumatu zuen Martinen ezinegona.

– Urangak dirua nahi du –bota zien deblauki.

– Eta? –Luisek.

– Berehala nahi duela.

– Zenbat eskatu du ba?

– 40.000.

– Kopon!

– Aluak barrabiletik harrapatuta gauzka. Orain erdia emanen diogula esan diot.

– Eta hik ba al daukak erdia? –Pedrotxok bazekien ezetz.

– Eta hik?

– Nahi bai.

Aparkalekuan, tankeen inguruan ari zen behargin gehien; erdian, denen buru, aginduak ematen ari zen militar espainiar bat eguzkitarako betaurreko distiratsu batzuekin. Aurreko astean Komandantzian Gendu-

lain kapitainarekin ikusi ote zuen iruditu zitzaion Martini.

– Arre edo so? –Pedrotxo izan zen isiltasuna urratu zuena.

– Hik zenbat daukak?

– Otordu on bat egiteko lain.

– Ederki gaudek!

Ez zen 10.000 pezetara iristen hirurek aldean zeramatena.

– Ahal dudana ekarriko dut nik Altsasuko La Vasconiatik –esan zuen Luisek.

– Baina maiatzaren lehena da, dena itxita dago.

– Aitabitxia dut La Vasconiako zuzendaria, nire ama zenaren anaia. Ateratzen ahal dizkiot hiru mila bat ogerleko...

– Hoa bizkor! Esaiok bi aste barru itzuliko dizkioala. Asmatuko duk ipuinen bat.

– Hire esanetara! –jolasti, eskua lokira eraman zuen Luisek.

Martin estalpera abiatu zen berriz ere, eta ezer esan gabe billete multzo bat eman zion Urangari, ordubeteren buruan falta zena ekarriko ziola aginduta. Diru freskoa ukitzeak Uranga beratuta, haien esku utzi zuen ibilgailuen garraiorako premiazkoa zutena. Jeepa

itxuraz ez zen sobera zaharra, baina filmazio tokira eramateko garabia beharko ote zuten deliberatzen aritu ziren. Portlandekoen autobusa, berriz, mugitu, mugitzen zen, baina ezin zuen 30 km orduko abiadura gainditu kezko gortina oparoa hedatu gabe. Hirugarren ibilgailua Pedrotxoren jeepa zen. Denetan puskaz zaharrena izanik ere, aski ongi zebilen.

Hiru lagun behar ziren ibilgailuak filmazio tokira eramateko. Maisonnave hoteleko atarian adostu moduan, Pete Domezainek bi gazteen jeepa hartu eta haien bila joanen zen, Olaztira itzuli eta bigarren bidaian lapurreta egin zezaten.

Dena kontrolpean zutela zirudien, baina Martinek ezin zuen kezka disimulatu: eguzkia gero eta gorago zegoen eta Pete ez zen inondik ageri.

Eta bestetik, Pedrotxorekin hitz egiteko beta ere hartu beharko zuen. Egiaren aitortzeko, ordura arte ezer gutxi kontatua zion operazioari buruz. Lehengusuak zekien bakarra zen jeep berria feriatuko zuela berarendako, eta Luisi ulertu zionez egun eta gau osoko lana zuten aurrean.

– Eta orain, Martin, ezer kontatuko al didak behingoz?

– Filmazioko batekin egin diagu txama. Sortzez nafarra duk, aetza, baina aspaldi ari duk Ameriketan. Agintzen duenetakoa duk produkzioan, eta ibilgailuen trukea egiten lagunduko ziguk, zaharren ordez berriak!

– Horraino entelegatu diat –baina Pedrotxok gehiago jakin nahi zuen–. Ulertzen ez dudana duk zer irabaziko duen morroi amerikano horrek. Urangak berea eramanen dik. Tira, puska bat eraman dik dagoeneko... Baina amerikanoak ere zerbait nahi izanen dik, ezta? Martxa honetan garesti aterako zaidak jeep truke hau.

– Utzi niri amerikanoa. Libertimendu apur bat eskaini zioagu bart arratsean, eta baita gehiago eskainiko ere. Baina horrek ez dik sosik eramanen.

– Seguru al hago? Galdegin al diok?

– Maisonnave hotelean gurekin elkartu zen unetik orain arte edozertan lagunduko digula esan ziguk, eta ez dik ezer eskatu. Nonbait gustura zabilek gurekin, ongi pasatzen dik.

– Hik jakinen duk... –Pedrotxok poltsikotik Jean tabako paketea atera eta zigarroa piztu zuen–. Osabak gaztigatu didanez, gaur izan behar zian eguna, txape-

lokerrak geldi egonen baitira Eulateko tabernan kartetan. Eta gero... non sartuko ditugu ibilgailuak?

– Horixe duk hire lana, hain zuzen ere. Hamar bat orduz ezkutatu behar ditiagu.

– Ezkutatu? Ez al ziren ba eramatekoak eta akabo?

– Gau partean ezkutalekutik hik erabakitako tokira aldatuko ditiagu, eta kito. Baina orain zerbait bururatu behar zaik, begiluzeengandik urrun eduki ditzagun.

– Ez didak astirik eman, lehenago erran behar hidan.

– Oraintxe esan diat eta orain pentsatuko duk.

– Jeepak nonahi ezkuta daitezkek, Arrizuriko gure txabolan edo. Baina kamionarendako zerbait zabalagoa beharko diagu –Pedrotxok kakalardo bat bezala zapaldu zuen zigarroa lurrean–. Aizak, jeep bat niretako eta bestea zuendako; baina kamiona... norendako da trastetzar hori?

– Ez zakiat. Kamioi zahar bat ibiltzen dik Remigiok mendi lanetarako, igual aldatzeko tenorea heldu zaiok.

– Ez zagok gaizki pentsatua. Iturtxipiko estalpean sartuko zioagu kamiona. Remigiok ez dik aurkikuntza salatuko.

– Horra! Badiagu ibilgailuok non gorde.

Horretan ari zirela, Luisek jeepa gelditu zuen bi lehengusuen ondoan, bueltan zen Altsasutik.

– Hustu al duk La Vasconia?

– To! –Luisek gutun-azal horixka bat luzatu zion Martini–, hiru mila ogerleko zaudek hor. Kontabilitatea zehatz eraman, e!

– Ekar itzak giltzak ere...

Martin jeepera igo eta bulegoaren atzealdeko orubean utzi zuen, aparkalekutik ez ikusteko moduan. Uranga gaztea bulegoaren atalasean zuen zain.

– Hemen hire diruak.

Urangak berehala zenbatu zituen.

– Ez hartu apururik, baina ez zagok dena.

– Eta orduan?

– Bihar-etzietan ekarriko diat falta dena.

– Akort. Kamioiak ez dik gasolinarik, har ezak beste bidoi bat biltegitik.

Estalpe ondoko biltegira zihoala aditu zuen Martinek Pedrotxoren txistua. Lehengusuak Luis eta Pete Domezain zituen lau bat metrotara solasean.

– Erasorako prest? –agur egin zion Martinek, ohi zuen bezala.

– Beharko. Orain solastatuko nauk Alvarez sarjentuarekin –dena kontrolpean daukanaren konfiantza ematen zuen amerikanoak.

– Asmatuko al duzu gero tokia aurkitzen? –Martinek eskuarekin seinalatu zuen portu aldea.

– Ez nauk galduko. Esandako tokian paratu ibilgailuok zuek. Ahalik eta lasterren hurbilduko nauk ni.

– Eraman zuk gure jeepa, estalpearen atzealdean topatuko duzu –Martinek giltzak eskaini zizkion amerikanoari–. Hemen duzun hau da gure hirugarren gidaria; lehengusua dut, Pedrotxo.

– Urte askotarako –Petek bostekoa eman zion, eta amerikanoak espero baino tinkoago estutu zion eskua Pedrotxok.

Domezain hiru gazteengandik urrutiratu zenean, Pedrotxok esan zuen:

– Kamion moduko autobus hori neronek gidatuko diat.

– Bai, baina ahaztu baino lehen... bazagok besterik: aurrena haritz bat bota behar diagu!

– Pasatu zidaan gaztigua basozainak, bai.

– Beraz, ekarri duk tresneria.

– Baiki.

– Feriatuko dugun kamioian sartuko diagu egurlotea.

– Pozik jarriko zaiguk Remigio. Kamion berria, zama eta guzti.

Martinek zabaltzen zuen segizioa, Pedrotxoren jeepa gidatzen. Lehengusua zuen atzetik, Portlandeko ibilgailuarekin. Eta azkena Luis, bigarren jeepean, bideari nola edo hala jarraitzen, autobusak botatzen zuen kezko laino batek inguratuta.

Bidean ez zuten eragozpenik izan. Zabalgunera iritsitakoan Pedrotxok maniobra egin zuen kamioi moduko hura ezpondan geldiarazteko, bezperan Pete Domezainek aukeratutako tokian doi-doi. Bitartean Luisek Pedrotxoren jeepeko zahatotik edan zuen ardo zirrista bat. Eta Martinek eraitsi beharreko haritzaren enborra igurtzi zuen, animalia bat balitz bezala.

– Hasi haritza botatzen, guk lehenbiziko jeepa kokatu diagu.

Pedrotxok motozerra atera zuen, aski zelaia zen zuhaitza zegoen eremua. Bi gazteek jeep zaharrena zegokion tokian paratu ondoren, Pedrotxorena hustu zuten: paperak eta trasteak zaku batean sartu eta orubearen bazterrean utzi, erreminta handien aldamenean.

Lagunaren izerdi usaina etorri zitzaion Martini. Katearen hotsa enborra eraitsi nahian, auskalo nondik entzun ahal izanen zen. Pedrotxok baztertzeko oihua egin zien, goitik behera zetorren-eta arbola. Adarrak mozteari ekin zion gero. Eta Martin eta Luis enbor eta adarrak orubearen behealdera garraiatzen ari zirelarik entzun zen Pete Domezainek zekarren jeeparen asotsa, Martinek eta Luisek erabiltzen zuten kuartelekoarena.

– Bizkor egin dugu dena –esan zion Martinek Domezaini.

– Bizkorrago ibili beharko duzue ba!

– Zer dugu orain? –Luis aspertzen hasita zegoen amerikanoaren aginduekin.

– Gendulain kapitaina etorri da. Zuengatik galdetu du. Lanean ari zinetela esan diot. Arratsaldeko bostetarako Olaztiko orubean nahi zaituzte.

– Kakatzarra! –Martin haserretu egin zen–. Pedrotxo, geldi ezak motozerra! Aparkalekuko ibilgailuak ekarri behar ditiagu lehenbailehen.

– Ekarri bai, baina nola eramanen ditugu ezkutalekura? Hiru besterik ez gaituk –Luis urduritzen hasi zen, gogoan baitzuen Martinen plana.

Filmaketa baino lehen egin beharra zegoen trukea; baina horretarako hiru ibilgailuak gehi txorten jeepa mugitu behar bazituzten, laugarren gidari bat behar zuten garaiz itzuliko baziren. Petek abisatua zien eguerditik aurrera ezin izanen ziela lagundu ibilgailuen garraioan.

– Arduratuko nauk ni Gendulain kapitainaz –esan zion Domezainek Martini–, hori ez duk aparkalekutik mugituko. Eta bilatuko diat norbait, zuen jeepa honaino eta ondoren ezkutalekuraino gidatuko duena.

– Fidatzekoa?

– Bai, bazakiat nork egin dezakeen hori.

Martinek ez zion berehala erantzun. Operazioa sobera korapilatzen ari zela besterik ezin zuen pentsatu.

– Baina norbait horrek... horrek ere zeozer nahi izanen du, ezta?

– Ongi ezagutzen diat, libertimendu poxi bat ematea aski izanen duk –Petek sorbalda gainean paratu zion atzaparra Martini.

Martinek irri egin zuen hori entzundakoan, eta Luisi eta Pedrotxori bizi ibiltzeko adierazi zien.

– Hau dena prest utzi beharra dugu, eta azkar!

Lanari lotu zitzaizkion lau gizonezkoak. Tresneria zabalgunearen eskuinaldean pilatu eta haritzaren

adarrez estali zuten. Kamioia eta Pedrotxoren jeepa ezpondaren hasieran zeuden eta azken jeepa bi ibilgailuetatik beheraxeago. Hiru ibilgailuak filmatzeko moduan kokatu eta, laurak jeep bakarrera igota, Olaztirako bidea hartu zuten.

Maite zuen Martinek paraje hartan gidatzea. Ederra zitzaion ordeka zabalaren soiltasuna. Osabekin ibiltzen zenetik ezagutzen zuen, muino, bidezidor, errekabide bakoitzak zuen bere izena bakardade hartan. Errepidera heldu zenean ohartu zen:

– Ostia, ikurrak trukatzea ahaztu zaigu!

– Lasai, baditek nahiko lokatza –arrapostu eman zion Domezainek–. Zaila izanen ditek ezer antzematea. Salvatorek ere lagunduko dizue ibilgailuak atontzen.

– Jakin liteke nor arraio den Salvatore? –Luis ernegatuta zihoan.

– Lagunduko dizuen morroia. Italiarra. Maisua da attrezzo kontuetan.

11

–Ikusten nago gaur ez dugula bazkaldu behar –gosetzen ari zela adierazi zuen Pedrotxok.

– Horrek badu konponbidea –esan zuen Pete Domezainek–. Kamioi-jatetxea aparkalekuan da, hor noiznahi emanen dizuete zeozer.

– Filmaketakoentzat izanen da, ordea. Utziko al digute sartzen? –Luis amerikanoarekin ez fidatzen hasia zen.

– Trankil, ni ez nagoenetan Salvatore izanen duzue lagun.

Orubera iritsi baino ehun bat metro lehenago, Petek jeepa gelditzeko agindu zion Martini. Bi mika aireratu ziren uralitazko teilatu batetik.

– Zoazte estalpearen gibelaldera. Segituan naiz zuekin –Domezain jeepetik jaitsi eta teknikariak zeuden aldera joan zen.

Pedrotxo kopilotuarenean eseri zen. Luisek egokiera probestu zuen eta ahalik eta luzeen etzan zen ibilgailuaren atzealdean.

– Amerikanoak bazakik agintzen! –esan zuen Pedrotxok, lehengusuaren aurpegiera igarri nahian.

Martinek ez zion erantzun, ezta begiratu ere. Estalpera iritsi, motorra itzali eta une batez isilean geratu ziren hiru gazteak. Urrutian kanpai-hotsak entzun zituzten Araba aldetik. Berriz ere Pedrotxo izan zen isiltasuna urratu zuena:

– Angeluserako prest?

– Bukatu dira tentelkeriak –bota zion Martinek–. Hemendik aurrera erne!

– Doike! Guardia zibilak nonahi egon litezkek Urbasan –gaztigatu zion Pedrotxok–. Albertoren tabernan baleude, tira, baina litekeena duk ibilian kausitzea. Ezer bururatu al zaik hori gertatuz gero?

Pedrotxo serio ari zen. Martin begirada galdurik hausnarrean. Luis modako kantu bat txistukatzen.

– Hauxe da plana –astiro mintzatu zen Martin –: Opakuatik joanen gara.

– Zer dela-eta Opakuatik?

– Guardia zibilekin edo beste inorekin topo eginez gero ez dira harrituko; azken egunotan inguru horietan ere filmatzen jardun dute, eta *Cromwell* pelikulakoek ere ez gaituzte salatuko. Gure errodajeko inorekin ez elkartzea da kontua.

Pedrotxok baiezkoa egin zion buruarekin. Luisek txistua jotzen segitu zuen.

– Opakua igo eta Arrizuriko bidea hartuko dugu. Gure txabolaren inguruan utziko ditugu bi jeep ebatsiak, eta gero handik Aranaratxe aldera; Remigioren estalpean kamioia sartu eta buelta berriro.

– Eta bide beretik itzuli?

– Ez dakit, igual Urbasatik hobe. Jeep bakarrean bueltatuko gara, filmazioko lau morroi larraitza zeharkatzen ibiltzea gertagarriagoa da, ez da horren susmagarria. Portua jaitsi eta zabalgunera joanen gara. Salvatore delako italiar horren laguntzaz ibilgailu zaharrei ikurrak egoki ipini, dena txukundu eta berriz aparkalekura.

– Eta nire tresnak? –galdetu zion Pedrotxok–, non sartuko ditugu nire erremintak?

– Jeep honetan. Gau osoa zaukaagu joan-etorria egiteko. Norbaitek eramanen hau herrira.

– Ai, zenbat jira-buelta traste berri bat feriatzeko! –kexara iristen ez zen hasperena egin zuen Pedrotxok–. Gehiegi, gauza guztiak ongi ateratzeko.

Horretan ari zirela, Pete Domezain ikusi zuten estalpearen atzealdean, gizon txaparro bat zuen ondoan. Luisek *She loves you* kantua txistukatzeari utzi zion, baina etzanda jarraitu zuen, kieto. Martin eta Pedrotxo ibilgailutik jaitsi eta bi gizonengana hurbildu

ziren. Delako Salvatoreri mintzatu zitzaion Pete Domezain:

– Questi sono i tuoi nuovi amici. Sei pronto?

– Certo! Sono pronto –Salvatorek eskua luzatu zien; aurrena Martini, ondotik lehengusuari.

– Buongiorno! –esan zion Pedrotxok.

– Hara poliglota! –harrituta geratu zen Martin.

– Oihanaren mintzoa... –txantxa egin zuen Pedrotxok.

– Eta Luis? –galdetu zien Domezainek.

– Autoan, etzanda. Nagiak, badakizu, beti amoroski etzanda.

– Altxarazi, agudo! Ez dago denbora galtzerik. Salvatorek aukeratuko ditu hartu behar dituzuen ibilgailuak. Ni orain Alvarez sarjentuarekin elkartuko naiz, zuengandik aparte mantenduko dut azkonar hori. Azkar egin behar duzue joan-etorria, ilundu baino hiru bat ordu lehenago hasiko gara zabalgunean filmaketa prestatzen, baina aurretik hemen aparkalekuan nahi zaituztet, Gendulain kapitainarekin eta Goñi lotinant-koronelarekin elkartzen naizenerako.

Domezain aparkalekuaren erdigunera abiatu eta lau gizonengandik aldendu zen. Pedrotxo eta Salvatore aurretik zihoazen oinez, ibilgailuen tokira heldu

baino lehen italiarrak txaleko bat hartu zuen karpa batetik.

– Questa il tuo novo uniforme.

– Grazie mille! –Pedrotxok segituan jantzi zuen.

Tankeak aparkatuta zeuden eremura ailegatzean, Martin eta Luis batu zitzaizkien haien jeepean. Pedrotxo eta Salvatore ibilgailura igo ziren. Lau gizonek isilean egin zuten tankeen artekoa. Horiek igaro eta italiarrak gelditzeko agindu zion gidari ari zen Martini, besoak astindu eta inguruko ibilgailuak seinalatzeari ekin zion.

– Quella è la tua macchina –jeep handi bat zen Salvatorek Pedrotxori erakutsi ziona, tamainaz errodajean erre behar zutena baino zertxobait handiagoa.

Luisi jeep txiki bat egokitu zitzaion. Italiarrak kamioitzarra hartu zuen.

Martinek zabaldu zuen segizioa. Jarraian, hurrenez hurren: Pedrotxo, Salvatore eta Luis, azkena beti Luis. Alde ederra goiz partean egin zuten bidaiarekin, ez alferrik Domezainek eta Salvatorek ibilgailu berrienak aukeratu baitzituzten. Bikuña parean utzi zuten errepide nagusia. Ursus traktore bat ari zen lanean Okariz pasatu eta ondoko sailean. Segizioari begira geratu zen une batez traktorekoa.

Ez zuten trafiko handirik aurkitu portua igotzean. Goiko larraitzera iritsi eta ezkerreko bidea hartu zuten. Ordu bata jo hurren Nafarroako langa igaro eta azkar batean bistaratu zuten Arrizuriko txabolen eremua. Txerri pintadunak eta behorren bat izan zituzten ordura arteko lekuko bakarrak.

Martinek bazter batean utzi zuen jeepa eta gainerakoen zain geratu zen. Salvatoreri kamioia pistan bertan uzteko eskatu zion. Luisek Pedrotxoren arrastoa segitu zuen. Txabolaren ondoko kortan sartu zituzten bi jeepak. Eremuak bazuen estalpe moduko bat, baina agerian zen puskarik handiena.

– Non daukak lona hura? –galdetu zion Martinek lehengusuari.

– Barnean zagok.

– Atera!

– Hago pixka batean, aurretik ikurrena egin behar dugu-eta.

– Egia! –Martin ahaztuta zegoen erre beharreko ibilgailuen apaingarriak hartzeaz.

– Kamioiaren ikurrak ere bai? –Pedrotxo Salvatorerengana joan zen.

– Bai, noski.

– L’attrezzo! –kamioiaren aurrealdekoak seinalatu zizkion italiarrari.

– Subito!

Salvatorek giltza zabalgarri bat atera zuen txalekotik. Lau gizonak apaingarriak kentzearen lanari lotu zitzaizkion. Ibilgailuen aurrealdeko metalezko banderak hobetsi zituzten.

– Ahal dela eranskailuren bat ere hartu –Martinek gogoratu zuen lekeda pote bat bazuela jeepean.

Lanak amaiturik, atzealdean sartu zituzten apaingarriak. Lonaz bi jeepak estali eta enbor batzuk paratu zituzten gainean.

– Har ezak hik orain kamioia –agindu zion Pedrotxori.

– Motel, ezpainak bustiko ditiagu sikiera –Pedrotxok zahatoa zuen eskuan–. Non è un chianti ma va bene –italiarrari pasatu zion.

– Non ikasi duk hik hitz-jario hori?

– Oihana duk poligloten paradisua...

– Zer oihan eta zer otxokuarto, gauza bera esan didak lehen.

– Iruñeko Apaiztegia oihanaren gisakoa zuan garai batean.

Gaztetan lehengusuak apaizgai igarotako hiru urteez gogoratu zen Martin. Ordutik geratu zitzaion Pedrotxori liburuekiko grina. Handik ihes egitea lortu zuen behintzat azkenean, eta egia esatera, hari esker libratu zen Martin bera ere Beloso aldeko mintegi erraldoian sartzetik.

Zahatoa eskurik esku ibili zen. Luisek ere txinpartak atera zizkion. Bidaia jarraitzeari ekin zioten. Martin eta Luis aurretik zihoazen Armadako jeepean; atzean Salvatore eta Pedrotxo, azken hau kamioiaren gidari.

– La pendenza è grande –Pedrotxok bidea erakutsi zion.

– Capisco!

Remigioren estalpea basoaren mugan zen, pistatik hurbil baina aldi berean aski ongi ezkutaturik. Pedrotxo kamioiarekin iritsi zenerako zabalik zuten atetzarra. Martinek barnetik egin zizkion seinaleak maniobra egin zezan. Ozta-ozta sartu zen kamioia. Trukea egin-da zegoen. Operazioa bukatuta.

Atea itxi eta jeepera igo ziren laurak.

– Nondik barna itzuliko gara? Limitacionestik edo bestela, nahiago baduk, Bioitzara ateratzeko moduan?

– Ez zakiat –zalantza egin zuen Martinek.

Limitacioneskoa zen biderik azkarrena, baina aldi berean agerikoena. Errepide nagusia hartuz gero denen bistan egonen lirateke. Eta litekeena zen Albertoren tabernan guardia zibilak pausan egotea.

– Tira, goazen Bioitzatik.

12

Lezarugiko txabolen inguruan, goiko larreetan, udaberria eta uda igarotzera joandako artzain bat ari zen barrutiak gobernatzen. Pedrotxok tripazorriei kasu egiteko proposatu zuen:

– Hartuko al diogu gazta bat?

– Eutsi egiok goseari, motel. Zorte pixka batekin Olaztin gaituk ordu erdi barru.

Martin kopilotu zihoan, Luis eta Salvatore atzealdean tar-tar batean ari ziren:

– Roma?

– Non, io sono di Napoli.

– O!, bona pasta!

– Buona pasta?

Ez zuten elkar ulertzeko kontuan aitzinamendu handirik egin iruinsemeak eta Napolikoak, baina biek ala biek ez zekiten isilik. Bitartean, Martin hausnarrean beti, planaren hari muturrak lotu nahian ari zen. Bioitzan errepide nagusia hartu eta portua jaisten hastean, oldozpenetatik atera eta aginduen tenorea heldu zen:

– Ordu biak dira; bostak aldera elkartuko gara Gendulain, Goñi eta enparauekin. Bada, lehendabizi ibilgailuak hornitu behar ditugu. Gutxienez metalezko banderaren bat lotu beharko diogu, eta pegatinaren bat itsatsi. Ondoren sabela berdinduko dugu filmaziokoen autobusean, baina bostak baino lehen nahitaez solastu behar dut Domezainekin.

– Eta Uranga?

– Horrenak ez dik presarik. Filmazioa diagu helburu, eta horretarako Alvarez sarjentua ahalik eta urrutien mantendu behar.

– Ez dadila zelaigunera hurbildu –bota zuen Pedrotxok soraio.

– Bai, baina nola? –Luisek arazoa besterik ez zuen ikusten–. Azkonar hori ez da ibilgailuetatik aise aldenduko.

– Gendulainen edo Goñiren aginduren bat behar luke, aitzakiaren bat topatuko dugu Olaztiko aparkalekuan gera dadin –Martini soluzioak ahitzen ari zitzaizkion–. Domezainek lagunduko digu nola edo hala.

Hornitzea aski fite eginik, hirurak jota ziren aparkalekura heldu zirenerako. Salvatore eta Luis izan ziren jatetxera igotzen aurrenak. Self-service modukoa zen Super Ser markako autobus hura, mahaitxoak

zituen ezker-eskuin, erdian korridore bat, eta handik zetozen makillaje eta attrezzoko emakumezkoak, Maisonnaveko blonda tartean. Luisek begi kliska egin zion eta emakumeak musu bat utzi zuen airean.

– Conosci Margaret?

– La donna? Mio amico.

– Capisco –irri egin zuen italiarrak.

Janari eskaintza ez zen sobera oparoa, baina laurak, bereziki Pedrotxo, edozer irensteko prest ziren. Errazioa hartzera zihoazenean, Salvatorek tupust egin zuen ilaran aurrean zuen Espainiako Armadako ofizial batekin. Hau italiarrarengana itzulikatu zen ordea eta Salvatoreren erretilua jo eta airean atera zen. Pedrotxok berak ere ulertu ez zion juramentua bota zuen italiarrak. Bi gizonak bekoz beko zeudelarik sartu zen Pedrotxo tartean.

– Lasai, bada denendako janaririk.

Pedrotxok erretilua zorutik bildu zuenerako bertan zuen zerbitzarietako bat, erratza eta pala eskuetan. Luisek erretilu huts bat ekarri zion Salvatoreri, eta aferak iraun zuen bitartean napolitarrak ez zion begirik kendu gainetik Armadako ofizialari.

Mahaian jarrita, Salvatore lasaitzen ahalegindu zen Pedrotxo. Honen ondoan, jangartsu zebilen Mar-

tin. Bi mahai harantzago zuen soa, eta halatan hara non gizon ezagun bat ikusi zuen jantokian sartzen: Alvarez sarjentua batu zitzaien txokoan zeuden ofizialei.

– Heldu da azkonarra! –gaztigatu zien Martinek lagunei–. Zuek geldirik hemen.

Alvarez sarjentuak zutitzekoa egin zuen Martin berarengana zetorrela konturatutakoan. Biek ala biek ez zuten bisaia mudatu bi minutuko solasaldian. Berehala zen Martin lagunen mahaian.

– Zer esan dik?

– Bera ere lotuko zaigula Goñirekin eta Gendulainekin biltzen garenean.

– Zeri buruz jardun behar dugu? –Luis larritzen hasita zegoen.

– Ez zakiat. Baina susmoa diat horrek ere pelikulan parte hartu nahi izanen duela. Goñi eta Gendulain zabalgunean egonen dituk. Ez diat dudarik egiten biek pozik onartuko dutela Domezainen gonbita filmazioan egoteko. Baina Alvarez ez zaiguk han komeni, eta haiekin nahiko dik. Ez nauk fio, usna oneko txakurra duk hori.

– Figurante moduan aritzeko eskainiz gero –proposatu zuen Pedrotxok– produkziokoen aginduetara egon beharko dik, aktore plantak egiten harro asko.

– Ez duk ideia txarra. Horixe eskatu behar zioat Domezaini. Ibilgailuetatik urruti eduki behar diagu higuingarri hori.

13

Lasaitu ederra hartu zuen Martinek, bertan behera geratu baitzen, inork zergatik ez zekiela, Goñi lotinant-koronelarekin eta Gendulain kapitainarekin bostetan egitekoa zen bilera.

Goñi eta Gendulain zeramatzan jeepa mendaterantz urrutiratzen ikusi zuten denek.

– Kopon! Badoaz arrain handiak...

Gau itxia zen Alvarez sarjentua Olaztiko orubera itzulia zenean. Pete Domezainen eskariz, azkonarrak bi ordu eman zituen zabalgunearen sarreran geldirik, ez figurante ez deus ere. Udaltzain lanetan ipini zuten hondarrean, sarbidea galarazten filmazioa ikustera Sakanatik zein Estellerritik hurbildutako begiluzeei eta kazetariei. Zegoen tokitik metro bat higitu gabe, sugarrak ikusiko zituen, bai, baina aski urruti, ezin antzemateko moduan erretzen ari zirenak ez zirela ibilgailu baliosak, txatarretarakoak baizik.

Adrenalinak eta cognac petakak mantendu zuten Martin ernai. Luis, aldiz, zurrunga ari zen jeeparen atzealdean. Iruindarrarentzat noiznahi zen ordu egokia lo kuluxka bat egiteko, eta bazuen motiborik. Ilunaba-

rrean, gaueko filmazioa hastear zela, goizean ezkutatutako tresneria jeepean sartu eta Arrizurira eraman zuen Pedrotxo, jukutriaz ebatsitako jeepak ziren tokira. Trepetak han gorde eta Eulate eta Aranaratxe artean utzi zuen Martinen lehengusua. Limitacionesko errepidea ibili zuen Ameskoatik itzultzean. Lasai egin zuen bidea jeeparen fokupean itzalekin jolasean zebiltzala ziruditen zuhaitzen pean. Tarteka, joale hotsak zekarzkion gauak. Maiatzaren lehena izaki, eta osteguna gainera, hutsa zen guardia zibilekin topo egiteko aukera.

Pete Domezain, erretako ibilgailuen eremutik aski hurbil, heldu berria zen Patton jeneralarekin hizketan ari zen. Martinek zuhurtziaz zelatatzen zituen aparte batetik. Petek jakinarazi zionez, George Scott aktoreak egunsentiko eszena errodatu behar zuen. Martinek ez zuen betarik galdu protagonista aldendua zela ikusi zuenean.

– Dena ongi? –Domezainek ez zuen soa altxatu bere libreta gorritik.

– Hala dirudi. Ba al duzu Iruñera nola itzuli? –bere burua eskaini zion Martinek.

– Presaturik al zabiltzate?

– Tira, premiazkoa bada, egonen gara zure zain.

– Nahi duzuen bezala. Scotten eszenak ez dik luze joko. Baina edonork eramanen naik. Ez diat zeregin handirik, libre nagok arratsaldera arte.

– Zer esan nahi duzu, arratsaldean Iruñean filmatuko duzuela?

– Bai, Kuartel Zaharraren kanpoaldean. Inguru hori Londres bilakatu behar diagu.

– Lizarra kalea izanen da Londres?

– Zuen mandoak horretan ere figurante moduan ibiliko ditiagu, gau honetakoan nonbait ongi pasatu ditek baina ez ditik asetu.

– Pelikulan agertuko dira orduan Goñi eta Gendulain?

– Horren ustean bidali ditiagu, errodatutako guztia filmean sartu ohi delakoan. Gizajoak!

Domezainek libreta gorria itxi zuen, dena berak espero bezala gertatu zela adierazi nahian bezala, lan ongi eginaren atsegin seinale. Orduan galdetu zion Martini:

– Zuek zein ordutan etorriko zarete?

– Egiteko gehiago ba al dugu ba arratsaldean? –harritu egin zen Martin.

– Derrigorrez agertu beharko duzue, ez zarete Salvatorerengandik horren erraz libratuko.

Domezainen oharpenak ezustean harrapatu zuen Martin, ahaztuta baitzuen italiarra. Emandako laguntza eskertzeko manera bilatu beharko zuen, gehiegi zekien Salvatorek, eta isiltasunak bere prezioa du.

– Arratsaldeko seietan agertuz gero, ongi. Salvatorek garaiz amaituko dik. Eta nik iluntze aldera.

– Gurekin batuko zara gauean?

– Filmazioan eragozpenik sortzen ez bada, bai.

– Ados. La Campanara eramanen dugu Salvatore, goza dadin Josefaren jakiekin.

– Eta gero? –Petek beste festa klase bat zeukan gogoan.

– Casa Marinara?

– Ez nian besterik espero.

Pete Domezaini agur egin eta jeepa aparkatuta zegoen tokira hurbildu zen Martin. Eskuak poltsikoetan, patxadaz ikuskatu zuen soilgunea bertatik. Txatarra kiskalietako bati eman zion begia. Teknikariek Pedrotxoren jeep zaharraren inguruan ziharduten prestatze lanetan. Egunsentiarekin batera grabatuko zen hurrengo eszena, antza.

Martinek jeepa martxan ipintzeaz batera esnatu zen Luis.

– Akabo?

– Itzultzeko tenorea, adiskidea. Goazemak Iruñera. Jarri aurrean, egunak ez dik zabaldu oraindik eta ez diat bidea hire zurrungen sinfoniarekin egin nahi.

Luis agondu eta kopilotuarenean eseri zen. Alferrikakoa izan zuen cognac petakatik edateko ahalegina, Martinek hustua baitzegoen.

– Ezer aipatu al dik Pedrotxok? Iruñera etortzekoa duk, ezta?

– Bai. Ez zakik noiz, baina paperak egin ezean ezin dik jeep berria erabili.

– Moldatuko duk. Eta hik zer asmo daukak? Fresko egon behar duk gaur arratsalderako.

– Zer dugu ba arratsaldean?

– Londresera goazak! –irri egin zuen Martinek, gau osoan aurreneko aldiz.

– Ez adarrik jo niri. Akituta nagok...

– Kuartel Zaharraren inguruan filmatu behar ditek. Lizarra kaleak Londresen itxura hartuko dik. Eta gero Salvatoreri gorazarre eginen zioagu.

– Zer merezimendu du horrek?

– Libertimendu pixka batekin ordainduko zioagu konplizitatea. Gehiegi zakik, ezin diagu erabat bazter utzi, zer gerta ere.

– Kopon! Garesti ateratzen ari zaizkiguk zorioneko ibilgailuak.

– Eta gainera, Domezain batuko zaiguk Casa Marinara joateko. Hik ere ez duk okasioa galdu nahiko...

– Nondik aterako ditugu hori guztia ordaintzeko sosak? Ni lumatuta nagok.

– Utzi niri.

– Bai, beti bezala.

Buruz zerrendatu zituen Martinek ordura arte egindako gastuak. Urangak jasoa zuen eskatu zizkien 40.000 pezetetatik erdia pasa, lotuta zeukaten Olaztikoa, gainerakoa ahal zuten moduan eta tenorean emanen zioten. Horrez gain mila bat ogerleko xahutuak zituzten La Campanan eta Casa Marinan, eta beste horrenbeste beharko zuten Salvatore eta Pete berriz limurtzeko.

Luisek, begiak itxita ere, purrustaka segitu zuen:

– Orain arte dena gastua duk, motel. Eta aitabitxiak utzitako dirua heldu den astean bertan berdindu beharra diagu La Vasconian.

– Utzi niri.

– Doike. Baina... Remigio horren kamioiarena ez diat garbi ikusten.

– Hi egon hadi trankil, Pedrotxok agudo lotuko ditik horri dagozkionak. Eta ahaztu aitabitxiak utzitako diruak, berantenez astelehenean izanen gaituk sosak bueltatzeko maneran.

– Hik esanen didak nola.

– Ez al dik Pedrotxok deus aipatu? Geure kabuz lortu ezean, hark aurreratuko zizkiguk hiru mila ogerleko horiek.

Hasperen txikia egin zuen Luisek. Bazirudien loak hartuko zuela edozein unetan, baina berriro zalantzak agertu zitzaizkion:

– Egin kontuak, Martin. Ez diagu ia ezer irabaziko.

– Zer gehiago irabazi behar duk? Hik jeep bat daukak orain! Eta zer heukan lehen?

– Bai, jeep bat... Urbasan... lona baten azpian. Hirekin erdi bana! Kopon!

– Jarri ezak burua lanean, alfer hori. Gu biok jeep eder batean Nafarroan barrena...

– Hirekin? Ezta zepelinduta ere! Lehenago aurkituko diat neska pertxenta bat.

Gorritzen sumatu zuten ortzimugako zerrenda morea. Egunsentiko lehenbiziko argiek Beriaingo tontorraren silueta erakutsi zieten. Beherako bidean, bere

aldeko leihoa zabaldu zuen Martinek. Fresko zetorren eguna, usainean zen ezagun.

Sakanara jaitsiak ziren. Gero eta gertuago zituzten etxeen itzalak. Martinek abiadura moteldu eta ukondoa sartu zion saihetsetan lozorroan eroria zen lagunari:

– Kasu horiei!

Aurrean gertatzen ari zenaz ohartarazi zuen Luis. Arbizu pareko bidegurutzean bi soslai antzeman zituzten, bi gazte, itxuraz. Lizarrengo bidegurutzeko etxera iristerako aienatu egin ziren biak; amaitu ez zuten pintada bat egiten ibiliak ziren, nonbait, horma zurian: GORA Dn CA irakurtzen ahal zen.

Arruazura iritsi zirenerako zurrungaka ari zen Luis. Irurtzun igarota, Saratsa aldean, Iruñeko argiak sumatzen ziren, oraindik itzaltzen hasi gabeak. Martin nekea nabaritzen hasia zen, ia 24 lau orduz matrakan eta amarrutan. Saihetsetan sartu zion berriz ere ukondoa Luisi.

– Non oheratuko haiz?

– Utz nazak Argarain, izeba Paularenean. Hor ez naik inortxok molestatuko.

– Baina gasolindegitik ere pasatu beharko diagu, ezta? Noiztik ez gara han izan?

– Astebete edo. Hango irabaziak La Campanan eta Casa Marinan xahutu genitian.

– Gaur ostirala duk...

Gasolindegiko kobrantza ostiraletan egin ohi zuten, iruzurra egunerokoa bazen ere.

– Bai, baina zer nahi duk, orain kobratzea? Atzoko zerbitzua egin gabe zagok.

– Arrazoi daukak. Eguerdirako utziko diagu.

– Heuk egin beharko duk. Nik ezin diat gehiago, porru eginda nagok. Aski diat arratsaldean Londresko filmaziora agertzearekin.

– Orduan, lotara joan aurretik, zerbait janen diagu orain.

– Akort, egarri nauk!

Gola hotelaren parean nekeak gain hartu behar ziola nabaritu zuen Martinek. Jeepetik jalgi ziren, eta ilunpean hildako errinozero bat bezalakoa zela iruditu zitzaion. Gola hotelean kamioilariak ziren nagusi. Barraren ezkerraldean txapeloker batzuk ere baziren.

– Bi arrautza eta txistorra, faborez. Edateko, ardo bana.

Martinen eta Luisen basoak betetzen ari zela, zerbitzariak agur egin zien guardia zibilei. Hiru ziren, bi

gazte eta zahartxoago bat, gasolindegiaren eremura abiatu zirenak.

– Ezagunik? –Luisek ura bezala edan zuen ardoa.

– Zaharra. Hik ere baduk horren aditzea.

– Militarrak bai, baina txapelokerrak ez dituk sekula gure familian laketu.

– Gogoratu... Aste Santua... Urbasa... Argiturriko langa...

– Ostia, hori al da kabroia?

– Horixe bera.

Fonseca zen guardia zibila, Eulaten sei bat urte eman ondotik bertako batekin ezkondu eta, muga aldera, Luzaideko kuartelera lekuz aldatu zutena. Baina ez zuen Ameskoarekiko lotura eten, Aste Santuko enkontrua lekuko, Fonseca harexek eraman zuen-eta Martinek eta Pedrotxok perretxikoz betetako otarretako bat.

– Ez al dabil mugatik urruti?

– Kabroi hori aski libre ibili izan duk beti. Noiznahi egoten duk Ameskoan. Auskalo zertan dabilen orain.

– Negozioak...

– Pedrotxok jakinen dik agian. Galdetu egin behar. Tira, mugi gaitezen, Argarain utziko haut, bestela hementxe hartuko hau loak.

– Ezetz asmatu norekin amets egin nahi nukeen?

14

Generalisimo Franco etorbidearen akaberan utzi zuen Luis, bi minutu eskaseko tartea zuen handik izeba Paularen txaleteraino.

Martinek Pete Domezaini ulertu zionez, filmazio lanak ia akiturik ziren Burunda aldean. Kuartel hustu berrien inguruan filmatu beharreko eszena horrez gain, Ultzaman zerbait grabatzeko asmoa zuten, eta astebeteren buruan *Patton*-en produkzioak Erresuma Zaharra utziko zuen, bestelako pausalekuak helburu.

Navas de Tolosa kalean aparkatu zuen jeepa, Hotel Tres Reyes parean. Leher eginda sentitzen zen, fresko behar zuen arratsalderako, baina bazuen zereginik aldez aurretik, sikiera hiru bat orduko loaldia kendu nahi zion egunari. Gasolindegikoak eguerdian egin zitzakeen, eta badaezpada ere Pedrotxorekin elkartu nahi zuen.

Bederatziak laurden gutxitan sartu zen izeba Ireneren etxean. Zuzenean joan zen balkoi ondoko logelara. Oinutsik baina jantzita etzan zen ohantze gainean. Lo zerraldo zegoen San Nikolas elizako kanpaiek bederatziak jo zutenean.

Ametsetan Pedrotxoren ahotsa aditzea iruditu zitzaion. Noiz? Noiz? errepikatzen zuen etengabe lehengusuak. Gero izeba Irenerena ezagutu uste zuen, eta tarte bat igaro zuen begiak zabalik, entzundakoa ez zela ametsa konturatu arte. Sukaldetik zetozen ahotsak, izebak eta Pedrotxok solasean ziharduten, sesiotik hurbil.

– Noiz kontatuko diozu? Noizbait egin beharko duzu!

– Hi ez hadi sartu horretan!

– Baina jakin behar luke. Ez harritu dagoeneko zerbait sumatu badu.

– Hi hago isilik, ez duk hire afera.

Martinek eztarria garbitu zuen pasillora irtetean, horrek isiltasuna ekarri zuen sukaldera.

– Egun on, bizkor etorri haiz –esan zion Martinek Pedrotxori, mahai gainetik piper-opil bat hartuta.

– Eulateko tratanteak ekarri naik. Batere lorik egin al duk?

Kikara bat bete zion kafe lapikotik izeba Irenek, zailtasunez tolesten zuen eskuin zangoa.

– Zer duzu, izeba? Herren zabiltza.

– Ez duk ezer. Estherri laguntzera joan nauk txaletera, altzariak mugitu behar izan ditiagu.

– Mudantza egitekotan al da ba madrildarra?

– Apetak! Sinfonier zaharra logela bateko bi oheen erdian nahi dik; pisua zuan oso eta, paretan kontra jartzean, gaizki neurtu eta aldakan jo naik. Pasatuko zaidak.

– Zer asmo du ba madrildar horrek?

– Ez zakiat ba. Sinfonierra bi oheen artean nahi zian, jakin ezak zertarako. Estherri neketsua egin zaiok oihal eta mihise guztiak atera, altzaria mugitu eta gero berriz dena txukun-txukun betetzea, eta ha-laxe...

– Berriz joatekoa al zara Estherrengana? –jakin gosez ari zen Martin.

– Bai. Maleta bat erosi eta eramatekotan geratu nauk.

– Maleta bat? Madrilen ez al dago ba maletarik? –jakin-mina piztu zitzaion Pedrotxori ere.

– Sinfonierrean libratu dugun apalean sartzeko modukoa erosteko agindu dio nagusiak. Han aritu gara Esther eta biok neurriak hartzen. Segituan joa-nen naiz, erosi eta Argaraira, Estherrek gaur bertan behar omen du-eta ditxosozko maleta hori.

– Izeba, zu ez zaude inora joateko moduan herren horrekin.

– Baina Estherrek maleta behar dik, arratsaldeko Baztanesa autobusean joatekoa duk, asteburua Almandozen familiarekin igarotzera. Madrildarrak jai eman ziok aspaldiko partez. Nonbait ez dik nahi inor etxean. Itxura denez garai batean Dibisio Azulean ibilitako lagun batzuekin dik juntadizoa txaletean.

– Geu arduratuko gara maletaz, izeba.

– Ongi da. Estherri gaztigatuko diot telefonoz. Zain izanen duzue. Ba al duzue dirurik?

– Maleta bat erosteko lain bai –esan zuen Pedrotxok–, azken aldian asko garestitu ez badira bederen.

Martin bizarra kentzen ari zen bitartean, aginduak eman zizkion ispiluan ageri zitzaion Pedrotxori.

– Nik zereginak ditiat. Hire kontu maleta. San Lorenzon edo Kale Nagusian erosten baduk hobe.

– Hire aginduetara –Pedrotxok agur militarra egin zion. Luis imitatzen ari zela iruditu zitzaion.

– Baina... erosi bi!

– Bakarrarekin aski dik.

– Kasu egidak. Izan daitezela bi. Eta igual-igualak biak.

Martin arropaz aldatzen hasi zen gelan, soldaduarenak erantzi eta kalerakoak jantzi zituen.

Mesanotxeko kaieretik paper bat askatu eta izebak emandako neurriak apuntatu zituen Pedrotxok: 45 x 30 x 15.

– Ordu bietarako San Lorenzoko Aterkian elkartuko gaituk –esan zion Martinek–. Ez, Aterkian ez, hobe Basotxoan; han utziko diat jeepa, eta ni garaiz iritsi ez banaiz, maletak atzealdean sartu eta zain gera hadi.

– Hi baino lehen iritsiko nauk.

– Beste kontu bat... Zer dakik kamioiari buruz? Mintzatu al haiz Remigiorekin?

– Baiki. Atzo tabernara joan aurretik bere etxera joan ninduan. Kamiona ikusia zian ordurako. Badakik nolakoa den, ez huen batere harritu.

– Eta?

– Lotuta zagok.

– Zenbateraino?

– Gustatu zaiok. Akordio batera iritsiko gaituk. Lehenbizi atondu eta mendian probatu nahi dik kamiona.

– Baina zenbat diru edo, hitz egin al duzue?

– Ez. Erran dezala berak. Remigio ez duk sekula zekenkeriaren lagun izan.

Martin ez zen arrapostuarekin kontent geratu, baina ez ziola garbian ezer aterako ohartu zen. Korapiloa egin zien zapata lokarriei.

– Eta gure bi jeep berriak atontzeko zerbait pentsatu al duk?

– Aurrena pintatu, ondoren zikindu. Orain ia distiratsu zaudek. Txapan kolperen bat ez litzaiekek gaizki etorriko. Bihar ez bada, igandean bertan itzuliren bat emanen zieat mendian.

– Eta paperak? Gestoriara joan beharko da.

– Matrikulak ongi gordeta ditiat. Gestoriakoa astelehenean lotzeko asmoa diat. Ez nikek aste oso bat pasatu nahi ibilgailurik gabe.

– Norekin lotuko duk? Hartzarekin? Onartuko al du iruzurra?

– Dirua usaintzen badu ez dik aitzakiarik jarriko. Judua beti judu. Hori bai, ez zaiguk debalde aterako.

Martinek hasperen egin zuen Pedrotxoren sententziarekin, gastuen zerrenda etortzen baitzitzaion gogora etengabean, murriztu ordez luzatu egiten zena.

Kalean, Pedrotxok San Anton aldera jo zuen. Martinek espaloitik segitu eta Kale Berritik zetorren andre bati erreparatu zion. Ezaguna egin zitzaion ibilera.

Takoi puntadunak, tubo-gona urrekara, jaka estu bat, ile gorriak motots batean bildurik.

– Hara! Egun on –agurtu zuen Giselek–. Amaitu al dituzue Urbasa aldeko lanak?

– Goiztiar habil –Martinek patriketan zituen eskuak.

– Errebisioa zaukaat. Badakik, Bermejo doktorea duk onartzen gaituen bakarretakoa.

– Kafe bat hartzeko betarik?

– Azkar bat, bai.

Tres Reyes hoteleko kafetegian sartu ziren. Martinek atea ireki eta bidea eman zion Giseleri. Honek barreneko mahaietako bat hobetsi zuen. Tea eskatu zuen Martinek Giselerentzat, eta *pilotari* bat beretzat.

– Gauean bisita izan genian berriz ere –esan zion Giselek–. Goñi lotinant-koronela. Ordu txikietan.

– Bera bakarrik?

– Ez, hiru zituan.

Urbasatik asperturik alde eginen zuten Goñik eta gainerakoek. Putetxe batera joatea ere ez zen ezohikoa, baina zergatik Casa Marinarako joera hori? Bigarren aldia zuten aste berean.

– Eta gaur ere itzuliko diren errezeloa diat. Goñik txanda gordetzeko eskatu zidaan. Lotsagabe zikina!

– Zertan ote dabiltza?

Kamareroa tea eta *pilotaria* prestatzen ari zen bitartean, Martinek kafetegiko ezkerreko zutabean finkaturik zeuzkan begiak.

– Pentsakor habil azken egunotan...

– Barka iezadan. Nire aferak... Ez dinat ulertzen militarren joera, Casa Marinara hain maiz...

– Ezta nik ere. Txapelokerren eremua duk gurea. Eta sotanadunena!

– Hiruretatik zein tokatu zain?

– Goñi, berritsu hori.

– Zer kontatu din ba?

– Ezer berezirik ez, kalaka lizuna eta harrokeriak. Baina lotan geratu denean gauza bitxi bat atera zaiok: “Berdeei zentimorik ez”. Eta marmar batean segitu dik.

Une batez isilik geratu ziren biak, nor bere kabutan. Neskak hurrupada luzea eman zion teari. Martinek ezin zuen asmatu zein kolorez margotuta zituen azkazalak. Giselek leihotik kanpora begiratu zuen, emakumezko dotore baten poltsari erreparatzeko. Martini xinaurriak iruditu zitzaizkion Giseleren paparreko orezta txikiak.

– Gaur bisita eginen dizuegu guk ere –esan zion Martinek–. Lau izanen gaitun. Libre behar dinagu egongela txikia.

– Egongela txikia? Zertarako?

– Militarrak agertu aurretik bertan egon behar dinagu.

– Inoiz azalduko al didak buruan jira-bueltaka darabilana?

– Amerikanoekin joanen naun.

– Hiru amerikar?

– Domezain eta Salvatore delako bat, Luis eta biok. Lau.

– Kuadrilla.

– Presta ezan guztia Marinarekin.

Martin mahaitik altxatu eta barrara hurreratu zen ordaintzeko asmoz. Bizkarra emanda zegoen zerbitzaria, kafetera ondoko zutabearen parean. Harriduraz egon zen begira barneko igogailuari. Zerbitzariak atetxoa ireki eta frijituz beteriko plater bat atera zuen barneko erretilutik. Gero, plater multzo bat sartuta igogailuan, goiko erretilua beherantz joan zen. Erdiko apalategian kroketaz mukuru ageri zen plater bat. Hura ere hartu eta barraren gainean utzi zituen bi pla-

terak. Ondoren, zutabera itzuli eta pertsianen moduko uhal bati eragin zion.

– Hau bai asmakizuna! –zerbitzariari ari zitzaion Martin. Lau ogerleko barraren gainean.

– Hauxe da ba barratik mugitu gabe dena eskura izatea – txanponak batu eta platertxo batean itzuli zizkion bueltak.

Giselek kafetegiko atea zeharkatu zuen. Gibeletik joan zitzaion Martin, orkatilei behatu zien aurrena, takoi altuen gainean lerden. Tubo-gona urrekarak estutzen zuen ipurdiari gero.

– Beno, Martin. Alde egin behar diat, zain zaukaat Bermejo doktorea.

– Gauera arte. Ez ahantzi egongela txikiarena.

– Lasai, utzi niri.

– Oso polit hago gaur. Ongi ematen din gona horrek.

– Eskerrik asko. Baina hik... igo ezak praketako kremailera.

Giselek alkandoraren lepoak txukundu zizkion.

15

Gasolindegirako asmoz, Gipuzkoa etorbiderantz abiatu zen Martin. Sosak jasotzeko tenorea zen.

Berdeak, kakiak, azulak... maleta, sinfonierra... dirua honi, dirua hari; ez ziren huskeria garunean zerabiltzan borborra eta datuen burrunba. Entzun izandakoak aztertzeari ekin zion Martinek, gidatzen zuen bitartean. Pete Domezainek esan zuen lehendabizi: “Horiek sosa besterik ez dute buruan, diru beltza, eta diru horiek non kokatu ari dira”. Eta orain bazekien puzzlearen zatiak nola lotzen hasi: Goñi lotinant-koronelaren taldeak negozioa egiten zuen filmazioaren kontura, eta hor sartzen zen begi urdina ere, apirilaren 30eko gauean Goñik Casa Marinara eraman zuen garaztarra, Esmeraldarekin jostetan ibili zena. Litekeena zen, beraz, sosa mugaz bestaldera igaro nahi izatea, gero auskalo non gordetzeko.

Susmoa hor zerabilen. Martin seguru zegoen Estherren nagusi madrildarrak ere bazuela zerikusirik jukutria hartan; Dibisio Azulean ibilitakoa zen Goñirekin eta Luisen aitarekin, nahiz eta gero ez zuen karrera militarrik egin; negozioak zituen Madrilen eta han bizi

zen, baina Iruñera eta etortzen zen aldika, Argaraiko txaletera, eta izeba Irenek aipatu zionez, hementxe izanen zen, noiz eta asteburuan. Lagun batzuekin juntadizoa eta inor ez nahi etxean. Madrildarra ere diru beltzaren kontuan nahastuta zebilen, ez zen dudarik.

Izeba Irenek esanda zekien Martinek, Jaime Zabaleta deitzen zela, ezkongabea zela eta diruz ustelduta zegoela. Madrilen kontrata publikoak zeramatzan, antza, eta Estherrek behin eta berriro esatera, zeken hutsa zen. Martin ziur zen filmazioko diruen aferan nahasita zegoela. Are gehiago, lepoa eginen luke txaletean bilduko zituztela sosak larunbat gauean, maiatzaren 3an. Hainbeste diru non gordetzeko asmoa zuten ere, esanen luke. Bestela, zertarako paratu sinfonier hori bi oheen artean? Elkarrekin ere fio ez zirelako, diruak erdian lo egin dezan! Bestela, zertarako agindu Estherri sinfonierraren erdikoa hutsik uzteko? Maletarena ere hor zegoen, apalaren neurri berekoa izan behar hori...

Maleta hartan bukatuko bazuen diru beltzak, Martin puzzlea osatzen ari zen kaskoan, ez zen txori kaka izanen! Baina hor hasten ziren kezkak: nola antolatu operazioa, nola feriatu aurrena eta nola atxiki gero laster diruz mukuru egonen zen maleta hura. Nahita-

ez ikusi beharra zeukan sinfonier hura txaletean, inoren susmorik piztu gabe, Esther ohartu gabe, badaezpada ere.

Eta horretan zebilela ailegatu zen Martinek gidatzen zuen jeepa Gipuzkoa etorbideko gasolindegira. Atzealdean tailer txiki bat zeukan, han egon ohi zen eguerdietan jabea, Moises Estonba.

– Zer gisa?

– Jainkoak egun on! Hor daukak hirea –Estonbak bulegoko mahai gaina seinalatu zion.

Martinek gutun-azala hartu eta bi eskuekin estutu zuen, multzoa neurtzearren.

– Ez al haiz fio? Dena zagok. Barnean aurkituko duk erreziboa ere, saldutako litroen kopuruarekin. Mugimendu handiko astea, ezta?

– Zeu zara batere mugitu gabe dena eskura datorkizuna.

Hitz kontua baino ez zen, baina giroa zatartzen hasi zen.

– Neu nauk behi mekanikoari errapeetatik gasolina ateratzen diodana eta marmitak zuen esku jartzen dituena. Baimenik gabeko komertziala haizen aldetik, hobe huke harropuzkeriarik gabe alde egitea.

– Hurrengo astean moteldu eginen da hau guztia. Molde zaharrera itzultzeko tenorea helduko zaigu.

– Ze molde zahar? Betiko moldea, esan nahiko duk. Tratua aldatu egin nahi duk, ala?

– Ez da hori. Diru gogorren garaia pasatua da. Eta badakizu uda honetan lizentziatuko gaituztela...

– Zuek biok ez zarete galduko!

– Zeu ere ez, hementxe egonen zara beti zure behi mekanikoarekin.

– Eman ezak bakea, eta hoa heldu haizen bidetik.

Une horretan bisera zikin bat zeraman gizon baten burua agertu zen bulegoko atetik. Gasolina tankea betetzera etorria zen kamioizalea zen. Giltza batzuk utzi mahai gainean eta ezer esan gabe joan zen.

– Adio ba.

– Itxaron... Goñi koronela etorri duk goiz partean.

– Goñi bera?

– Nik ez diat ikusi, artatu duenak kontatuta zakiat. Bidoi pare bat eraman ditik jeepean. Zerbitzu hori ere erreziboan sartu diat, hire alde, kexa besterik ez daukak-eta.

– Bidoi pare bat orduan?

– Bai. Urbasan gasolina eskas dutela, halaxe jakinarazi ziok nire mutilari.

Zurtuta zegoen Martin. Zer deabrutan ari ote ziren Goñi eta bere lapurrak? Urbasako filmazioa akitua zen, gehienez ere Ultzaman grabatu beharreko eszenetara hurbil zitezkeen, baina han ez zen jende askorik behar. Zertarako gasolina bidoietan? Kasu bihurrienean, muga igaro behar bazuten ere. Nolanahi, ez zen horren urruti, eta mugaldean ez zen gasolindegirik falta.

Jeepean sartu eta eskua altxatuta agurtu zen Martin. Estonba maniobrari beha geratu zen. Erlojuari eman zion begia, ia ordu biak ziren. Honezkero Pedrotxo Basotxoan edukiko zuen zain.

Gasolina... Goñiren taldeak gasolina behar zuen garraiorako, baina nondik nora ibiltzeko? Atari Berria igarotzean entzun zituen San Lorenzoko kanpaiak. Lehengusua ikusi zuen zebrabidean, eskuetan maleta bana zeramala. Ez zion bozinarik jo, leihatilatik keinua egin zion aurrera jarrai zezan. Martinek, trafikoa oztopatuz, Basotxo kalearen hasieran gelditu zuen jeepa; lehengusua bizkor ibili zen, atzealdeko atea ireki eta maletak sartu zituen.

– Egina?

– Bai, egina. Aukeran astunegiak dituk.

– Zergatik?

– Bi maleta nahi hituen, ezta? Ba igual-igualak eta nahi bezalako tamainakoak, horiek dituk bakarrak.

Pedrotxok atzealdera begiratu zuen, ea maletak ongi zihoazen. Martinek ez zion kontrastik egin. Navas de Tolosara heldu zirenean, ezkerretara jo zuen.

– Nora naramak?

– Argaraira.

– Bazkaldu gabe gaudek!

– Luis iratzarri behar diagu. Eta ondoren Estherrengana goazak, haren maleta uztera.

– Mokadu ziztrin bat ere ez?

Pedrotxok ez zuen Martinen arraposturik izan. Berde harrapatu zuten Generalisimo Franco etorbideko lehen semaforoa, bigarrena ez ordea. Pedrotxo ez zebilen gozo, bazen han protesta. Gosea. Mola plazara iristean zakar eragin zion bolanteari Martinek, Orhy hotela igaro, eskuinetara jo, Amaia kalean sartu eta handik hogei metrora aparkatu zuen kotxea, ezkerraldean.

– Tira, azkar –Martinek jeepetik kanpo zeukan oin bat.

La Navarra ostatuan sartu ziren. Izkina batean bi gizon heldu ari ziren, gomazko botak jantzita, amuarrain bana neurtzen barra gainean. “Enea bai luzea”

bota zuen bi gizonetarik garaienak. Poltsikotik labana bat atera eta marka egin zuen eztainuzko estalkian, zerbitzaria erne zuela. Gizon txikiak bere amuarraina neurtu zuen ondoren: “To, hau bai ederra”. Zerbitzariak irri egiten zuen. Martin hiru lagunei begira ari zen. Txikiak ere bere txuria atera zuen, ostatuko barrak bi hozka berri zituen. Zerbitzaria arrantzan ibilitakoengandik aldendu eta Martin eta Pedrotxorengana hurbildu zen.

– Ba al duzue ajoarrierorik?

– Baiki.

– Ajoarriero erdia eta patata tortilla pintxo bana.

– Segituan.

Sukalderantz abiatu eta, arrantzaleen paretik pasatzean, ostatu goialdera igotzeko keinua egin zien. Amuarrainak barra gainean utzita, eskaileran gora aienatu ziren, txikiari erronka egiten garaia: “Errebantxa Euskalen!”.

Mutiko gazte bat sartu zen, marra urdinak zituen txabusina batekin. Zuzenean jo zuen sukaldera. Une hartantxe emakume sendo bat agertu zitzaion atalasean, tortilla pintxoak eta ajoarrieroa zekartzala. Mutikoari matrailean musu eman eta amuarrainak jaso zituen barratik.

Pedrotxok patata tortilla irensten ziharduela, Martinek hirugarrenez ikuskatu zuen ostatua: goian ziren arrantzan aritutakoak, mutikoak pinta bat ardo eta oliba platera zeramatzan haiendako erretiluan, eskaileran gora. Arrantzale txikiak ukabilkada eman zuen mahai gainean: “Min hartuta badago ere, ni Raulen alde!”. Kolpeak ezustean harrapatu zuen mutikoa, baina ezohiko abileziaz orekan mantendu zuen erretilua. Martinek eta Pedrotxok ajoarrieroan sartu zituzten sardexkak.

– Nekez topatuko duk Hiri Buruzagi osoan patata tortilla eta ajoarriero hauen parekorik –esan zuen Martinek–. Bizkor, Luis altxarazi behar diagu. Paga ezak hik, nik halako bi jan duk-eta.

– Beti aitzina –Pedrotxo ez zen arranguratu.

Generalisimo etorbidea hartu zuten atzera ere.

– Lau urte dituk espetxe horretatik alde egin nuela –bota zuen Pedrotxok inorendako.

Anitz gauza eskertu behar zizkion Martinek Pedrotxori. Haietarik bat Seminariokoa, Pedrotxo izan baitzen Iruñeko apaiztegitik ospa egiten lehenbizikoetakoa, eta apaiz-bideak uzteak Martinen ukoa erraztu zuen gero. Pedrotxo ez zen, baina, esku hutsik joan Seminariotik. Bizimodua aise ateratzen zuen mendian,

bai, baina irakurzaletasunari eutsiko zion betiko, ikasiak zituen latina eta italiera poxi bat. Eta solfeo oinarrizkoa.

Apaiztegira ailegatu baino lehen ezkerretara jo zuten. Victor Eusak diseinatutako eraikinaren hesiak, ikastetxe baten hormak eta txalet zerrenda batek eratzen zuten kalea. Erdi parean zirela, barneko bideari segitu zioten. Hantxe zegoen Luisen izebaren txaleta. Pedrotxori jeepean gelditzeko agindu zion Martinek.

Zabalik kausitu zuen Argaraiko sarrerako langa. Lorategi txiki bat zeukan, eta honek Estherrek gobernatzen zuen txaletera ematen zuen. Hain zuzen ere, hesi baxu batek bereizten zituen Jaime Zabaleta madrildarraren etxearen eta izeba Paularenaren lorategiak.

Martinek luzaroan jo zuen txirrina.

– Egun on, Martin –permanentea egina zuen emakumezkoak ireki zuen atea–. Lo seko dago zure laguna. Pasa zaitez. Segituan abisatuko diot.

Izeba Paulak foulard bat hartu zuen atearen ondoko pertxerotik.

– Lasai eseri, mutikoa, akiturik izanen zara. Luisek kontatu dit gau eta egun lanean diharduzuela filma-

zioan. Pozik egonen dira zuen agintariak. Gendulain kapitaina ikusten badut, eskatuko diot nire iloba hobeki zain dezan. Horrek kasu eginen dit, kasu eginen didanez.

– Bai, anderea, ez digu Unibertsitatera joateko betarik ere uzten. Erabat emanak gaituzu filmazioaren zereginetara.

– Ongi segi, Martin. Eta goraintziak izeba Ireneri.

– Zure partetik, anderea.

Pijama urdin argi bat jantzita jaitsi zen Luis, balantzaka. Iluntzera arte despeditu zen emakumea, kartetan jokatzera zihoan. Sukaldean zen Martin, harraskaren aldameneko leihotik begira.

– Zer arraio gertatzen da? –makarrak kendu zituen Luisek–. Arazoak?

– Ez. Gauza inportanteak zauzkaat kontatzeko.

– Kopon! Hik beti baduk zerbait.

– Begira ezak hor kanpora...

Luisek ez zuen ezer berezirik ikusten leihoaren bestaldean. Denak bere tokian zirudien.

– Operazio berri bat diagu –esan zion Martinek–. Madrildarraren txaletean sartuko gaituk.

– Zer ostia galdu zaiguk ba hor?

16

Diruz gizendutako maleta bat feriatuko zutela azaldu zion Martinek. Perlesiaturik entzun zituen Luisek aldameneko txaletean gertatuko zirenak: Dibisio Azulekoen juntadizoa, diru beltzaren kontua, azken amarru bat gehiago, dena ebatsi eta...

– Arazo bat diagu, ordea. Nola sartu txaletean. Sinfonier hori ikuskatu beharra zaukaat. Baina ez hori bakarrik, Zabaleta horren etxean noiznahi sartzeko modua topatu behar diagu.

– Hi burutik hago.

– Hor barrura sartzeko moduren bat egonen duk, ezta?

– Bai, bazagok, baina ez zakiat ez ote den arriskutsuegia. Estherrek giltza-joko bat gorde ohi dik etxetik kanpo.

– Non?

Luisek goiko eskailburuko leihora eraman zuen laguna, Zabaletaren txaleteko atea erakutsi zion handik.

– Ikusten duk ezkerrean den loreontzi handi hori?

– Horretan al daude?

– Ez, horretan ez, ondoko txikian baizik. Baina espero dezagun Zabaletak ez ahaztea bereak Madrilen eta loreontzikoak ez hartzea.

Giltza-jokoak etxean sartzea erraztuko zuen, baina noiznahi sartu ahal izateak konponbidea behar zuen. Giltzak loreontzi txikian baleude, sinfonierrari begiratu bat eman eta ordu txikietan molda zitekeen amarrua, baina ondoren ere txaleterako sarbide zuzena beharko zuten derrigorrez, maleta handik ateratzeko. Nola sartu eta nola irten giltzarik gabe? Urduritzen hasia zen Martin.

– Luis, hi gera hadi hemen. Pedrotxo eta biok joanen gaituk Estherrengana.

Lehengusua jeepean zeukan zain, elektrika kableetan pausatu ziren bi txolarreri beha, edo agian hegaztiak ziren Pedrotxori beha zeudenak. Maleta erosi berriarena agudo eginen zuten, Esther berantetsi gabe, baina batez ere hark bidea lehenbailehen libre utz zezan. Autobusa hartu beharra zuen familiarengana joateko.

– Maleta emanen zioagu. Gero hik geltokira eramanen duk anderea. Nik zereginak ditiat hemen –esan zion Pedrotxori–. Geltokitik etor hadi zuzenean; ahal

baduk hementxe berean aparkatu eta itxaron Luisi eta bioi.

– Taxista ona nauk.

Ateko txirrina jo zutenean loreontzien aldera begiratu zuen Martinek. Berehala zabaldu zen atea, kaleko jantziz zegoen Esther.

– Egun on, bikote. Espero baino lehen heldu zarete. Pasa, pasa. Ezer hartu nahi al duzue? Eta izeba, zer gisa? A ze kolpea hartu duen! Hori al da maleta?

Ez zuen arnasa hartzeko betarik hartzen solasean ari zenean, ez zekien isilik. Bi gazteek sukalderaino jarraitu zioten.

– Salda prest daukat, nagusiak gustuko du-eta; hozkailuan kausituko duzue. Egia errateko presatuta nabil, arratseko lauretarako geltokian behar dut. Almandozen pasatuko dut asteburua. Nagusiak ez du hemen inor nahi.

– Lasai, Esther, bazkalduta heldu gara. Eta ez arduratu autobusarengatik, Pedrotxok eramanen zaitu geltokira.

– Bai? Ez dago zuek bezalakorik! Ekar ezazu maleta hori, nagusiak logelan uzteko agindu dit.

Estherrek eskutik kendu zion maleta Martini. Logelaraino lagundu zion honek, eta beha egon zitzaion.

Oheen artean paretaren kontra zegoen sinfonierraren bigarren tiraderan sartu zuen maleta Estherrek. Gero gelako leihoa itxi eta atearen atalasean zen Martinengana hurreratu zen:

– Zatoz sukaldera, hartuko duzue kopatxo bat behinik behin.

– Ez arduratu guregatik. Orain geltokira eramanen zaitu Pedrotxok eta han kafe bat hartuko duzue aldameneko tabernan. Ez al da hala? –Martinek begi kliska bat egin zion lehengusuari.

– Ongi da, leihoak itxiko ditut. Nagusiak arrunt ongi egurastua nahi izaten du etxea, baina joan aurretik itxi beharko ditut –Estherrek eskaileretan gora ere hizketan segitzen zuen–: Zaindu izeba Irene, ukendu bat emanen dizut, honezkero ubelduraren bat izanen du...

Pedrotxok Esther zelatatu zuen bitartean, etxeko nagusiaren logelan sartu zen Martin, sinfonierra helburu. Maleta zegoen tiraderari heldu eta erabat atera zuen altzaritik. Erraz mugi zitekeen beheko ohola. “Primeran” murduskatu zuen. Berriro bere tokian sartu eta altzariaren atzealdea aztertu zuen, paretatik doi bat bereiztea otu zitzaion, baina altzaria mugitzean sor zezakeen asotsaren beldur zen. Eta horretan zihar-

duela, “Poliki jaitsi, emakumea” entzun zuen, Pedrotxoren abisua. Martin logelatik itzuli zenean, Estherren takoi baxuen hotsa entzun zuen korridorean.

Andereak zetazko zapi batez apaindu zuen bere burua halleko ispiluan.

– Dena prest, joan gaitezke.

Arrazoi zuen Luisek, Esther etxetik irtendakoan loreontzi txikiaren aurrean makurtu zen giltzak uzteko.

– Ongi pasa asteburua Almandozen –agur egin zion Martinek.

– Zu ez al zatoz ba gurekin?

– Ez, ni ez, kapitainak agindutako zereginetara noa.

– Zuek gazteak mandatuekin beti okupatuta. Adio, Martin, eskerrik asko. Ez ahaztu izeba Ireneri ukendua eramatea.

Martin ezkerreko espaloitik zihoan oinez jeepak aurreratu zuenean. Autoa Baztan kalearen akaberara iritsi zela ziurtaturik, atzera buelta egin zuen. Zabalik aurkitu zuen Luisen izebaren etxeko atea. Laguna sukaldean zen zezina ogitarteko bati hozka.

– Konturatu al haiz? Loreontzi txikian ezkutatu ditik giltzak.

– Ohiko tokian utzi ditik. Hori banekian nik.

– Goazemak oraintxe bertan!

– Baina zer presa daukak? –Luisek klikol bakarrean hustu zuen baso ardoa.

– Sinfonierra aztertu behar diagu. Hire izebak izanen dik jostun metro bat...

– Zertarako behar dugu metroa?

– Goitik behera eta ezker-eskuin neurtu beharra zaukaat altzari zahar hori. Goikoak behekoa ordezkatuko dik, bigarren tiraderakoa behera pasaraziko diagu.

– Ez diat entelegatzen...

– Hik ekar ezak metroa eta azalduko diat barnean gaudenean.

Aise pasa zitekeen bi etxeen arteko hesi gainetik. Erdialdean zuhaitz baten adarrek ematen zieten babesa hobetsi zuen Luisek Zabaletaren txaleteko lorategira disimuluan igarotzeko.

Loreontzi txikiaren azpitik jabetu zen Martin hiru giltzako jokoaz. Etxeko nagusiaren gelara jo zuten segituan. Martinek sinfonierraren bigarren tiradera ireki, errailetatik atera eta Estherrek bertan utzitako maleta atera zuen. Arestian egin gisara, tiraderaren beheko ohola erauzi zuen.

– Lagun iezadak!

Altzaria paretatik zertxobait aldendu zuten bien artean. Martinek atzeko partea ikuskatu zuen: ohola errailetan sarturik zen, eta beheko partean bi tope zituen, erraz mugitzen zirenak.

– Bikain! Hasi apuntatzen.

Martinek tiraderetako beheko oholen eta errailen sakoneraren neurriak hartu ahala, Luisek esku ahurretan apuntatu zituen zenbakiak. Gauza bera egin zuen sinfonierraren atzeko piezarekin.

– Orain zurgin bilakatu haiz, ala? –adarra jo zion Luisek.

– Zurgina bakarrik ez, ingeniaria duk guk behar duguna. Eta artisaua bada, hobe.

Neurriak hartzea bukatu ondoren, Martinek bere tokian paratu zuen bigarren tiradera, maleta eta guzti.

– Tira, Martin, esplikaidak behingoz zer daukaan buruan...

– Maletak trukatuko ditiagu.

– Bai, hori lehen ere esan didak. Baina hemen maleta bakarra zagok.

– Bi maleta erosi ditiagu, igual-igualak biak. Sinfonier honetan maleta hori sartuko ditek diruz mukuru, baina aterako duten maleta ez duk preseski hain beteta egonen.

– Hara! Orain mago bilakatu haiz!

– Magoa bakarrik ez, artisau bat duk guk behar duguna, eta Iruñeko onena bada, hobe.

– Zorakeria bat zirudik.

– Eguerdia baino lehen Giselerekin egon nauk, Tres Reyes hoteleko kafetegian. Han nintzela bururatu zaidak. Baditek igogailu moduko bat platerak sukaldetik barrara garraiatzen dituena. Halakoxe bat prestatu behar diagu.

– Igogailu bat! Hik burua galdu duk.

– Utzi niri. Eta entzun: zakur horiek maleta diruz bete eta berriro bigarren tiraderan sartuko ditek, hementxe. Guk beste maleta bat paratuko diagu goiko tiraderan, igual-iguala, hortxe. Beraz, haiek maleta diruz betea sartu eta tiradera itxitakoan, pisuarekin igogailuak behera eginen duenez, trukatuta geratuko dituk. Goikoak erdikoan dagoena ordezkatuko dik eta betea dagoena behera joanen duk.

– Kopon!

– Orain ikusi duk, ezta? Haiek maleta sinfonierrean sartu bezain laster galduko ditek altxorra.

– Ez diat oraindik entelegatzen.

– Bai motel! Esadak... nola topatu dugu sinfonierra?

– Arropaz eta oihalez beterik; bigarren tiradera izan ezik, hor Estherrek utzi duen maleta baitago.

– Hori duk! Haiek maleta bat sartuko ditek hor, itxitakoan bere pisuarekin behera etorriko duk, eta goiko tiraderan guk jarriko duguna joanen duk bigarrenekora. Kito. Tramankuluak eginen dik trukea, itsuan egin ere, haien bistatik kanpo.

– Tramankulua?

– Bai, atzeko ohola kenduko zioagu altzariari eta bertan jarriko diagu.

– Ostia! Magoa badiagu, baina orain ingeniaria eta artisaua beharko ditiagu –mekanismoaren bihurriak irri eginarazi zion Luisi.

– Eta sarrailagile bat! –Martinek eskuan zuen giltza-jokoa erakutsi zion.

– Zertarako behar dugu sarrailagilea?

– Maleta trukeak sinfonierraren barnean ongi funtzionatuz gero, hala eta guztiz berriz sartu beharko diagu txaletean. Maleta diruz betea eskuratuko diagu eta altzaria aurkitu dugun bezalaxe utzi, oihalak eta arropak barne. Estherrek ere ez likek ezer sumatu behar.

– Kopon! Asko pentsatu duk.

– Hiru giltza zaudek hemen. Zer irekitzen dute?

Martinek Luisi eskaini zion giltza-jokoa. Itxuraz zaharrena zirudienari erreparatu zion lehendabizi.

– Izeba Paularenean antzeko bat zaukaagu. Sotokoa duk.

– Txalet guztiek al dute sotoa?

– Gureak bederen bai. Bi sarrera ditik, sukalde ondoko biltegitik bata eta kanpoaldetik bestea.

Esan zuenerako, Martinek egiaztatua zuen. Zabaletaren txaletean ere biltegi bat zen sukalde ondoan. Tapiz maiztu batek babesten zuen zorua. Luisek alfonbra erretiratu eta tranpol bat azaldu zen, albo batean helduleku bat zeukana, eta handik tira egin zuen.

– Hementxe zagok, izeba Paularenean bezala.

Zurezko eskaileratik behera jaitsi zen Martin. Eutsiko ez ote zioten beldur, tentuz zapaldu zituen mailak. Sotoa ez zen sobera altua, zabala bai ordea, etxearen planta osoa hartzen zuen. Itxuraz ez zen argindarrik, lorategira ematen zuen atearen eta sabaiaren zirrikituetatik iragazten ziren izpi batzuk. Martinek txiskeroa piztu eta zutabeetan aspaldi laketua zen armiarma sare bat desegin zen. Hautsa edonon, anabasa ez zen nolanahikoa. Sotoa ezker-eskuin argiztatzen aritu ziren Martin eta Luis. Ezkerreko pareta maindirez estalita ageri zitzaien, koadro batzuk babesteko paratuak.

Altuena erantzi zuen Martinek. Txiskeroa hurbildu zuenean militar baten erretratuak begiratu zion parez pare: On Karlos VII.a, inondik ere.

– Karlistak beti karlista –Martinek irudia erakutsi zion Luisi.

– Nekez ikusiko dituk hauek Jurramendin. Aitak dioen gisan, aspaldi utzi ziotean karlista izateari. Gendulain kapitainaren partidakoak kargistak dituk orain.

Martinek beste koadro bati erantzi zion maindirea. Ezustean harrapatu zuen emakume biluzi baten erretratuak; etzanda zegoen, aurpegia ezker eskuarekin estaltzen zuela, bolizkoa zirudien gorputzaren azalak. Sinaduraren aldera eraman zuen txiskeroa, J.C. letrak irakurri zituen.

– Martin, heldu hona, mesedez –erregutu zion Luisek.

– Zer topatu duk? –Martin koadroetatik aldendu zen.

– Dozena erdi kutxa. Zurezkoak. Trastez beteta. Eta paretaren aldean, esekitoki batetik zintzilik, hamar bat uniforme.

– Banoak.

– Hauek... jakaz baino uniformez aldatzeko prest zeudek! Aitari ikusia zioat hau bezalako bat, karlistadaren garaikoa duk.

Martin ere jantzien artean araka hasi zen. Bazen gerra zibileko soingaineko *nacional* bat, bi tabarda eta elurretako jantzi bat.

– Errusiako Kolpinotik ere ez zituan esku hutsik itzuli –Martinek mahukako esbastika erakutsi zion Luisi.

Zurezko kutxetako batean kapeluak aurkitu zituzten. Beste batean bi kasko, horietako bat nazien garaikoa; eta gas-maskara bat ere bai, hau ere alemana. Komandantziako liburutegian inoiz aztertutako liburuetan ikusitako irudiak ekarri zizkieten gogora jantziok.

Luisek kristal txintxina entzun zuen uniformeak ziren eremutik aldentzean. Zerbait ukitu zuen, antza, eskuineko oinaz. Apalategi baxu bat zen, botilaz betea. Gerri lodiko bat hartu zuen ilunpean.

– To! Armagnacak, Pete Domezaini oparitzeko modukoak!

– Utz ditzagun denak bertan. Denbora galtzen ari gaituk –Martin sotoko sabaiari begira ari zen–. Nola arraio sartuko garen etxe honetan, hori asmatu behar diagu ahalik eta lasterren. Joan hadi gora, eta itxi ezak

tranpola. Sototik irekitzerik ba ote dagoen jakin nahi diat.

Eta Martinek sototik aise zabaldu zuen tranpola.

– Baina nola sartuko gara giltzarik gabe? –galdetu zion eskaileretatik.

– Sotoko atea zabalik utzita. Badik bere arriskua, baina horiek ez dituk armagnacaren bila hor behera jaitsiko. Hau duk hau kuxidadea! Hiru giltzetatik txikiena sotoko atekoa ote den probatuko diat.

Luisek sarrailan irristatu zuen giltza. Ez zuen aurrenekoan ireki. Atea kanporantz pusatu eta giltza jiratu egin zuen.

– Egina! Orain zer, zabalik utziko al dugu... edo sarrailagilea?

– Zabalik utzi! Bizkor, Pedrotxo zain izanen diagu kalean.

Luisek loreontzi azpian kokatu zuen giltza-jokoa, Estherrek utzia zuen bezala. Pedrotxo jeepean zegoen, egonarri betikoarekin, txotx batez azkazalak garbitzen, baina noizik behin atzean gerta zitekeena ispilutik barrandatzen.

– Dena prest? –Pedrotxok martxan ipini zuen autoa.

– Hik baduk lagun zurgin bat, ezta? –gogoratu zen Martin.

– Nor, Joxemiel?

– Bai, Mañuetakoa. Non du tailerra?

– Nabarrerian.

– Lagunduko al liguke?

– Galdetuko zioat.

– Agian gauez lagundu beharko ziguk.

– Hori zailagoa duk –Pedrotxok hasperen egin zuen–. Gautxori bat gauez lanera gonbidatzea ere!

– Fidatzekoa al da?

– Dirua tartean denean ba al dago fidatzerik?

Martinek ez zion erantzun.

– Kale edo bale! –erabaki zuen Luisek–. Dagoeneko bostak dituk eta Komandantzian behar diagu.

– Akort. Hi joan hadi zurgin horrengana. Baina lagundu nahi ez badigu, lortu ezak behintzat tailerra erabiltzen utziko digula.

– Eta zer esan behar zioat ba, nahitaez altzari bat egin behar dugula gau honetan berean?

– Zerbait bururatuko zaik. Edozein gisaz, tailer hori gure lantegia izanen duk gaur gauean.

Semaforoa gorriz topatu zuten Olite kalearen parean. Jeepetik jaitsi zen Pedrotxo eta Martinek hartu zuen bolantea.

– Non elkartuko gara?

– Afari-merienda egiteko asmoa diagu Salvatorerekin La Campanan.

– Eta Domezain?

– Hori ere ez duk urruti ibiliko.

17

Pedrotxo Carlos III.a etorbidearen hasieran utzi eta Komandantziara abiatu ziren Martin eta Luis. Lizarra kalearen inguruan jende aldra sumaturik, kuartel hustu berrien artean aparkatu zuen Martinek.

– Eta orain zer? –aharrausika ari zen Luis.

– Zain edukiko diagu Pete. Eta ez ahantzi Salvatoreri omenaldi bat zor diogula.

– Arrain ona zirudik Salvatorek.

– Eta ingeniari aparta, nonbait. Salvatore duk sinfonierrari atzealdean ezarriko diogun tramankulua egiteko gure gizona. Profesional bat behar diagu.

– Baina parte hartu nahi ez badu?

– Arriskatu beharra zagok. Casa Marinan limurtzen badugu, lagunduko ziguk.

Patrikara eraman zuen eskua Luisek. Beste gastu bat gehiago.

Errodajekoek zuten hartua Lizarra kalea, Londres irudikatzeko. Ibilgailuak, kamerak, mugimendua zen nonahi. Mahai luze batek zedarritzen zuen filmazio tokia, eta haren inguruan iruindar andana zegoen pilatuta, bazen han nahiko motibo jendea erakartzeko:

tea, kafea, pastak, opilak eta likore botilaren bat. Gerora frogatu ahal izan zutenez, dena doan.

Produkzioko teknikariak telefono kabina gorri bat plantatzen ari ziren Kuartel Zaharraren aitzinaldean. Martinek teknikarien multzoan begi eman zuen Pete Domezain.

– Zer gisa? –Petek kafe kikara bat hartu zuen, Martinek eskainia.

– Laguntzera gatoz, beti bezala.

– Ia zereginik ez dugu hemen. Surik gabeko eszena da hau.

– Orduan gurekin afalduko duzu arratsean?

– Zuekin afalduko dugu, bai, Salvatorek eta biok.

– Ongi da, hemen al dago?

– Hortxe, telefono kabina atontzen.

Italiarra Picadilly Circusetik ekarria zirudien kabina gorriaren ondoan zegoen makurturik. Teknikarien saldotik zertxobait aldentzeko eskatu zion Martinek Domezaini.

– Ziur aski zuen laguntza beharko dugu gaur gauean...

– Gauean ez al ditugu ba afari legea eta ondoren Casa Marinara bisita?

– Baiki, baina lan bat egiteko beta ere hartu behar genuke.

– Zer lan dugu ba?

– Ingeniari batendako lana. Eta hura artisaua bada, hobe. Tramankulu bat egin nahi dugu.

– Gaur bertan? Baina zer tramankulu gero!

– Utzidazu zure libreta, ea asmatzen dudan txukun antzean marrazten.

Txaleteko gelaren distribuzioa zirriborratu zuen orrialde batean; sinfonierra hurrengoan. Tiraderak eta bi maleten kokapena ahalik eta zehaztasun handienarekin marraztu zituen, eta azkenik, tiraderei eusteko bururatu zitzaion mekanismoa. Martinen azalpenak entzun bitartean Domezainek baiezkoa egiten zion buruarekin.

– Alua! Hiri bururatu al zaik hau guztia?

– Goiko maletak behekoa ordezka dezan behar dugu tramankulua. Txaleteko jabea ez da bihar arratsaldera arte Iruñera iritsiko. Horrexegatik, bihar eguerdirako egon behar du prest mekanismoak.

Petek jakaren ezkerreko poltsikoan gorde zuen bere libreta.

– Salvatore duk zuen gizona. Alanbre batekin edozer gauza egiteko gai duk.

Martinek ez zion kontrakorik esan, hura baitzen espero zuen arrapostua. Garbi zegoen Domezainen laguntza izanen zutela italiarra konbentzitzeko. Kezka bakarra zuen: italiarra ez ote zen akiturik geratuko Casa Marinan eskainiko zioten festaren ondoren.

Martinek ukondoa sartu zion saihetsean Pete Domezaini, Kuarteleko atari nagusitik Gendulain kapitaina irteten ikusi zuenean. Militar amerikarren antzera jantzita zetorren.

– Makillatu berria, ezta? –esan zion Petek.

– Bai. Arraro sentitzen naiz –Gendulain kapitainak Estatu Batuetako Armadaren ikurrak erakutsi zizkion paparrean.

– Ez da azken aldia izanen. Bihar Ultzamako eszenak ditugu.

– Badakit, bai. Baina luze joko al du biharkoak? Arratsalderako libratu nahi nuke.

– Ez dut uste sobera luzatuko garenik.

Horretan ari zirela hurbildu zitzaien Luis soldadua. Gendulain kapitainak aitaren traza hartu zion mutilari begialdean eta sudurrean.

– Zer moduz etxekoak?

– Ongi denak, kapitaina. Esker anitz.

– Neke aurpegia daukak. Ez al duk lorik egin? –galdetu zion Gendulainek, gurasokeriaz.

– Galtza bete lan ibili gara. Ea asteburu honetan atseden pixka bat hartzen dugun. Gainera, kapitaina, ia astebete daramagu Unibertsitatera agertu gabe...

– Praktika hauek baliagarriak izanen zaizkizue karrerarako.

– Zalantzarik gabe, kapitaina –elkarrizketan sartu zen Martin, Gendulainen aurrean tenteturik–. Baina asteburu honetan praktikari baino teoriari ekin behar genioke.

– Ongi da. Ikusten baduzue, goraintziak eman Don Lucianori nire partetik. Hark jakinen du zuen ahalegina aintzat hartzen. Ez du izanen Unibertsitate guztian zuek baino adituagorik Bigarren Mundu Gerraz.

– Hala izan dadila, kapitaina. Berak epaituko ditu gure karrera bukaerako proiektuak.

– Tira, utzi behar zaituztet. Munduaren norabidea aldatuko duen deiaren aiduru naukazue!

Etorri baino martzialago joan zen Gendulain, bere jantzietako ikur militarrak agerian. Luisek pasta bat hartu zuen jakien mahaitik.

– Pailazo halakoa! –bota zuen Petek, gazteek bakarrik entzuteko moduan.

Teknikariek plantatua zuten ordurako telefono kabina. Salvatore bilatu zuen aetzak. Eta italiarrak segituan ulertu zuen zein zen Domezainen nahia. Bakarrik jardun zuten biek ordu laurden batez, teknikarien multzotik aparte, Martinek Peteren libreta gorrian marraztu zituenei buruz. Salvatorek aise ulertu zituen zirriborroak, eta oharren bat ere markatu zuen orrialdeetako batean.

– Zer esan du? –galdetu zion Martinek Domezaini.

– Ordubete barru Mendi pentsioan.

– Orduan, prest al dago?

– Hala ematen du.

– Eta ulertu al du nolakoa izan behar duen gure mekanismoak? Egingarria ote da...

– Baietz esanen nuke.

– Beraz, gaur ere gaupasa! –hasperen egin zuen Luisek.

– Zuek bai, baina nirekin ez kontatu. Zuekin afaldu eta hotelera noa zuzenean. Bihar Ultzamarako asmotan gara. Salvatorek lagunduko dizue gauean. Bestalde, ez zaizue gaizki etorriko nik Gendulain kapitaina eta besteak kontrolpean edukitzea Ultzaman.

– Ez harritu horiek gugandik hurbil badira gaur gauean–Giselek esandakoak zeuzkan gogoan Martinek–. Casa Marinan azalduko dira agian.

– Ez dut uste. Diru kontu garrantzitsuak dituzte asteburu honetan –irri egin zuen Petek–. Ez daude parrandarako.

Martin pentsakor geratu zen amerikanoaren hitzak entzundakoan. Gasolindegiko bidoiak, Ultzaman biharamunean garaiz bukatu nahia, txaleteko Zabaletak Estherri agindutakoak... Gendulainen kuadrillak bazuen mugiroa astebururako... Pete Domezainen babesa ez zen soberakoa izanen...

Baina une hartan tramankulua prestatzeak zuen lehentasun osoa. Hausnarretik atera eta Luisengana zuzendu zen.

– Goazen bizkor Pedrotxorengana.

– Hik daukak ezin egona, kopon!

18

Izeba Ireneren etxean gazta bati labanaz zatia kentzen ari zitzaion Pedrotxo, lagunak iritsi zirenean. Bi euli borrokan bezala zebiltzan sukaldeko mahaiaren ertz batean, baina Luisi iruditu zitzaion beste zerbaitetan zihardutela. Martinek ez zuen lehengusua agurtu ere egin, harira jo zuen:

– Ba al dugu tailerrik?

– Hik zer uste duk? –Pedrotxok gazta zatia irentsi zuen.

– Zer esan dik Nabarreriakoak?

– Utziko digula.

– Orduan laguntzeko prest zagok...

– Hori ez diat horren garbi. Aldapa tabernan egonen duk gau partean.

– Han izanen dugu zain?

– Zain, zain, ez zakiat gure zain egonen den. Tabernan afaltzen dik, eta ez duk mahaitik erraz altxatzen den horietakoa, mus partida bat tartean denean zailago.

– Txantxa gutxiago. Lagunduko al digu, bai ala ez?

– Bai, lagunduko ziguk. Hori bai, hobe duk sobera arrailtzen ez bazaigu.

Martin lasaiago geratu zen. Arasatik edalontzi bat hartu, harraskan txorrota ireki eta, ura korritzen utzi ondoren, trago luzea eman zion.

– Eta diru konturik aipatu al diok?

– Dirua ez duk afera Joxemielekin –erantzun zion Pedrotxok.

– Izanen ez da ba! Zurgindegia utziko ziguk, tresneria eta materiala ere berak jarriko ditik.

– Utzi niri –Pedrotxo betiko patxadaz mintzo zen–. Hik ez al duk deskantsatu behar? Ia ez duk lorik egin.

– Nitaz ez kezkatu.

– Ez gaudek atseden hartzeko –gaztigatu zion Luisek Pedrotxori–. Salvatorerekin elkartu behar diagu segituan.

Italiarraren izena entzun zuenean gillotina bat balitz bezala itxi zuen labana Pedrotxok.

– Orduan napolitarrak ere baietza eman ziguk.

Martin harraska ondoko altzarira hurbildu zen. Bertako tiraderak baliatu zituen Pedrotxori sinfonierraren trikimailua azaltzeko. Lehengusuak arretatsu jarraitu zituen Martinen asmoak.

– Ikasi al duk? Hi haiz hau guzti hau Salvatoreri azaldu behar diona.

Pedrotxok zehatz-mehatz errepikatu zuen dena:

– Ongi entelegatu badut, bigarren tiraderan egonen duk diruz betetako maleta. Gainerakoan, oihalez dagoela eman behar dik sinfonierrak. Eta balizko tramankuluak bi maleten pisuari eutsi behar liokek.

– Hori duk.

– Eta kasualitatez goiko tiradera irekitzen badute? Ez al dute gure amarruzko maleta aurkituko?

Martinek ez zion berehala erantzun. Zalantza egin zuen. Edalontzia berriz urez bete eta osorik edan zuen:

– Ba, ez zakiat. Ezer bururatuko zaiguk. Zer uste duk, Zabaletak edo dena delakoak oihalei erreparatu nahi izanen diela? Horrek maleta besterik ez dik ikusiko, Estherri bigarren tiraderan uzteko agindutakoa, besterik ez.

– Halabiz!

Pedrotxoren ondoan eserita, isilean jarraitu zuen Luisek lehengusuen solasa. Aharrausi artean hitz egin zuen:

– Tira, argi dagoen bakarra da gaur ere gaupasa dugula. Baina zein da hemendik aitzineko ibilbidea?

– Aurrena Salvatorerekin elkartu Mendi pentsioan. Hortik La Campanara, afari-merienda egitera.

– Beraz, gaur ez ditiagu Maisonnaveko neskatikoak ikusiko...

– La Campanan ahalik eta kontu gehien lotu behar ditugu Salvatorerekin. Geuk eramanen dugu Casa Marinara gero.

– Libertimendurik ez niretako? –kexatu zen Pedrotxo.

– Hi ez haiz besamotza erremintekin. Afari garaian jakinen diagu zer material eta tresneria beharko dugun. Hire kontu horien feriatzea eta prestatzea. Zuzenean joanen haiz Joxemielen zurgindegira, eta gu iristen garenerako zerbait prest badaukak, hobe. Lana aitzinatzea duk kontua. Tramankulua, maleta barne, bihar goiz partean paratu behar diagu Zabaletaren txaleteko sinfonierrean.

– Dena egiteko astirik izanen ahal dugu! –Pedrotxo zutitu egin zen mahaitik.

Martin eta Luis kalerako janztera joan ziren balkoi aldeko gelara. Martinek atorra, prakak eta jaka bat utzi zituen eskuineko ohearen gainean.

– Ez duk blaiser bat, baina tira.

Jaka marroiari erreparatu zion Luisek. Eta eranzten hasi aurretik Martinek gutun-azal bat atera zuen patrikatik.

– Gasolindegiko diruak? –harritu egin zen Luis.

– Bai. Eguerdian Moises Estonbari kendu dizkiodanak.

– Dena egitera iristen haiz, ba!

– Zerbait bitxia gertatu zaidak han. Goñi gasolindegian egon omen duk, hala esan zidak Moisesek. Bi bidoi bete gasolina eraman ditik, antza.

– Zertarako? Horiek nonahi eta doan feriatzea ditek erregaia.

– Ez zakiat, motel. Igual hori duk asuntoa, ez dutela inon feriatu nahi. Beharbada ez ditek nahi inork ikus ditzan.

Esperoan zuten Pedrotxo pisuko atearen ondoan. Zapaten lokarriak estu lotu eta atzamarrez orraztu zituen ileak. Martinek maleta bikia eman zion eskaileretan behera zihoazela.

– Hik eramanen duk maleta zurgindegira.

Eta hirurak kalean zirelarik Pedrotxori agindu zion berriro:

– Hi moldatuko haiz Salvatorerekin. Garbi daukak tramankuluarena, ezta?

– Beharko! Lehenbizikoan entelegatu diat dena–burlaizez esan zion lehengusuari–. Lasaitu hadi behingoz!

Mendi pentsioan sartu ziren. Zigarroen keak girotzen zuen ostatua. Ez zen italiarra errodajeko bakarra hiru gazteak barraren hasieran kokatu zirenean. Erdialdean ingelesez mintzo zen dozena erdi bat gizonezko. Barra gainean errenkadan paratu edalontzi zabalak whiskiz betetzen ari zen zerbitzaria. Haietako bat eskuan zuela hurbildu zitzaien Salvatore.

– Buona sera!

Trago bakarrean hustu zuen edalontzia. Barra gainean ehun pezetako bat utzi eta errodajekoak agurtu gabe irten zen kanpora gazteekin. Kale Berrian Martin eta Luis aurretik zihoazen; gibeletik, ez sobera urruti, lehengusua eta italiarra tar-tar batean. Umeen algarek eta uso batzuek hartua zuten San Frantzisko plaza. Antsoleaga kalean sartu zirenean, atzera begiratu zuen Martinek, eta Pedrotxo eta Salvatore urruti zirela iritzirik, Bilbao ostatuaren aurrean zain egoteko keinua egin zion Luisi.

– Zer gerta ere, ni ez nauk txorta-giroan ariko gaur gauean –gaztigatu zion Martinek–. Casa Marinan heu arduratuko haiz Salvatorez eta neskez. Ni egongela

txikian edo ganbaran egonen nauk. Diruaz ez kezkatu, nik lotuko diat Marinarekin. Baina, hori bai, tokatzen zaion neskari esaiok ez ibiltzeko luzamendutan.

Martinen aginduak bukatu zirenerako, Kontuen Ganberaren parean ziren italiarra eta Pedrotxo. Salvatore ari zen hizketan, tarteka eskuak higitzen zituen alde batera, gero gora sorbaldaren parera, ondoren behera ia belaunetaraino.

– Capito? –esan zion Luisek italiarrari.

– Si, ha capito –erantzun zion Pedrotxok Luisi.

– Egin al dezake? –galdetu zion Martinek Pedrotxori.

– Bai. Uhalak erabilita, txirrika moduko bat eginen dik.

– Edukiko al du Joxemielek hori guztia zurgindegian?

– Doike. Gisa guziz...

– Zer?

– Pisua diagu afera.

– Pisua?

– Kalkulatu beharra diagu zenbat pisatuko duen diruz beteko duten maletak. Horrexek baldintzatuko dik mekanismoa.

Martinek kokotsera eraman zuen eskua.

– Goazen La Campanara. Han eginen ditiagu kalkuluak.

19

Ostirala izaki, hartuta zeuden ostatuko mahai guztiak; gehienetan basoerdiak ziren nagusi, bakarrean ari ziren afaltzekoa eskatzen. Martinek, garaiz iritsitako Pete Domezaini eskua tinkatu eta, berehala, sukaldean zen Josefaren begirada bilatu zuen.

– Itxaron egin beharko duzue –esan zion zartaginak gobernatzen ziharduen emakumeak.

– Eta... ahal balitz...? –gibeleko atea seinalatu zion Martinek.

– Bai, segi aurrera –Josefak ameto eman zion soa sutatik aldendu gabe.

– Esker mila. Bostok izanen gara.

Jarraitzeko keinua egin zien Martinek Salvatore, Domezain, Luis eta Pedrotxori; barraren bestaldera pasatu aurrena, erdiko suteen eremua ezkerretik igaro gero eta sukalde atzeko jantoki pribatuan sartu ziren azkenik. Italiarrak ez zien lapikoei begirik kendu sukaldea zeharkatu zutenean, usainak gozatzen atzeratu zen doi bat.

Txikia zen gela hura, asko jota zortzi lagunentzako tokia mahai karratuaren bueltan. Paretetan bi irudi:

Osasuna futbol taldearen argazkia duela hamar bat urtekoa eta Javier Zigaren koadro baten imitazio nolanahikoa. Albo batean arasa bat zegoen plater eta kristalezko edalontziak bistan, kazeta multzo batez zamatua beheko partean. Egunkarietako bat hartu zuen Martinek. Publizitate orri bat hautatu zuen krokisa egiteko. Salvatoreri begira zirriborratu zuen tramankulua.

– È posibile? –galdetu zion Pedrotxok.

– Si può fare.

Krokisaren gainean marrazten hasi zen italiarra. Uhalak eta tiraderen beheko oholak egin zituen, behean hiru bola zituztela. Marrazketak iraun zuen bitartean argibideak ematen zizkion Pedrotxori. Txunditurik segitzen zituzten napolitarraren azalpenak Martinek eta Luisek.

– Eta? –Martinek itzultzailea behar zuen.

– Lehen ere esan diat, pisua duk afera –adierazi zion Pedrotxok–. Beheko bola horiek maleten pisuari eutsi behar ziotek, eta diruz betetako maleta sartutakoan jarriko duk martxan polearen mekanismoa. Bi maleten pisuaren arabera betiere.

– Bolak gora eta maletak behera?

– Horixe bera.

Martinek mahai gainean zabaldu zuen maleta.

– Egunkari orriz beteko dugu geurea. Eta gasolindegian kobratutako dirua paratuko dugu multzo bakoitzaren gainean, egiazko billete bana egunkari paperak estaltzen. Horiexek ikusiko dituzte maleta ustela zabaltzen dutenean, ez dira berehala konturatuko gure iruzurraz. Eta ohartzen direnerako urrun izanen gara.

Erretilu bete tripaki zekarrela sartu zen Josefa jantoki pribatuan.

– Mola hartuko al duzue?

– Atera itzazu Bargotako bi botila.

Salvatorek dastatu eta estimatu zuen ardoa:

– Ummm... Voi sapete da vero come si fa il buon vino.

Tripakiak akitu, ondotik gibel xerrak jan, eta segituan desagertu ziren kafearekin batera etorritako piper-opilak ere, filmeko aktoreen eta makillatzaileen inguruko pasadizoez eta apetez maiseoan ari ziren bitartean.

Luis eta Salvatore izan ziren mahaitik altxatzen lehenak, italiarrari kontatu baitzioten hiriko bi neska alaienak ezagutuko zituela Casa Marinan. Pedrotxo, berriz, Joxemielen zurgindegira abiatu zen maletarekin, lana ahalik eta gehien aitzinatzeko asmotan. Jose-

fak armagnaca zerbitzatu zuenerako Martin eta Pete Domezain baino ez zeuden jangela pribatuan.

Zigarreta piztu zuen amerikarrak.

– Kontent geratu dituk zuen agintariak. Akaberan Patton jeneralaren autoan eman zieagu itzuli bat denen aurrean.

– Aipatu al dute ezer Ultzamako grabaketari buruz?

– Bai, berriz ere bihar goizeko egitekoen iraupenaz galdetu zidatek. Urduri dabiltzala zirudik.

– Ez dago dudarik diru kontuak dauzkatela bihar Argaraiko txaletean. Hala ere, beste asunto batek eman dit atentzioa: gasolindegitik bi bidoi eraman ditu gaur Goñi lotinant-koronelak. Zertarako behar ote dituzte?

– Horretaz ez diat deus ere jakin. Baina ez hadi keztatu, ongi aterako duk dena. Esadak, nolakoa duk txalet hori?

– Luis eta biok sartu gara. Txalet arrunta da, soto handi bat duena traste zaharrekin, utzi samarra. Antzinako uniforme militarrak, kaskoak, gas-maskara bat, nazienak ematen duten gauzak... Armagnac botila batzuk ere topatu ditugu zuretzako modukoak. Eta

maindirez estalitako koadroak ere badira, txikiak eta ez hain txikiak.

– Arte kontuak Salvatoreri interesatzen zaizkiok. Badakik italiar horiek denetik dutela beren herrialdean. Salvatore aditua duk. Uste diat errestaurazioa edo halako ikasketak egindakoa dela, horren aitzakiarekin hasi zuan zineman eta attrezzo gauzetan maisu bilakatu duk.

– Zer esan nahi didazu, koadro zaharren batekin ordaindu behar geniokeela ematen ari zaigun laguntza?

– Gustuko zerbait aurkitzen badu, zergatik ez?

– Baina soto horretan antigoaleko zaborra eta anabasa besterik ez dago-eta!

– Artea, Martin, ez duk gure gisakoentzat sortua. Jende praktikoa gaituk gu, eguneroko bizimoduaren gurpilari begiratzen dioguna. Baina beste batzuek plazer hartzen ditek artearekin, harri bitxiekin, liburu zaharrekin. Bildumazaleak dituk, guk ezagutzen ez dugun gozamena sentitzen ditek iragan txatalak esku artean edukita. Desira moduko bat duk, grina, garra, baina ez perbertsio bat, hire eta nire adimenetik aparte den zerbait baizik. Arteak eta musikak bihotzak hunkitzen ditik. Baina gure kasuan, aldiz, zinema ne-

gozio bat duk, neskekin dantza egiteko besterik ez diagu behar musika, albisteak emanez ogibide bat izateko idatziko duk hik.

– Dagoeneko damututa nago Kazetaritza ikasten denbora alferrik galdu izanaz.

Martinek hiru billete eman zizkion Josefari kalera bidean sukaldetik igarotakoan. Maisonnave hotelaren atarian Pete Domezaini gabon esan aurretik galdetu zion Martinek:

– Zer plan duzu bihar?

– Ultzamako lanak bukatu eta hotelera joanen nauk zuzenean. Atseden pixka bat behar diat.

– Egin nahi al zenuke gurekin azken afaria?

– Nahiko ez diat, ba! Dotore jantziko gaituk Salvatore eta biok.

– Salvatore ere bai?

– Bai. Jai eman zioat biharko, ez dik Ultzamara hurbildu behar izanen. Gisa horretan osotoro zuen zerbitzuko arituko duk gaur gauean, biharko filmazioaz arduratu gabe.

– Esker mila.

– Eta amaitzeko, ea denon artean ospatzeko moduan garen. Ongi merezia diagu.

20

Jarautan jendea lepo zebilela ikusita, botikako horman margoturiko Diana Ehiztariaren paretik igaro eta, ezkutuan bezala, nahiago izan zuen Santo Domingotik barrena joan Casa Marinara. Gazte aldra bat zegoen museoaren atarian eta, haien artean unibertsitateko ikaskideren bat egon zitekeelakoan, burua makurtu eta pausoa bizkortu zuen Martinek.

Bakar-bakarrik aurkitu zuen Marina anderea egongela handian.

– Berandu al nabil?

– Tenorean.

– Libre da egongela txikia?

– Orain bai.

– Eta Gisele?

– Gaur ez.

– Baina inon egonen da...

– Ganbaran –bekaiztu egin zen anderea.

– Zenbat da? –Martinek patrikan sartu zuen eskua.

– Hiru zerbitzu.

– Ez al dira bi?

– Chela eta Esmeralda, biak eraman ditik atzerritarrak.

Marina andereari sei billete eman eta ganbarara igo zen. Zabalik zegoen Giseleren logelako atea.

– Heldu haiz... –mutilaren zain zirudien.

Martinek musu gozo bat utzi zion ezpainetan.

– Gaur ez dun egitekorik?

– Hilekoa diat.

Emakumeak eskutik heldu eta ohean etzanarazi zuen. Besarkaturik igaro zuten tarte luze bat, uler ez zitezkeen murmurio trukean, irrika gehiago zirrika baino.

– Gogor daukak! –esan zion Giselek halako batean.

– Bai.

Praken botoiak askatu eta mihiaz busti zion zakilburua.

– Geldi...

Baina Giselek osotoro irentsi zuen eta arrunt fite isuri zen.

Martinen bularrean pausatu zen gero burua. Eta eriekin sabelpeko bilo leunak ferekatzen ari zitzaiola kontatu zion:

– Joanarekin topo egin diat botikan.

– Zein Joana?

– Nire herrikoa.

– Luzaideko bentan ari dena?

– Hori bera. Eta gizon begi urdina aipatu zioat.

– Goñirekin batera hemen izan zen hura?

– Bai. Bankaria duk. Garazin dik bulegoa. Baina firin-faran zabilek mugaz bi aldeetan. Diru kontuak ditik militarrekin. Baina ongi konpontzen duk txapelokerrekin ere.

– Eta?

– Guardia zibilak aztoraturik omen zabiltzak. Gogoan al duk Fonseca, zuen bailaratik Luzaidera joandakoa?

– Bai, Gola hoteleko ostatuan ikusi dinat goizaldean.

– Inoiz baino zakarrago zabilek egunotan. Ez duk inorekin fio. Herenegun bertan ia biluzteraino miatu zian Joana. Noiznahi paratzen ditiztek kontrolak. Zerbaiten bila ari direla esanen nikek.

– Joana berriz ikusiko dun?

– Bihar arte ez duk Luzaidera itzuliko. Eugiko osaba Fausto ospitalean ditek, baina bihar arratserako Luzaiden behar dik.

– Egin berarekin egoteko modua, eta hauxe esaion: “Mendiz igaroko dute muga jeep batean”.

– Ez diat entelegatzen.

– Txapelokerren bati esan behar zion, ahal dela Fonsecari berari. “Mendiz igaroko dute muga jeep batean”. Buruan jira-bueltaka dabilkidana egia bada, lagungarria gertatuko zaion zakur horri.

– Ados. Baina Fonsecak galdekatu eginen dik ondotik. Eta zer esanen dio orduan?

– Agintari militar batek putetxean esandakotik dakiela.

– Eta horrela esanda entelegatuko al du?

– Ulertu edo ez, arrastoan jarriko din txapelokerra. Hala espero dinat bederen.

Bi kaxkateko entzun ziren bat-batean atearen bestaldean. Prakak lotu eta zutik jarri zen Martin. Atea ireki zuen Giselek. Marina anderea sartu zen logelan.

– Militarra hirekin tematurik zagon.

– Gaur ez nago inorendako, badakizu.

– Orain inorekin ari haiz –andereak ez zion behatu ere egin Martini.

– Ez da ber gauza.

– Presta hadi! Sikiera igaro ezan tarte bat berarekin. Zerbait asmatuko dun.

Giselek adatsak atondu zituen ispiluan. Aldakatik gora igo zuen soinekoaren kremailera ezer esan gabe irten aurretik.

– Eta hi nire gibeletik –agindu zion Martini Marina andereak–. Egongela txikia libre zagok. Albait lasterren bidaliko ditiat Luis eta atzerritarra hara.

Martinek aurretik zuen Marina eskaileretan behera. Emakumezkoen algarak entzun zituzten bigarren solairuan.

Egongela txikian sartu orduko egin zion so erlojuari Martinek, hurbil zen gauerdia. Jarraian paretako zeramikazko platera jiratu zuen. Behatxulotik bi gizonezko ikusi zituen egongela nagusian: Goñi lotinant-koronela eta Gendulain kapitaina, sofan eserita biak. Eta biak zutitu ziren Gisele sartu zenean. Handik bost bat minutura Esmeralda izan zen egongelan agertu zena. Goñik bilogorriaren gerrian eskua paratuz elkarrekin joateko keinua egin zion; Gisele aurrez aurre jarri zitzaion eta bi besoez inguratu zuen militarra, geldiarazi egin nahi baitzuen nola edo hala. Esmeraldak ere gauza bera egin zuen Gendulainekin. Une horretantxe zabaldu zen egongela txikiko atea. Isilean sartu ziren Luis eta Salvatore.

– Bazen garaia! –protesta egin zuen Martinek.

– Finita comedia.

– Komedia orain hasiko duk Nabarrerian.

21

Kanpotik ez zen zirkinik sumatzen Joxemielen tailerrean. Eskailerak eta hiru tranpal jaitsi zituzten. Zurgindegietako usaina. Garbitu gabeko txirbiletan sartu zitzaizkien oinetakoak. Ez zen inor ageri, baina asotsa zetorren nonbaitetik. Oholtza batek zedarritzen zuen lokalaren gibelaldea. Hura mugitu eta han kausitu zuten Pedrotxo, egurrezko egitura bat kolaztatzen.

Inguruari erreparatu zion Martinek. Uhal zatiak, tiraderen zurezko oholak eta burdinazko hiru bola zeuden lan mahaian barreiaturik.

– Sono piccoli –ebatzi zuen Salvatorek, bolak eskuartean erabili ondoren.

– Zer dio?

– Txikiegiak direla. Txirrikaren kontrapisua egiteko dituk bolak, eta dirudienez mekanismoak ez dik sobera indarrik izanen bi maleten pisuari eusteko.

– Eta non da Joxemiel? –kexatu zen Martin–. Aldapa tabernan oraindik?

– Musean aritzea erlijioa duk horrendako –Pedrotxok xafla mehe bat hartu zuen–. Baina lasai, etortzekoa duk.

– Haren bila noak.

– Hago hemen –geldiarazi zuen Pedrotxok–. Prest diat maletaren estalkia. Ipin itzak billeteak bere tokian, ea ze itxura duten.

– Zer estalki?

– Salvatoreri bururatu zaiok soluzioa. Estalki bat diseinatu dik gure maletaren barnerako, hauxe berau, maletaren azalera baino txikixeagoa den xafla hau. Hamar multzo kabituko liratekeenez, mila pezetako hamar billete behar ditiagu; eta nik lau besterik ez zauzkaat.

– Milakotan beste bost baditiat nik –esan zuen Martinek, Luisi begira.

– To, hamargarrena –atera zuen Luisek konfiantzarik gabe–. Baina nola paratuko dituk billeteok? Ez ditiagu badaezpada ere xafla gainean itsatsiko...

– Beste modurik bururatzen al zaik? Tira, banoak Joxemielen bila!

Martinek lasterka egin zuen Carmen kaleko zurgindegitik Aldaparako tartea. Itxita zegoen tabernako atea. Bi bider jo zuen, apal aurrena, gogorrago gero. Gizenkote batek ireki zuen.

– Zer arraio!

– Zurginarengana nator.

– Eta nor haiz hi?

– Utzi pasatzen! –esan orduko barnean zen Martin.

Barraren aldameneko mahaian hiru gizon eserita.

– Joxemiel?

– Ni nauk –Martini bizkarra ematen ziona mintzatu zen.

– Pedrotxok bidali nau. Zure laguntza behar dugu.

– Txiko hau akitu ondoan. Bina gaituk.

Joxemielen kidea izan ezik, denak ziren pareen jabe. Gizenak enbido jo zuen. Zurginak mahaia aztertu eta arerioen hamarrekoak seinalatu zituen.

– Kanpoan zaudete. Beraz, hordago –bota zien.

Errege bat eta hiru bosteko erakutsi zituen gizenak mahai gainean.

– Akabo! –amaitu zuen zurginak.

Bi biko eta bi zazpiko atera zituen, dupleak.

– Azken erronda zuen kontura –mahaitik altxatu zen Joxemiel eta, alde egin aurretik, brandi botila bat hartu zuen barra barneko arasatik–. Gasolinarik gabe ez dago lan egiterik.

Zurginaren pausoen atzetik abiatu zen Martin. Bizkarrez hitz egin zion:

– Orduan, hi haiz Pedrotxoren lehengusua?

– Bai. Burdinazko pieza bat falta zaie tailerrean.

– Ni zurgina nauk, burdina soldadutzan bakarrik ibili nian.

– Baina agian zuk...

– Pedrotxok presaturik zabiltzatela errepikatu zidak behin eta berriz. Ez duzue lan makala!

– Nahitaez akitu beharra dugu.

– Gaur gauean bertan, ezta? Hala ulertu zioat Pedrotxori.

– Hori da, bai. Esanen duzu zer zor dizugun.

– Moldatuko nauk hire lehengusuarekin, hi ez kezkatu.

Carmen kaleko tailerrean sartu bezain laster larruzko kutxa bat hartu zuen ezkerraldeko apalategitik. Oholtzaren atzean Pedrotxo eta Salvatore erabat emanak zeuden tramankuluaren egitera. Luisek albo batean eserita jarraitzen zuen haien bien ahalegina.

– Gabon. Zeren premia duzue ba? –larruzko kutxa zabaldu zuen Joxemielek.

Dozena erdi edalontzi txiki ziren barnean. Brandiz bete zituen pare bat. Pedrotxok eta Salvatorek onartu egin zuten zurginaren gonbita eta klikol bakarrean hustu zituzten kopatxoak.

– Ba al daukazu hauetako handiago bat? –Pedrotxok burdinazko bola bat erakutsi zion zurginari.

– Ez zakiat. Bazter horretan duzue Martinikorenaren tailerretik feriatu nuena. Hor ezer topatzen ez baduzue, akabo!

Luisek eta Martinek ere trago bana edan zuten. Burdinazko piezaren bila zebilen Salvatore. Pedrotxok tramankuluaren uhalak eta tiraderen beheko oholak lotu zituen. Joxemielek uhal batetik tira egin eta gora egin zuen burdinazko bolak.

– Baina erranen al didazue zer behar duzuen zehazki?

– Pisua da arazoa –adierazi zion Pedrotxok–. Bola hauek txikiak dira, ez diote pisuari eutsiko.

– Orduan, paratu beruna burdina beharrean.

Joxemielek kartoizko kaxa bat inguratu zion Salvatoreri, eta honek berunezko bola bat eskuratu zuen barnetik.

– Sono proiettili di piombo!

– Gerra nonahi gurean –bere gisako itzulpena egin zuen Pedrotxok.

22

Lozorrotik atera zen Martin, katedraleko kanpaiak bostak iragarri zituenean; bestek esanda etzana zen lo kuluxka egitera. Joxemiel eta Salvatore lanean utzirik, Pedrotxo jeeparen bila joana zen; zurrunga batean aurkitu zuen Luis artean, ibilgailuarekin itzuli zenean. Martin begiak igurtziz hurbildu zen lan mahaira. Han ziren, zurginaz gain, Pedrotxo eta italiarra, beharrean. Tramankulua itxura hartzen ari zen, uhalen hiru muturrek berunezko bola bana biltzen zuten. Italiarrak polearen uhalak tinkatzeko agindu zion zurginari.

– Dov'è la valigia?

Maleta pasatu zion Pedrotxok. Tramankulua probatzeko unea heldu zen. Salvatorek prest zeukan billeteen estalkia.

– Horrez gain –proposatu zuen Martinek– beste zerbait sartu beharko dugu pisua har dezan, ezta?

– Zerrautsa edo txirbila sartuz gero, non egon garen salatuko zieagu –gaztigatu zion Pedrotxok–. Orain edozerekin kalkulatuko diagu pisua. Gero gerokoak.

– Zaudete pixka batean –Joxemielek egunkari meta bat ekarri zuen, ale guztiak *El Pensamiento Navarro*–. Pentsa dezatela karlistak direla amarrugileak.

Pedrotxok egunkariak sartu zituen maletan, eta gainean hamar billeteko estalkia ezarri zuen Salvatorek tentu handiz.

– Baina... zenbat pisatzen du milioi bat pezetak? –zurginaren galderak ezustean harrapatu zituen denak.

– Zenbat? –esan zuen ametsetatik esnatua zen Luisek.

– Milioi bat, kilo bat –Joxemielek berak eman zion erantzuna.

Burdinazko pieza bat hartu eta beheko oholean paratu zuen. Mekanismoa ez zen mugitu.

– Bi kilo nahi al dituzue? –Joxemielek burdinazko beste pieza bat erakutsi zien.

Eta orduan Salvatorek eskutik kendu zion pieza. Denek ikusteko moduan ezarri zuen burdina erdiko oholean. Mekanismoa martxan jarri zen, astiro jarri ere. Uhaletako bolak gora igo ziren eta behera aldatu zen maleta.

– Eccolà!

– Baiki, hauxe da behar genuena! –Martin berpiztu egin zen–. Egunsentia gainean dugu. Bizkor denok. Argitzen duenerako Argaraiko txaletean behar dugu.

Baina Pedrotxok, estreinakoz, zalantza egin zuen:

– Kasualitatez, maleta sartu aurretik edo ondoren, bigarrena ez den tiraderaren bat zabaltzen badute, orduan zer?

– Akabo! –esan zion Martinek, zurginak esan ohi zuen bezala.

Italiarrak eta Joxemielek sinfonierraren atzean jarri beharreko egituraren sendotasuna probatu zuten. Martinek kalean inor ba ote zebilen begiratu zuen. Pedrotxoren eta Luisen artean kargatu zuten tramankulua jeepean.

Autoa abiarazi eta, Biargietatik pasatzean, egunsentia iragartzen hasi ziren hodei laranja batzuk. Frantziako Atarian barna gidatzea hobetsi zuen Martinek. Labriteko maldan aginduak eman zituen:

– Luis, hik izebaren etxera joan behar duk, honezkero altxaturik egonen da-eta. Lan bikoitza daukak, izeba Paulak ez dik ezer sumatu behar, ahal delarik egin ezak gosari legea berarekin, baina kalerako asmoa badu, lagun iezaiok atariraino, ez dezan han inguruan ezer igarri. Salvatore eta biok ate nagusitik

sartuko gaituk Zabaletaren txaletean. Pedrotxo, hik atea giltzaz itxiko duk gu barnean gaudenean, giltzak loreontzi txikiaren azpian utziko dituk, eta gero jeepean geratuko haiz, kalea zaintzen. Salvatorek instalatuko dik tramankulua. Albait azkarren aterako gaituk.

– Nondik, ordea? –galdetu zion Luisek.

– Sototik.

– Konforme.

– Libre bahaiz, izebarenean jar hadi goiko leihoan, handik zelatatuko duk dena. Arazoren bat badela konturatuz gero, egin keinua leihotik Pedrotxori, eta berak jeepeko bozina hiru bider joko dik guri gaztigatzeko, sotoan ezkuta gaitezen. Baina ez duk halako premiarik izanen, dena ongi aterako duk.

Ez zuten trafikorik izan Generalisimo etorbidera iritsi arte, handik Argaraiko Baztan kalerantz jo zuten eta, azkenik, Luisen izebaren txaletera heldu baino zertxobait lehenago aparkatu zuen Martinek. Salvatorek eta Pedrotxok tramankulua atera zuten jeepetik. Martinek, maleta eskuan, Zabaletaren etxeko atarira gidatu zituen. Loreontzitik giltzak hartu eta zailtasunik gabe ireki zuen atea.

Bakoitza bere tokian zen.

Sinfonierra non zegoen erakutsi zion Martinek italiarrari. Paretatik urrundu zuten altzaria, Salvatorek atzeko ohola aiseago ken ziezaion. Martinek, bitartean, Estherrek sartua zuen maleta hartu, goiko bi tiraderak errailetatik atera eta maletarekin batera paratu zituen ohe baten gainean.

– Adesso mi dai la valigia –Salvatorek prest utzi zuen tramankulua.

Maleta zegokion tiraderan ezarri zuten.

– Bello da paura! –esan zuen, nahiz eta Martinek ez ulertu–. È molto bene.

Irri egin zuten biek mekanismoak pisuari eutsi egiten ziola ikustean. Martinek burdinazko bi pieza jarri zituen bigarren tiraderako maletaren gainean. Berunezko bolek gora egin zuten orduan, eta maletek behera.

– Finita comedia! –italiarrak bostekoa eman zion Martini.

Tramankulua eta maletak iruzurrerako pronto zeudela, paretaren kontra itzuli zuten sinfonierra, arestian aurkitu bezalaxe uzteko. Altzariaren goiko moldurak baino ez zuen ukitzen horma, arreta handiz begiratu beharra zegoen ezertaz ohartzeko. Gainera, kakorrat-

zez eginiko mahai-tapiz batek edertzen zuen sinfonierraren gainaldea. Zaila zuten ikusteko.

Martinek sukalde ondoko biltegiko tranpola zabaldu eta sotora jaisteko keinua egin zion Salvatoreri. Miretsita geratu zen anabasa harekin. Koadroen eremura hurbilduta, maindiretako bat altxatu zuen.

– Una Madonna! –ama birjina bat ageri zen koadroan.

Sototik lehenbailehen irten behar zutela adierazi zion Martinek bultzaka.

– È italiana! È nostra! –begiak irten beharrean zituen.

Bortizki atera zuen Salvatore kanporantz. Sotoko atetik begi-bistan agertzen zitzaien izeba Paularen etxea. Han zen Luis leihoaren bestaldean barrandari.

– Lasai, mandatuak egitera joana duk –esan zien Luisek–. Gu bakarrik gaudek hemen.

– Ez hadi hortik mugitu ni agertu arte –agindu zion Martinek–. Ez zakiat noiz helduko naizen, ziur aski gau itxia izanen duk ni iristerako. Para ezak zapi berde bat goiko leihoan etxerako bidea libre bada. Bestela ez nauk sartuko.

– Ongi zagok.

Lasterka batean joan ziren Martin eta Salvatore Pedrotxok abian jarria zuen jeepera. Italiarra haserre bizian zegoen atzealdean eseri zenean.

– Non du zauria horrek? –Pedrotxok kargu hartu zion Martini–. Liskartu egin al zarete hor barnean?

– Erotu egin duk koadro bati begira –Martinek garrantzia kendu nahi zion Salvatoreren aldarteari–. Bultzaka atera behar izan diat sototik. Horregatik muzinduko zuan. Kasurik ez.

Mola plazatik Alde Zaharrera gidatu zuten autoa. Eguzki izpiek min egiten zuten begietan. Denda batzuk zabaltzen hasiak ziren. Gosetuta eta akituta zihoazen hiru lagunak, urduritasuna gainetik askatu ezinik lehengusuak eta ernegaturik italiarra.

– Hau hotelera hurbilduko diagu. Gero autobus geltokian jaitsiko haiz hi. Zer asmo daukak gaurko?

– Lizarrara noak. Hartzarenetik pasatuko nauk, ea jeeparen paperekin ezer aitzinatzen dudan –erantzun zion Pedrotxok–. Gaur hasi eta bihar amaitu nahi diat haren itxuratzea.

– Eta Luis eta bion jeepa zer?

– Lasai egon hadi, nire kontu.

Tabako paketea aterata jakatik, zigarro bat eskaini zion Pedrotxok Salvatoreri. Honek ez zion errefusatu, baina ez zuen bisaia mudatu.

– La voglio questa Madonna –esan zion jeepetik jaitsi baino lehen.

– La Madonna? –Pedrotxok ez zuen ezer entelegatzen.

– Sotoa koadroz beterik zagok. Ama birjina batekin aztoratu duk...

– Devo salvare la Madonna! –tematu zen Salvatore hotelera zihoala.

Gazteluko plazatik autobus geltokira abiatu ziren lehengusuak. Aurreneko *estellesa* iritsia zen, baziren esperoan zeudenak ere. Pedrotxok errieta egin zion:

– Italiarra gozatzea komeni zaiguk. Gehiegi zakik.

– Gauza bakoitza bere tenorean.

– Ausarki lagundu ziguk.

– Bazakiat.

– Jeepak lapurtzen lehenik eta orain tramankuluarekin.

– Ez nauk ergela.

– Zaindu ezak gizon hori.

– Gaur gurekin afalduko dik ziur aski.

– Kasu egiok ba.

23

Izeba Ireneren urratsek esnatu egin zuten Martin. Eguerdia ordu erdiz pasea zela salatzen zuen mesanotxeko erlojuak. Hodei batzuen artetik hegazkin igaro berri baten lerro zuriari erreparatu zion leihotik, zerua erdibitzen. Nagiak ateratzen irten zuen pasillora. Sorbaldako minak bere horretan zirauen. Lapikokoaren urrinak hartua zuen sukaldea. Han zegoen izeba, bata askatzen harraska ondoan.

– Egun on. Zer moduz aldaka hori?

– Hobeki. Ukendu horrek aski arindu zidak oinazea – nabaria zitzaion herrena hala ere–. Pedrotxo herrira joana duk, ezta?

– Goiz partean. Ni bihar joanen naiz.

Irenek katilua eta kafetera utzi zizkion mahaia gainean.

– Amarenetik pasatuko al haiz?

– Litekeena da. Ezer eraman behar al diot?

– Pakete bat daukak pasilloko gelan. Amarendako gortinak dituk.

– Ados –Martinek azukre apur bat bota zion kafeari.

– Hemen bazkalduko al duk?

– Ez dut uste.

– Hemen bahaiz, hor dituk dilistak.

– Mila esker.

– Beheko dendara noak. Ez diat uste luzatuko naizenik.

Mahaia bildu eta balkoiko logelara abiatu zen Martin. Aulki baten gainetik hartu zituen izebak egindako gortinak. Elkarrekin gutxitan ikusiak zituen bi ahizpak. Ama baino bost bat urte zaharragoa zen izeba, baina puskaz gazteagoa zirudien. Kosta egin zitzaion gogoratzea noiz ikusi zituen elkarrekin hondarreko aldiz, osaba Patricioren hiletan izan zela esanen zukeen. Paketearena ez zen berria, oihalak eta zapiak, inoiz izara joko bat ere eramana zion amari izebaren partetik. Amak, ohi bezain lehor, paketea hartu eta gorde egiten zuen. Bueltarako, otarre bete janari prestatzen zion, izebak herabe hartzen zuena, baina honek ere ez zuen ezer ere esaten. Isiltasunaren trukea deitzen zion Martinek ahizpen arteko hartu-eman hari.

Bainu bat hartzeko tenorea zuela iritzi zion Martinek. Arras bizkorturik sentitu zen horren ondoren. Gandututa geratu zen ispilua. Behatzetako azkazalak moztu, kalerako jantzi eta sukaldera itzuli zen.

Dilistak jaten ari zen Irene.

– Hemen hago orduan. Arraina daukak bigarreneko.

– Ongi da.

Irenek ere dilistak atera zituen beretzat. Martinen aurrez aurre eseri zen mahaian.

– Ezer aipatu al dik Pedrotxok?

– Zeri buruz? –Martinek ez zuen soa altxatu.

Irenek ez zion erantzun. Platerekoari ekin zion. Bukatu zuenean harrira joan zen edalontziarekin, txorrota ireki, urez bete eta zutik edan zuen. Berriz mahaian, hasperenak ihes egin zion.

– Hik ez al dakik ezer?

– Zer jakin behar dut ba?

– Ez duk inoiz ezer sumatu?

– Ez –arrain hezurrari burua besterik ez zitzaion geratzen.

– Ez al zaik xelebrea egiten amaren eta bion arteko harremana?

– Zu hemen bizi zara, ama herrian. Ahizpak zarete. Elkarri gauzak bidaltzen dizkiozue nire bitartez.

– Orduan Pedrotxok ez dik deus ere esan?

– Ezetz ba.

Bezperako Pedrotxoren “Noiz kontatu behar diozu?” galderaz akordatu zen Martin. Une hartako nekearengatik ez zion garrantzirik eman. Orain agerian zen Irenerentzat kezka iturria zela ilobarekin abiatu berri zuen solasaldia.

– Zer da Pedrotxok kontatu beharreko hori?

– Gogoan al duk aita?

– Nola izanen dut ba, ez nituen-eta bi urte hil zenean.

Irenek eskuak elkarlotu zituen magalean, sakon hartu zuen arnasa, mihiaz ezpainak busti zituen oharkabean:

– Hire ama nauk. Ni nauk hire ama.

Lapiko txiki baten antzera hustu zen Irene. Martinek harriturik jarraitu zuen kontakizuna. Aitak haurdun utzi zuen Iruñetik herrira itzuli zen batean. Ezkutuan eraman ahal izan zuen haurdunaldia Fulgencio Ortiz prokuradorearen etxean zegoela, eta horretan, ezinbestekoa izan zen Estherren laguntza. Oso aurreratua zelarik herrian egonaldi luze bat pasatzera joan zen, aitzakiatzat hartuta gaixotasun aldrebes bat diagnostikatu ziola sendagileak eta zaintza bereziaren premian zegoela. Lau hilabete igaro zituen han, inoren bistatik aparte. Tarte horretan, Estherrek egiten ziz-

kion prokuradorearen etxeko lanak. Azkenean, Ekalako emagina lagun, herrian erditu zen. Ahizpak, bere izebak, semetzat hartu zuen senarrak Irenerekin izandako haurra: Martin.

– Horixe duk dena.

Hitzik egin gabe hustu zuen basoerdia Martinek. Aulkitik jaiki eta eskuak patriketan sartuta joan zen atera.

– Egitekoak ditut.

– Ez al didak ezer esan behar?

– Zeuk esan duzu dena.

Alderrai ibili zen Navas de Tolosa kalean barna. Irenek inoiz ezer sumatu ote zuen galdetu zioenean, ez zuen usaindu ere egin afera nondik aterako zen. Basotxoaren inguruko banku batean eseri zen, ipurdia goiko oholean. Aita zenak ez zuen berebiziko lekurik etxeko solasaldietan; egiaren aitortzeko, solasa ez zen etxekoen dohaina. Kontu gehienak etxetik kanpo ikasiak zituen. Errepublika eta gerra garaiko aitaren ibilerak, Andres basozainaren ahotik. Ez zuen garbi leizearen aferan nahasirik ibili ote zen, Andresek ez baitzion inoiz argibiderik eman, agian nahi ez zuelako. Afera itsusia izan zen leizekoa. Pedrotxo ezagututa, ez harritu lehengusua inoiz leizera jaitsi izana. Hala bazen, ez

zion sekula ezer aitatu. Gainera, gerra piztutakoan desagerrarazi zituztenena arrunt urruti geratzen zen bere pentsamenduetatik, bestelakoa zuen uneko kezka. Ama zuen izeba. Azken urteetan bizikide eta zaintzaile izandako izeba zuen ama.

Jauzi batez zutitu zen Martin. Lasterka egin zuen etxerako bidea, zango-luze igo zituen eskailerak. Irenek eserita segitzen zuen sukaldean, kokotsean esku bat. Elkarri begiratu zioten. Ez zen malko arrastorik emakumearen bisaian.

– Zerbait atzendu al zaik?

– Gero arte esan gabe alde egin dut. Musu bat ematera nator eta banoa. Jarraitu beharra daukat.

– Jarraitu beharra zaukaagu, bai.

Arrain kondarrak batu eta zakarrontzira bota zituen Irenek.

24

Anitz jende biltzen zen larunbat arratsaldeetan Tres Reyes hoteleko kafetegira. Sartu eta batera, Martini atentzioa eman zion mahai luze batean zegoen gorbatadun taldeak, algara batean ari zirelako. Unibertsitatekoak begitandu zitzaizkion, Medikuntzakoak edo. Ez zekien non eman arratsaldea, garagardo bat eskatuko zuen. Iluntzean Maisonnavera hurbilduko zen, Pete Domezainek izanen zuen zer kontatua Ultzamako filmazioaz, baina bitartean zer egin ez zekiela zebilen. Atseden pixka bat ez zitzaion gaizki etorriko.

– Garagardo bat, mesedez.

Luisekin gogoratu zen; hura arras deskantsaturik egonen zen gau parterako, eta seguru ez zuela ezer aitzinatu Bigarren Mundu Gerraz Don Lucianok agindu zien lanarekin. Biek zuten ahaztuxea unibertsitateko martxa Patton aferarekin zebiltzanetik. Ez zen estutzekoa ere, laster akituko zituzten filmazioarekikoak eta ikasketei berriz ekiteko tenorea helduko zitzaien. Sanferminen aurretik lizentziatuko zituzten, alferez graduarekin.

Unibertsitateko ikaskideen artean baziren kazetari plantak egiten hasitakoak, Radio Popular eta Radio Requeté irratietan kolaborazioak egiten zituztenak. Luisi ere eskainia zion aitaren lagun karlista batek *El Pensamiento Navarro*n idaztea; Martini ere proposatu zion elkarrekin zerbait egitea, baina honek ez zuen bere burua inongo erredakziotan ikusten. Funtsean, ez zekien zer dela-eta hautatu zuen kazetaritza. Bazen Lizarrako ezagun bat, Samuel Pardo, bera baino zaharragoa, aurretik saiatua horretan. Bai Iruñean bai Lizarran noiznahi ikusten zuen delako Samuel hori parrandan. Itxuraz ez zuen kolpe zorririk jotzen, baina tarteka han edo hemen argitaratzen zuen Estellerriko kronikaren bat. Hartaz oharturik, ez zuela zaila izan behar pentsatu zuen bere artean. Etxean ez zioten inolako eragozpenik jarri, eta garrantzitsuena, lotuagoak ematen zuten gainerako ikasketek. Ibaiak berak eraman zuen murgildu orduko.

Giselerengana joan zitzaion akordua. Bete ote zuen bezperako mandatua? Ezer esan ote zion Joanari? Ikusi ote zuen honek Fonseca?

Garagardoaren aparra apaldu zenean, periodikoa hartu zuen barra bazterretik. *Mañana en Montejurra todos juntos en unión* leloa zekarren azalak. “Ez ditek

gaizki aukeratu eguna” pentsatu zuen. Edaria ahitzerako erabaki zuen Casa Marinatik pasatzea. Bisita eginen zion Giseleri.

San Lorenzo kalean gazte multzo batek paperak banatzen ziharduen, biharamuneko ospakizunari buruzkoak. Jurramendiren magalean elkartu ohi ziren karlistak lehendabiziko igandean. Ez zen makala izanen Estellerrirako trafikoa maiatzaren 4 hartan, foruzainek zein guardia zibilek lan franko izanen zuten txapelgorrien jarioa bideratzen. Bai, ongi aukeratu zuten eguna Gendulain kapitainak eta Goñi lotinant-koronelak.

Jarauta aldera jarraitu zuen eta hortik Oinutsik kalera, Casa Marinara.

– Goiztiar habil. Kokoen tenorea duk hau –zirtoa egin zion andereak.

– Gisele?

– Okupaturik zagok. Nagusia heldu zaiguk. Hoa gora nahi baduk.

Bilogorriaren lurrina nabaritu zuen ganbarako gelan. Ohean etzan zen, atseden hartzeko betarik izanen zuela iruditu zitzaion Martini. Casa Marina esaten bazioten ere, ez zen anderea etxeko jabea, guardia zibila izandako merkatari bat baizik, mugaldean aritua

zena. Hilean behin etortzen zen Iruñeko negozioaren martxa aztertzera eta bestelako traturen bat lotzera.

Ezaguna zuen lozorrotik esnatu zuen eskuaren leuna.

– Segi pausan –aldamenean etzan zitzaion Gisele.

– Elkartu al haiz Joanarekin?

– Eguerdian.

– Aipatu al dion Fonsecari esan beharrekoa?

– Bai.

– Eta ikusiko al du?

– Ez zakiat. Eltzetzu hori ez duk habia bakarrekoa.

Martin leiho ondora altxatu zen, gibeletik besarkatu zuen Giselek. Pareko etxean arropa esekiak biltzen ari zen emakume bat.

– Gendulain kapitainarengatik galdetu zidak nagusiak.

– Zer interes du horrek militarren artean?

– Marinak esan ziok Gendulainen kuadrillakoen bisitak maizko bihurtu direla azkenaldian.

– Eta?

– Niregana jo dik gero argibide eske. Dakidana kontatu zioat, gaur direla Argaraiko txaletean elkartzekoak...

– Garaziko bankaria ere aipatu al dion?

– Hori ere interesatu zaiok.

– Eta berak ezer kontatu al din?

– Aztoratuta omen zabiltzak mugaldean. Gure nagusiak ez dik sekula lotura eten aduanazainekin. Tira, txapelokerren batzuek oraindik berari bakarrik egiten ziotek kasu, Fonsecak konparaziora.

– Alde egin al du zuen nagusiak?

– Ez diat uste. Begiratzea diat.

– Oraindik hemen bada, emaion herorrek Fonsecari pasatu beharreko informazioa. Hitzez hitz: “Mendiz igaroko dute muga jeep batean”.

– Baina, nola dakidan galdetzen badit?

– Esaion Gendulaini entzun hiola Goñiri halako zerbait esaten: “Muga mendiz igarotzeko horniturik daukagu jeepa”. Iradoki iezaion ez huela esaldia ulertu, baina orain gogoratu zainala. Bizkor, hoa.

Martin ohean etzan zen berriro, armiarma baten ibiliari begira. Arriskutsua zen mugaldean eltzetzu oro militarren arrastoan jartzea, baina, bestalde, kilikagarria zitzaion bi talde armatuen arteko etsaigoan sakontzen laguntzea. Patuaren kiribilak: hainbatetan bera eta Pedrotxo xaxatu zituen Fonsecaren laguntzaile ari zen.

Ordu erdi baten buruan itzuli zen Gisele ganbarara. Dirdai zegiten haren belarritako txikiek, iaz Martinek urtebetetzean oparitan ekarriak.

– Harrapatu al dun?

– Bai. Interesatu zaiok. Eskerrak eman zizkidak.

– Egin al din beste galderarik?

– Ea toki izenen bat aditu ote nuen. Ezetz esan zioat.

– Ongi egina. Alde egin beharra dinat orain.

– Noiz arte? –alkandoraren lepoak tenkatu zizkion Giselek.

– Ez zakinat.

Berriz elkar ikusi behar ez balute bezala besarkatu ziren.

25

Amaituak ziren, itxura guztien arabera, *Patton* filmaren grabazio lanak.

Nekez sartuko zen jende gehiago Maisonnaveko kafetegian. Hotelera baino lehen La Campanako ostatura joana zen Martin, jangela pribatua erreserbatu eta axuri erdi bat erretzeko eskatzera Josefari. Pedrotxo herrian, Luis izebaren txaletean, gerta zitekeen Pete Domezainekin buruz buru afaldu behar izatea.

– Buona sera! –Martinek Salvatore gozatu nahi izan zuen.

– Arrastion –Domezainek itzuli zion diosala.

Pete erretzen ari zen. Whiski batekin Salvatore.

– Zer behar duk? Patton koktela agian?

– Goizegi da erasorako. Baso-erdi bat.

Salvatore, edalontzia barra gainean utzita, komun aldera aienatu zen. Lizarbe barmanak ardo kopa bat ipini zuen Martinen aurrean.

– Zer gisa Ultzaman?

– Ongi, bai Ultzaman bai Basaburuan. Ihabenen ere filmatu diagu –Petek ke kiribil zuri bat egin zuen ai-

rean–. Zer egin diok Salvatoreri? Muturtuta dabilkiala zirudik.

– Deus ez. Zer du ba?

– Agerikoa duk zerbait gertatu zaizuela goizaldean.

Tabakoak horituak zizkion atzamar muturrak.

– Ederki pasatu zuen ba Casa Marinan!

– Eta ondoren?

– Txaleteko guztia egin genuen –Martin hitzak neurtzen ari zen, inoiz baino gehiago, galdeketa batean zegoela sentitu baitzuen.

– Koadro bat ikusi omen dik.

– Kontatu dizu orduan.

– Jakina. Eta badakik halako gauzak maite dituela. Madonna bat zuan, ez da hala?

– Hori esan du berak. Nik ez dut begiratu ere egin.

– Ba al dago koadro gehiago?

– Maindirepean, dozena bat edo bai. Anabasa da soto hura.

– Portatu hadi inorekin baino hobeki italiarrarekin –aholkatu zion Petek, eta isildu egin zen gero, Salvatore bazetorrela konturaturik.

Martinek edan gabe utzi zuen ardo kopa.

– Goazen, La Campanakoa erreserbatu dut.

Josefak sukaldetik jangela txikira pasatzeko keinua egin zien. Domezain eseri zen mahaiburuan, ezker-eskuin zituela Martin eta Salvatore. Erretilu bete uraza ekarri zuen etxeko andereak.

– Edateko... Bargotakotik gaur ere?

– Plazer handiz –onetsi zuen Petek.

– Axuriari gutxi falta zaio. Nahi al duzue aitzinetik ezer pikatu?

– Perretxikoak.

– Arrautzetan?

– Ez, bere horretan, mesedez –amaitu zuen Petek.

Sukaldera erretiratu zen emakumea. Domezainek zerbitzatu zuen ardoa. Salvatorek bi bider biratu zuen edalontzia ezpainetara eraman aurretik.

– Handia al da koadro hori? –gai bakarra zeukan Petek.

– Ez dakit. Arestian esan dizut, ez dut ikusi ere egin.

– È piccola –oharra egin zuen italiarrak.

Martin orduantxe konturatu zen Salvatorek dena ulertzen zuela.

– Gauzak ongi bidean, bihar goizean goiz txaleteean sartuko zarete berriz ere.

– Nola dakizu zuk bihar goizean libratuko dela txaleta? –bizkor ibili zen Martin.

– Hori geroxeago argituko diat. Ez gaitezen bidetik aldendu. Martin, hiretzat ez duk zaila izanen koadro hori feriatzea. Salvatorek hori eta gehiago merezi dik.

Espero zuen Domezainen proposamena Martinek, baina jabetu ezinik zebilen koadroaren garrantziaz, are gutxiago balioaz.

– Zer du ba zorioneko koadro horrek?

– Historia luzea dik.

– Ikasteko prest naiz beti, hori zuk ere badakizu –Martinek ez zuen nahi lotu gabeko soka muturrik.

Zizekin agertu zen Josefa. Salvatorek, zatitxo bat sardexkaz ziztatu eta, berehala antzeman zuen laztana aho barrenean. Italiarra laketurik ikusita, irri egin zuten beste biek, lehenbiziko aldiz.

– Harira –segitu zuen Petek–. Horiena ez duk diru garbiketa hutsa. Salvatorek ederki zakik hori.

– Hau ere gerran ibilia al da zure gisan?

– Ni baino gazteago dirudien arren, Europako gerra egindakoa duk. Alta, ni ez bezala, ezkutuan aritu zuan. Komando berezia zuan Salvatorerena. Ezaguna genian naziek artelanentzat zuten jaidura. Egun ere ehunka dituk desagertuta dauden obrak, juduenak

izandakoak gehienak. Aliatuen lehorreratzea gainean zela igarririk, Frantziatik eta Italiatik artelan franko Alemaniara bidean jartzen hasi zituan naziak. Zerbitzu sekretuek sarritan jasotzen zitean operazio horien berri. Frantzian Erresistentziakoak eta Italian partisanoak, noski, arrunt sentiberak zituan kontu horiekin. Artelanen gaia lehentasun bilakatu zuan zerbitzu sekretuetako agente zenbaitentzat. Hirekin zizak jaten ari den hau duk haietako bat.

Josefak labetik ateratako erretilua paratu zuen azpiko ohol karratu baten gainean. Hiru gizonen oniritzia bildu zuen arkume errearen usainak. Domezainek saihetsen puska handi bat zerbitzatu zion Salvatoreri, eta Martinekin erdibanatu zuen izterra. Bigarren ardo botilatik gutxi edan zuten axurikia plateretan zen bitartean. Domezainek, azkenean, beretzat bakarrik hartu zuen arkumearen buru erdia, inori eskaini gabe.

– Salvatorek, nola ez, Italian jardun zian. Naziek, hegotik iparrera ihesean, ez zitean aukerarik galdu edozer arpilatzeko. Trenez eraman izan ohi zitiztean Alemaniara. Harrapaketaren tamainaz oharturik, sikiera tren horien ibilbideez zerbait jakiteko sistema bat asmatu zitean Salvatoreren komandokoek, partisanoen eta, bereziki, trenbideetako langileen laguntzaz.

Markatu egiten zitiztean ustez artelanak zeramatzaten bagoiak. Kodigo arrunt batzuk zituan: hizki pare bat eta zenbaki multzo txiki bat. Inizialek non izan ziren ebatsiak adierazten zitean; zenbakiek, berriz, lapurreta datari egiten ziotean erreferentzia. Kodigo horiek baliatuz, inoiz bagoi oso bat husteko parada izan zitean partisanoek. Baina bagoi gehienak Suitzak irensten zitian.

Axurki burua garbi platerean, Domezainek zapian igurtzi zituen eskuak. Ardo xorta bat eskaini zion Salvatorek.

– Lehorreratzearen ondotik, Frantziako Erresistentziak eta partisanoek aisekiago pasatzen ziotean informazioa elkarri, gu tarteko.

– Zu ere tarteko? –Martinek miretsirik aditzen zuen.

– Baietz esan dezagun. Ondarea berreskuratzen laguntzea zuan gure misio berria. Patton jeneralari gasolina akitu zitzaioan edo, zuzen esateko, akitu zioteean. Eta guk geldirik ez genekienez, bestelako zereginetan aritu gintuan. Ez nadin desbidera. 1944ko bigarren erdiko anabasa hartan, partisanoek markatutako bagoi batzuk atzeman genitian, hutsik gehienbat.

Baina patua zer den, gugandik aski hurbil kausitu genian NIX30 marka zuen bagoia.

– Non?

– Donibane Garazin.

Ardoa eztarrian trabatu zitzaion Martini. Eztul txiki bat egin zuen.

– Alimalekoa da naziek atxiki eta egun ere desagertuta dauden artelanen kopurua. Eta nonbait horietako bat duk, hain zuzen, Salvatorek ikusi duena Argaraiko txaleteko sotoan. Ez da hala? –galdetu zion Petek italiarrari–. Bat dator ustez NIX30 bagoian zihoan koadroetako batekin. Napolin 1943ko irailaren 30ean Belsito jauregitik ebatsitako Madonna.

Azalpenak xehetasun egokiz eman zituela adierazi zion Salvatorek eskuarekin. Martinen edozein erreakziori adi segitzen zuen.

– Eta zer pisu dute Gendulainek eta Goñik honetan guztian?

– Dibisio Azulean ibilitakoak dituk biak. Europa zeharkatu zuten hartan ez zituan gudu zelaietan laketu preseski.

– Nola dakizu hori?

– Bazakiat, kito. Errusiatik itzuli zirenean hor segitu zuen naziekin izandako hartu-emanak, mugaldeko

aferetan nagusiki. Gaur bertan frogatu ahal izan dudanez, aski ongi kontrolatzen ditek muga.

– Mugaldean ibili al zarete?

– Bai, baina hori gero kontatuko diat. *Battle of the Bulge* filmatu genuenean ezagutu nitian birigarro horiek. Gendulainen eta Goñiren txosten bana genian Espainiako Armadak gure filmaziora bidali zituenean. Gu zelatatzea eta kontrolatzea zuan haiek zuten egiteko nagusia.

– Zerbitzu sekretukoak dira biak!

– Dibisio Azularen garaietatik. Gero Gerra Hotza hasi zuan, mundu osoko militar ugari formatu diagu gure akademietan. Fort Leavenworthen trebatu zituan Gendulain eta Goñi, ez biak batera. Esan dezagun geroztik ez dela oso joria haiekin izan dugun harremana.

– Zein dira ba haien interes pertsonalak?

– *Battle of the Bulge* filmatzen ari ginenetik gaur arte nabarmena duk jokoa. Armadan egindako iruzurretatik erdietsitako dirua non kokatu, horixe duk haien helburua. Sosa ditek jainko bakar. Andorra baino La Jonquerako muga ibili ohi ditek, baina mugalde hori gero eta begiratuago zagok. Bestalde, txapelokerrak ere hor zabiltzak, beren partea nahi haiek ere... beti atera ziotek etekina muga zaintzeari.

– Baina zer ikusi dauka horrek koadroekin?

– Duela hiru bat urte egin zitean irrist. Margolan bat merkatu beltzean saltzen ahalegindu zuan Miarritzeko martxant bat. Frantziako Poliziak ez zian koadroa atxiki, baina bitartekariaren aldetik erdietsi zitean Goñi lotinant-koronelaren deskripzioa. Horrek jarri gintian haien arrastoan. Saldu nahi zuten koadroa Garazin agertutako bagoiko bat zuan.

– Beraz, horregatik hurbildu zinen joan den asteartean guregana Maisonnaveko kafetegian... Zuentzat lanean ari gara oharkabean.

– Esan dezagun zuen jukutriek dena erraztu digutela. Goiz edo berant harrapatuko genitian.

– Baina horiek jaun eta jabe dira hemen. Zer egin dezakezue, atxilo hartu?

– Arrazoi daukak horretan, ezin ditiagu harrapatu. Baina Garaziko bagoiaren ekuazioa argitu diagu. Artelanak dituk gure interesa. Laburbilduz: dirua zuendako, koadroak guretako.

– Demagun zuen proposamena onartzen dugula. Demagun koadroak Argaraiko txaletetik eskuratzea lortzen duzuela. Baina nola eginen duzue horiek Iruñetik ateratzeko?

– Hori gure afera duk, adiskidea.

Jangelako atea zabaldu zen. Botila bat Napoleon ekarri zuen Josefak. Topa egin zuen Pete Domezainek.

– Akort?

26

Ultzaman eta Basaburuan goizean egindakoez jardun zuen Pete Domezainek, eszena batean parte hartu baitzuten Gendulain kapitainak eta Goñi lotinant-koronelak. Zubi batekin zeukaten arazoa konpontzeko aitzakian, bi militarren jeepa arakatu zuen Petek.

– Hantxe zitiztean hik aipatutako bi gasolina bidoiak. Ihabengo zubian eszena filmatu eta berehala alde egin ditek. Haiei jarraitzera deliberatu nauk gure auto batean. Egozkuetik Iragira joan dituk, handik Urdaitzera; baina Eugi aldera beharrean, Zubirira jaitsi dituk; Erroko portua igo eta gero Sorogaineko bidean zirela, gelditu egin nauk. Ordu erdi pasea zelarik itzuli eta Iruñerako bidea hartu ditek. Beloson buelta eman eta Ultzamara itzuli nauk.

– Dirua Sorogainetik igaroko da orduan.

– Dirua ez zakiat, baina zuen maleta bai. Hala espero diat bederen.

Domezainek ez zion utzi Martini La Campanako kontua ordaintzen. Gonbita onartu beste erremediorik ez zuen izan alferezgaiak, azken finean berak ere ez

zekien nor izanen zen operazio hartatik guztitik onura handiena aterako zuena.

– Gaua Argarain eman behar dut –esan zuen Martinek, agurraren unea helduta–. Noiz agertuko zarete zuek? Salvatorek jakinen al du txaleta aurkitzen?

– Hona etorri aurretik erakutsi zidak –gaztigatu zion Petek–. Nik ere ikasi diat txaleta non den.

– Zuen autoa Agoitz kalean gelditu –esan zion Martinek–. Neuk ere inguru horretan utziko dut jeepa. Hortik oinez hurbildu txalet aldera, eta urrutitik zelatatu. Luisen izebaren txaleteko goiko leiho batean zapi berde bat paratuko dugu. Hura ikusi ezean ez hurreratu, ez baitakigu zein tenoretan alde eginen duten.

– Argitzen duenerako muga aldean behar ditek.

– Nola dakizu?

– Filmaketaren zain geundela, Gendulainek gaur egin behar duen biaoaz mintzatu zaiok Goñiri, eta honek erantzun ziok bihar txorien kantuekin esnatuko direla.

– Ez dute egun txarra aukeratu...

– Zer dago ba bihar? –galdetu zion Domezainek.

– Karlisten erromeria Jurramendin. Guardia zibilek nahikoa lan izanen dute Estellerriko trafikoa zuzentzen.

Gaiztakeria bat etorri zitzaion burura Martini: osaba Jeronimori deituko zion Eulateko ostatura. Ziur aski berandu izanen zen, baina nork jakin.

– Aizak –Petek azken kontu bat zeukan Martinentzat–, beste gauza bat: tiro hotsak entzun ditiagu txaletetik hurbil.

– Argarain?

– Hiru tiro. Jakin dugunez, Polizia Armadakoak izan dituk. Gizon baten atzetik omen zebiltzan. Aralar kalean gertatu duk.

– Gerra nonahi gurean –Martinek ez zion garrantzirik eman.

Pete Domezain eta Salvatore Kale Nagusiaren hasieran zirelarik, Martin berriz sartu zen La Campanan.

– Josefa, jarriko al didazu?

– Hor duzu –telefonoaren ondoko kontagailua sakatu zuen Josefak.

Eulateko ostatuko telefono zenbakia markatu zuen Martinek. Emakume baten ahotsa entzun zen hariaz bestalde.

– Bai, esan?

– Hor al da Aranaratxeko Jeronimo?

– Baietz uste dut. Begiratuko dut.

Martinek minduta zeukan sorbaldara eraman zuen eskua.

– Nor da!

– Osaba, ni nauzu, Martin. Ba al dakizu Fonseca kuartelean ote dagoen?

– Fonseca? –ahapetik ari zen osaba Jeronimo–. Hementxe zagok.

Isilik geratu zen Martin une batez.

– Entzun, ez zara nirekin mintzatu. Eta orain kakotu telefonoa.

Osaba Jeronimoren arnasa entzuten zuen bestaldean. Bi segundo luzeegi igaro eta deia moztu egin zen.

Lanak emanen zizkion besagain hark. Sukaldeko beroa heldu zitzaion. Labe ondoan zegoen trapu bat hartu eta Josefari ezer esan gabe berriz sakatu zuen kontagailua. Zenbaki berbera markatu zuen telefonoaren gurpilean. Trapuaz estali zuen mikrofonoa.

– Bai, esan?

– Fonseca hor al da?

– Baietz uste dut. Begiratzera noa.

Handik minutu batera gizonezko baten eztarri garbitzea entzun zuen Martinek.

– Zer gertatzen da?

– Sorogainetik barna igaroko dira militarrak.

– E!?

– Sorogainetik barna, jeep batean, bihar goizean.

27

Whiskia edaten segitzen zuten errodajekoek Martin Mendi pentsioko tabernaren ataritik igaro zenean. Zaratarik egin gabe ireki zuen etxeko atea, zuzenean joan zen sukaldera irratiaren marmarra entzun zuenean. Galtzerdi bat saretzen ari zen Irene.

– Honezkero afalduko huen.

– Bai. Luisengana noa. Lan bat amaitu behar dugu.

– Unibertsitatekoa? –gozotik saiatu zen.

– Unibertsitateko ikasgaiekin ere zerikusia duena.

– Gabon pasa, Martin.

Gauerdia hurbiltzen ari zen, txaletera joateko tenorea. Pete Domezainekin egindako tratuaren berri Luisi nola emanen zion pentsatzen aritu zen Agoitz kalerantz gidatzen zuen bitartean. Ezustetik ezustera zebilen egun osoan. Domezainen ezkutuko nortasuna ezagutu zuen egun berean ama bilakatu zitzaion izeba. Zalantzarik gabe, azkarregi egin zuten txama Maisonnaveko lehenengo gauean, errazegi lortu zuten amerikanoen laguntza iruzurrak aurrera ateratzeko. Pedrotxo ez zegoen desbideraturik, Pete Domezainek trukean zer nahi zuen galdetu zionean. Baina jadanik

ez zegoen atzera bueltarik. Tratua eginda zegoen. Naziek lapurtu eta Argaraiko txalet bateko sotoan bukatu zuten koadroena ez zen bere afera.

Jeepa aparkatu eta Apaiztegitik hurbildu zen Baztan kalera. Argi apalegia ematen zuten farolek. Txakurra paseatzera ateratako gizon batekin gurutzatu zen. Luisen izebaren txaleta kalearen bestaldetik barrandatu zuen doiaz baino gehiago. Armadako jeep berri samar bat zegoen bi txaleten langen artean. Zapi berdea goiko leihoan ikusi arren, astiro eta ondoko etxebizitzari begira igaro zuen langa, zer gerta ere. Argirik ez Zabaletaren etxean. Barruan behar zuten Gendulainek, Goñik eta Zabaletak berak. Luisek ireki zion atea.

– Izeba?

– Ohean. Badaezpada ere abisatu zioat, unibertsitaterako lan baten karietara helduko haizela.

– Ongi pentsatua eta hobeki esana.

Goiko pisuan geratu ziren bi gazteak, argiak itzalita, leihoaren aurrean.

– Iluntzean azaldu dituk hiru arranoak.

– Zein ordutan edo?

– Bederatziak irian. Lehenago agian.

Bertatik bertara ikusten zituzten sotoko atea eta sinfonierraren logela pertsiana jaitsita.

– Zer moduz eguna?

– Tira, gorabehera batzuekin, baina ongi.

– Domezainekin egon haiz?

– Bazagok zer kontatua, bai.

– Bota lehenbailehen.

– Pete eta Salvatore agertuko zaizkiguk egunsentian.

– Haiekin banatu behar al ditugu diruak?

– Ez, ez ditek dirurik nahi.

– Orduan?

– Sotoko koadroak nahi ditiztek.

– Kopon!

Martinek hasi eta buka kontatu zizkion Josefaren-ean izandako solasaldia eta horren ondorengo tratua.

– Eta hik onartu egin duk...

– Zer erremedio.

Isilik egon ziren tarte luze batez. Denbora egin behar zen, haria egiten den bezala. Ilargiaren argiari begira Martin. Kilkerren hotsari adi Luis.

– Hik ba al hekien zerbait koadroei buruz? –esan zuen halako batean Martinek.

– Heurekin sartu ninduan aurreneko aldiz soto hartan.

– Kontatu didatenarengatik, hire aita ez zuan horien ibileretatik urruti ibiliko gerra garaian.

– Ez zakiat. Aitaren kontuak Gendulainengandik zekizkiat. Ez nauk aitarekin ia egoten, izeba Paularekin bizi nauk hemen. Ehiza duk haren pasio bakarra. Nik dakidala, putetxeak ere arrotzak zaizkiok; tira, auskalo zer egiten duen ehiza larrietara joaten denean. Militarrekin ez dik txamarik egiten aspaldian. Hala uste diat behintzat. Gainontzean, ba hori, oraindik ere karlistatzat dik bere burua. Afaltzen ari ginela esan zidak izebak, bihar elkarrekin joanen direla Jurramendira.

– Hona etorriko da orduan?

– Ez. Sei eta erdietako meza entzuten dik Kaputxinoetan, eta hortik zuzenean joanen dituk Jurramendiko gurutze-bidera.

– Esna al dago izeba?

– Lo zagok, begiratu diat lehen. Seietan jaikiko duk.

– Gauerdian itzali ditiztek argiak egongelan, eta jarraian piztu sinfonierraren logelakoa aurrena eta goiko pisuko erdiko gelakoa ondoren. Handik gutxira itzali dituk denak. Eta ondoren, deus ez.

– Txandaka ariko gaituk.

– Bai.

– Hi deskantsaturik egonen haiz...

– Ez uste –esan zuen Luisek–. Lotan nengoela zaratots batzuek esnatu naitek.

– Hik ere entzun dituk tiroak orduan.

– Nola dakik tiro hotsak izan direla?

– Domezain eta Salvatore inguru honetan zituan tiroena gertatu denean.

– Hara!

– Italiarrak txaleta non den ikustera ekarri dik Pete –Martinek eskua eraman zuen sorbalda mindura–. Gizon baten atzetik ibili omen dituk Polizia Armadakoak.

– Orduan zer –aharrausika hasi zen Luis–, nork egin behar du aurreneko txanda?

– Neronek eginen diat. Bi ordu. Gero hik beste bi. Eta horrela etxetik irteten diren arte.

Leiho ondora eraman zuen Martinek korridoreko aulkia. Zutik zegoenean baino baxuago egonda ere, neke handirik gabe zelata zitzakeen bi logelak. Ez zen sobera akiturik. Egiaren aitortzeko, adrenalina sobera zuen fundamentuz lo egiteko. Egun latza izan zen, eta bide beretik zetorren igandea. Baina Gendulainek, Goñik eta Zabaletak egunsentia baino lehen alde egi-

nez gero, munta txikiko lana zirudien dirua eskuratzeak. Maleta atxiki, tramankulua atera eta sinfonierra aurkitutako moduan utzi. Arrunt erraza mekanismoak bere lana egina balu. Eta itxuraz egina zuen, isiltasuna eta normaltasuna besterik ez baitziren Zabaletaren txaletean, baita teilatuan zebilen katuarentzat ere.

Zaintzaren asperduran, astebete eskasean izandako harat-honatak errepasatzeari ekin zion Martinek. Zerrendatu eta zenbatu beharra zeuden gastu guztiak. Uranga tailerrekoari zor ziotena salbu, gasolinaren diruarekin kitatuak zituzten gehienak. Gestoriak jeep berrien agiriengatik kobratuko ziena falta zen. Dena den, hartzeko zeukaten oraindik Remigiori estalpean sartu zioten kamioiaren ordaina. Par egiteko moduan zirela begitandu zitzaion. Eta maleta zegoen aparte! Zenbat diru ote zegoen barruan?

Fonsecari pasatako gaztigua etorri zitzaion gogora. Ez ote zuen gehiegi arriskatu telefono deiarekin. Gizona ez zen fidatzekoa, eta hain zuzen horrexegatik ez zuen ergeltzat.

Ordu bietan esnatu zuen Luis.

– Altxa! Hire txanda duk.

– Dios, gustura nengoan ba...

– Dena lasai zagok.

– Kilkerrak entzutera berriro...

Luisek utzitako tokian etzan zen Martin.

28

Loaldi sakonean zen Luis, Martinek auto baten atea ixten entzun zuenean. Estropezuka hurreratu zen leihora. Jaime Zabaleta ikusi zuen Seat 1500 beltz baten barnean egokitzen. Gendulain kapitaina gero, jeeparen motorra arrankatzen. Goñik atzealdeko bidoi baten azpian kokatu zuen maleta. Izpi batean gertatu zen dena, amets batean bezala.

– Gora, Luis! Esna hadi! Bazoazak!

Auto beltza fite desagertu zen bistatik. Astiroxeago Gendulainek gidatzen zuen jeepa. Gaua joana zen baina eguna argitu gabe zegoen artean.

– Jode, lo geratu gaituk!

Erdi jantzian, sukaldera jaitsi zen Luis. Gosalduta zegoen izeba Paula. Martinek eskaileretatik aditu zuen haien arteko elkarrizketa.

– Garai batean gustura joaten zinen ba Jurramendira –ari zitzaion ilobari–. Aitari ilusioa eginen lioke zu gurutze-bidean ikusteak.

– Baina...

– Ez daukazu mezetara zertan lagundu. Zortziak aldean abiatuko gara. Nire gelako azken tiraderan izanen duzu zuretako moduko txapel gorriren bat.

– Unibertsitateko lan bat amaitzen ari gara...

– Arratsalde pasa egitera, bederen, etor zaitezke Lizarrara. Girorik ez da faltako. Jatekoak eta edatekoak, musika eta dantza.

– Goiz esnatu gara lanerako, izeba. Beharbada Martinek lo egin nahiko du arratsaldean.

– Aitzakiak!

– Ez dizut ezetzik esan...

– Tira, banoa. Prest duzue kafea. Eta gosaldu ondoren txukun utzi dena, ez dut nahas-mahasik kausitu nahi gauean.

Atalasean geratu zen Luis izeba Paulak kalerako langa igaro arte. Martinek zapi berdea paratu zuen orduan goiko leihoan.

– Laster azalduko dituk Pete eta Salvatore.

– Kafea hartzeko astia badiagu oraino.

Kezkatuta zegoen Martin, Zabaletaren txaletetik atera ziren unean berean ikusi ez zituelako. Loreontzian ote ziren giltzak? Bi autoetan alde egin bazuten, etxea hutsik egonen zela ondorioztatu zuen. Gauzak

horrela egitearen arrazoia zein izan zitekeen hausnartzen ari zelarik jo zuten atean. Hemen dira!

– Egun on –esan zuen Luisek–. Kanpoan al zineten?

– Bai, horiek alde egin zain.

– Ez al duzue Agoitz kalean aparkatu? Ikusi egin zaituztete agian...

– Hi! Profesionalak gaituk! –garbi utzi zuen Domezainek–. Segitu ere egin ditiagu, eta ez dituk ohartu. Jeepak Belosoko aldapa hartu behar zuela ikusitakoan itzuli gaituk.

– Eta Seat 1500 beltza?

– Aranguren alderantz.

Bi kotxe, bi bide; ihes egiten zion zerbait bazela aitortu zuen Martinek bere kolkorako.

– Goazen! Giltzak loreontzian ote diren begiratu, eta barrura! Zuek non duzue zuen jeepa?

– DKV batean etorri gaituk –erantzun zion Petek.

Txaletak bereizten zituen arbolaren eremutik igaro zuten hesia. Loreontziaren azpian ez zen giltzarik, ordea. Martinek sotoko atera gidatu zituen lagunak. Heldulekuari tinko eutsita, gorputza bermatu zuen atean eta barrurantz bultzatu. Ezin ireki.

– Lasciami! –baztertzeko agindu zien Salvatorek, eta inork ikusterik izan ez zuen moduan zabaldu zuen–. Eccola!

Koadroak zeuden zokora hurbildu zen italiarra zuzenean. Aurreko egunean maindirea kendu zion artelana erantzi zuen berriz.

– Ecco! Luini.

Eta ondoko koadroaren gainekoa ere altxatu zuen, eta dena bilakatu zen poza haren aurpegian.

– Il tuo Botticelli! –Domezainek zorionak eman zizkion adiskideari.

Harrituta zeuden Martin eta Luis amerikarren emozioaren aurrean. Koadro zahar batzuk besterik ez ziren, inor gutxik zituenak faltan, eta okerragoa zena, itsusi mortalak. Zenbat horrelako Nafarroa osoko eliza eta komentuetan! Ez zuten ulertzen zer balio izan zezakeen pieza haiek, ezta norbait egon zitekeenik ere dirua ordaintzeko pronto haiengatik.

– Arduratuko zarete gero koadroez –esan zien Martinek–. Orain goazen gora, ea tramankuluak bere lana egin duen.

– Salvatorek lagunduko dik –Domezain ez zen artelanak zeuden zokotik higitu.

– Hi ere gera hadi hemen –agindu zion Martinek Luisi, ordurako ez baitzen ezertaz fio.

Zuhurki igo zituzten sototik sukaldeko biltegirainoko eskailerak. Tranpola gora pusatu eta espero zuten isiltasuna zuten zain. Ez zegoen inor. Zainak airean jo zuten sinfonierraren gelara. Bi ohatzeak deseginda zeuden. Martinek bigarren tiradera zabaldu zuen: hutsik zegoen! Hirugarrena ireki zuenean ezin izan zuen irria gorde. Presaka zabaldu zuen izara nahasien gainean hain emeki pausatu zuena.

– Hori duk eta!

Sorta bati heldu zion, billeteak gezurrezkoak ez zirela sinestea ezinezkoa iruditurik. Anartean, Salvatorek erauzia zuen tramankulua altzaritik. Sinfonierra larunbat goizean aurkitu moduan utzi zuten gero, paretaren kontra txukun. Maleta eskuan, Martinek azken behakoa eman zion gelari. Tramankulua aldean zeraman Salvatorek, ozta-ozta sartu zuten tranpolatik behera. Eskaileran ilunpea egin zenean, estropezu egin zuten bi gizonek, italiarra bide erdian gelditua baitzen.

– Il tappeto! –gaztigatu zion.

Den-dena ezer gertatu ez balitz bezala utzi nahi bazuten, tapizak estali behar zuen sotorako tranpola. Tentu handiz ipini zuen estalkia Martinek, tranpola be-

rriro itxitakoan nola geratuko zen asmatu ezin zuen arren.

Pete Domezainek eta Luisek koadroak pilatzen ziharduten sotoko ate ondoan, maindireak eta guzti. Aurreko egunean baino gehiago zirela begitandu zitzaion Martini.

– Dena ongi? –Martinek eskuan zekarren maletari so egin zion Luisek.

– Hala ematen dik.

– Pozik orduan –esan zion Petek.

– Zuek ere bai, ezta?

Domezainek koadroetako bat bakandu zuen sailetik eta Martini eskaini zion.

– Hau ez da gure interesekoa.

Martinek libre zuen eskuaz koadroa hartu eta Luisi eman zion. “Basiano” irakurri zuen sinaduraren tokian.

– Bizkorrago ibili beharra dugu. Zabaletak giltzak eraman ditu, uste ez dugula ager liteke. Luis, hi joan hadi izebaren atarira eta handik zelatatu kalea. Nik lagunduko dizuet hau guztia DKVan zamatzen.

– Tramankulua barne? –galdetu zion Petek.

– Horrek bere lana egin du. Izan dadila gure oroigarria zuendako.

Martinek ez zuen maleta une bakar batean askatu. Atea itxi behar zutenean, sotora itzuli zen, botila bat hartzeko eskailerapetik. Salvatore arduratu zen sotoko atea ixteaz, irekitzeaz arduratu zen trebetasun berberaz. Furgonetaren ondoan zen Pete Domezain, Apaiztegi aldera iritsi zen autobusari begira.

– Mendira al doaz?

– Mendi sakratura –irri batekin erantzun zion Luisek.

– Karlistak?

– Apaiztegian ez dira urri.

– Arrivederci! –Salvatorek pilotuaren leihoko kristala jaitsirik agurtu zituen bi gazteak.

– Zer plan duzue? –esan zuen Petek.

– Ez dugu planik –erantzun zion Luisek–. Eta zuek?

– Gu ez gara aspertuko –furgonetaren atzealdean zeukatena seinalatu zien.

– Doike.

– Plazera izan da –bostekoa eman zien Domezainek.

– Hona bizigarri bat –Martinek armagnac botila atera zuen gibeletik.

– Esker mila! Beti behar da gasolina poxi bat.

Film baten amaieran bezala aienatu zelarik DKVa, Martin eta Luis izeba Paularen txaleteko hallean barneratu ziren.

– Zenbatu al duk?

– Nola nahi duk zenbatzea!

– Ez al duk maleta zabaldu?

– Dirua hor dela begiratzeko besterik ez.

Pete Domezainek emandako koadroa egongela txikian utzi eta mahai gainean ireki zuten maleta.

– Ostia! –Luisek burura eraman zituen eskuak.

Hamar sorta zeuden, goma lodi banarekin loturik billeteak.

. – Hasi zenbatzen –haietako bat bota zion Martinek.

– Kopon! –Luisi eskuetatik ihes egin zion billete sortak.

– Ez hadi urduri jarri, geureak dituk.

Gomak askatu eta paperak haztatzen hasi ziren; Luis ahapeka, Martin isilean. Milako billeteak ziren, berri-berriak. Martinek bere sorta zenbatu eta beste bat hartu zuen. Luisek 150 ahoskatu zuen berea bukatutakoan.

– Aski duk –agindu zion Martinek.

– Hau al da nire partea?

– Momentuz har ezak hori. Zor guztiak kitatu ondoan banatuko diagu gainerakoa. Pedrotxok ere izanen dik bere zatia. Joxemieli ere ordaindu beharko zioagu zurgindegikoarengatik.

– Baina zein da Pedrotxoren partea? –kexatu zen Luis.

– Ikusiko diagu.

Martinek berak zenbatutako billete sorta patrikan sartu eta maleta itxi zuen.

– Non gorde behar duk maleta?

– Hi lasai, utzi niri.

– Utzi niri, utzi niri...

– Ez haiz esku hutsik geratuko. Dagoeneko zerbait jaso duk, ezta?

– Hik nahi duana egiten diagu beti.

– Baiki. Beraz, jantzi hadi txukun eta goazemak hemendik. Mugiroa ez duk bukatu.

Etxetik pasatzekoa zen herrira joan aurretik. Irenek emandako paketea hartu behar zuen, eta diruz betetako maleta gorde. Kontuz ibili beharra zeukan.

– Non daukak jeepa? –jaka urdinkara eta praka azulekin agertu zen Luis.

– Horrela hoa? Falangista ematen duk.

– Hiri zer inporta zaik!

29

Lizarra inguruetan espero zen pilaketa saiheste aldera, Deierritik joatea deliberatu zuen Martinek. Etxauri igaro eta Garesko bidea hartzen zuten ibilgailu gehienek. Guardia zibilak ari ziren trafikoa zuzentzen. Portua igotzen hastea eta trafikoa arintzea bat izan zen. Ohartzerako behean zuten ibarra, gereziondoak han-hemenka aspalditik loretan, eta ibaia erdian sigisaga. Gaina pasatu eta batera agertu zitzaien Estellerri iparraldeko ordeka. Laster hasiko ziren gorritzen galsoroak eta garagar sailak. Euri giroa zekarren iparrak.

– Zergatik ez dugu mokadu bat jaten? –proposatu zuen Luisek.

– Ama hamaiketako mezetara joaten duk. Aldez aurretik eman nahi zioat pakete hau –Irenek prestatutakoa erakutsi zion Martinek.

Ama hitza ahoskatzeak bere baitan sortutako oihartzunaz jabetu zen Martin. Arrunt gutxitan erabiltzen zuen ama hitza, arrunt gutxitan egoten zen-eta Aranaratxeko amarekin. Orain bi zeuzkan, Iruñekoa

eta herrikoa. Edo beharbada, ez zuen ama bakar bat ere?

Jaitzeko gatzagetara heltzear zirela txapelgorri multzo bat ikusi zuten bide bazterrean. Martinek moteldu egin zuen abiadura.

– Lizarrarako asmorik bai arratsean? –galdetu zion Luisek.

– Ea zer dioen Pedrotxok. Gaur akitu nahiko dik jeepen atontzea. Nik bederen, ez diat Lizarrarako txirrinta kendu beharrik. Hik?

– Izeba Paula gozatzearren. Sesioa jasan beharko diat bestela.

– Igual gaur bertan izanen duk errieta. Piura horrekin Falangera pasatu haizela pentsatuko dik –trufatu zen.

Abartzuza igaro eta eskuineko kamioa hartu zuen. Bakea ematen zion paisaia hark, haurtzarora itzultzea zen neurri batean. Eraulera iritsi aitzineko lepoan, laguna larri zetorrela-eta, enbor lodiko arte oker baten ondoan gelditu ziren. Hantxe hustu zuen maskuria Luisek.

– Hau al da Concha jeneralaren artea? Muruko batailakoa?

– Hori izanen duk, bertakoek milurtekoa esaten ziotek.

– Aitak inoiz kontatu didanez –esan zuen Luisek brageta ixten ari zela–, gure birraitatxik Concha jenerala zauritu zian bataila hartan.

– Gureak, berriz, beso bat galdu zian hor –Martinek Eraul eta Etxabarri arteko muinoa seinalatu zuen.

Presa zuen heltzeko, baina Luisekin ez zitzaion erraza. Eraulgo portua jaitsita, Urbasarako bidean, goseak heldu zion:

– Martin, Larriongo ostatua...

– Loinen aroztegia.

– Geratuko al gara? Mokadu bat sikiera...

– Utz ezak Larrion beste baterako. Dena bukatzen denean izanen diagu parada Aste Santuan egin genuen afari legea errepikatzeko.

Era guztietako generoa biltzen zuen Pedrotxok Urbasan. Beste batzuen gisara, zizez hornitzen zituen inguruko tabernak eta jatetxeak.

Ez zuten ia trafikorik aurkitu goranzkoan. Lizarrakorantz, aldiz, etengabea zen kotxeen emaria. Zudairi ondoren, karlisten autobus batekin topo egin zuten Ameskoa goiengo gurutzean. Martinek jeepa gelditu zuen autobusak maniobratu bitartean.

– Berandu zabiltzak gurutze-biderako.

– Gu gaituk garaiz ez gabiltzanak –Martinek bizkortu egin zuen abiadura, atzeko gurpilak doi bat lerrarazirik.

Arimarik ez Eulaten. Mezatan izanen ziren herrian geratu zirenak. *Aranarache* iragartzen zuen kartelaren aldamenean aparkatu zuen Martinek, ondoan zegoen ama bizi zen etxea.

– Hau duk tenorea! –zakar hartu zituen emakumeak.

– Ezin lehenago heldu. Kotxe ugari dabil. Irenek pakete hau eman dit zuretzat. Eta orain Pedrotxorengana joatekoak gara.

– Utzi jangelan. Ni presatuta nabilek –elizako ezkilaren deia entzun zuen emakumeak–. Banoak.

Urbasarantz igotzen hasi eta ezkerreko bidexka batetik jo zuen Martinek.

– Nora hoa?

– Pedrotxo Remigiorenean ote dagoen begiratuko diagu.

Ehun bat metrora, estalpe handi bat zegoen ordoki batean, haritzak zituela inguruan. Aise ezagutu zuten Remigioren kamioi zaharra, zenbait parte faltan

zituela. Hertsirik zen itxuraz eraikina, baina mugimendua sumatzen zen barnean. Berehala ireki zieten.

– Txerrenek egun on! –gizon gihartsu bat agertu zen atalasean–. Heldu zarete-eta!

Remigio eta Pedrotxo izanen ziren mezatara huts egiten zuten bakarretakoak inguru hartan. Mendian ustez beharrean jarduteak salbuesten zituen ofizioetatik.

Ebatsi zuten kamioi berriaren aitzinaldean ari zen Pedrotxo.

– Zaharraren ikurra paratu diot.

– Dotore dago –esan zuen Luisek.

– Zer moduz joan da maleten trukea?

– Egina –erantzun zion Martinek–. Eta trukea ez dena ere bai. Gero kontatuko diat.

Gazta eta ardoa atera zien Remigiok.

– Zein da gaurko plana? –Martinek Pedrotxoren eskuetan utzi zuen zahatoa.

– Kamioia ia prest zagok, ezin diagu askoz gehiago itxuratu. Nire jeeparen atontzea bihar akituko diat.

– Eta gurea?

– Zuenak ez dik presarik. Orain badarabilzue Komandantziakoa. Soldadutza akitzen duzuenerako

prest egonen duk. Momentuz paperak jeep batendako bakarrik atxiki ditiat.

– Gestoriako Hartzarekin egon haiz orduan.

– Bai.

– Eta?

– Arazorik ez. Baina dena legeztatzeko beste ibilgailu baten baja behar diagu –azalpenak eman zituen Pedrotxok–. Remigioren kamiona eta nire jeep zaharra bi ibilgailu dituk, beste baten paperak feriatu behar ditiagu zuena sakramentu guztiekin martxan jartzeko. Baja emanen duen jabeari ere zerbait eman behar zaiok. Eta gainera, guardia zibilen hozka aintzat hartu...

– Eta zer abizen du horrek guztiak? –diruen kontabilitatea egin nahi zuen Martinek.

– Milako batzuk. Hartzak eginen dik dena, baita txapelokerrekikoa ere.

– Hori ez duk galduko, ez!

– Judua beti judu.

Martin estalpeko atera hurbildu zen. Remigio eta Luis ikusi zituen kanpoan kamioi zaharraren lohi-babesa askatzen.

– Eta zenbat emanen digu Remigiok? –galdetu zion Pedrotxori.

– Gestoriako eta Uranga tailerreko zorrak kitatzeko lain.

– Gutxi duk hori.

– Guk sartu genian afera honetan, ez zian berak bilatu. Pozik egon hadi, zerbait emanen ziguk.

– Remigio irabazten atera duk gisa guziz.

– Ez hadi zekena izan! –gaitzetsi zion Pedrotxok–. Eta gureaz, zer? Ez didak ezer kontatu behar trukeaz?

Billete multzoa atera zuen praketatik Martinek.

– To, hor dauzkak hogeita hamar mila duro.

– Zenbat zegoen denera? –Pedrotxok sorta eskuratu zuen.

– Hori duk hire partea.

– Beste horrenbeste al daukazue zuek?

– Luisek bai. Nik oraindik ez diat deus ere hartu.

– Ez adarrik jo niri!

– Tira, bai, bazagok gehiago. Diru horretatik gestoriakoa eta Urangarena ordainduko dituk hik, aski eta sobera daukak. Eta osorik hiretzat izanen duk Remigiok emanen duena. Gure jeepa prest dagoenean eginen ditiagu kontu guztiak.

– Baina esan behar al didak zenbat zegoen?

– Ez diat dena zenbatu.

– Kilo bat?

– Hortxe, hortxe.

Pedrotxok zaplada bat eman zion bizkarrean.

– Amerikarrek ezer jaso al dute?

– Horiek ederki ordainduta zaudek.

– Beraz, ez gaituk Luis eta biok izan zatiren bat hartu dugun bakarrak...

– Amerikarrek espeziean jaso ditek ordaina.

– Konforme geratu dira Josefaren jatekoekin eta Casa Marinako libertimenduekin?

– Zabaletaren txaleteko sotoan zeuden artelanak eraman ditiztek.

– Koadroak ordain saritzat?

– Bai. Ez henbilen sobera desbideraturik Uranga tailerreko aparkalekuan Domezainen interesaz galde egin hidanean.

Martinek hasi eta buka azaldu zion koadroen afera lehengusuari. Kontakizuna luzatu ahala harridura, lilura eta poza tartekatu ziren Pedrotxoren bisaian.

– Aluak! Tira, igual horrela hobe.

– Ez zakiat zer esan, ihes egiten zidak artelanen balioak. Hori bai, koadro bat utzi zigutek, Basiano jartzen duena sinaduraren tokian.

– Kotizatua duk gurean!

– Hura utzi badigute guri, ez diat jakin nahi zer balio izanen duten eraman dituztenek.

Estalpeko atea zabaldu zen. Lohi-babesaren mutur bati heltzen zion Luisek eta beste muturrari eutsiz zetorren Remigio atzetik.

– Hauxe da azkena. Aukeran txiki samarra, baina moldatuko gara ongi gera dadin. Lohi-babesarengatik ezagutzen dute nire kamioia.

– Gutxi fida txapelokerrekin –Martinek sorbalda mindura eraman zuen eskua–. Ipurtzuri horiek zerbait galdetuko dizute.

– Bai Ameskoan bai Kongon, berde zein zuriekin mondongo!

Denek irri egin zuten Remigioren ateraldiarekin.

Eguerdiko ordu bata irian amaitu zuten lohi-babesaren moldatzea. Piezak ez zuen aurrealde osoa betetzen, betiere ongi eusten zion. Koipez zikindutako eskuak garbitzera alde egin zuten Luisek eta Remigiok.

– Gurera al hator bazkaltzera? –galdetu zion Martinek Pedrotxori.

– Hire amaren etxera? –lehengusuak ez zuen ulertu Martin gaiztoz ari zela.

– Noiztik hekien ez dela nire ama?

Pedrotxok sakonetik hartu zuzen arnasa.

– Txikia nintzela sesioan harrapatu nitian izebak, sei bat urte edukiko nitian. Hire aita hil zorian zegoan, atakea eman zionetik hilabete bat ohean geldi. Hi ibiltzen hasia hintzen, jostailu bat hintzen niretako, jostailua eta lotura. Arratsaldero eskola ondoren joaten ninduan zuen etxera. Izeba Irene arrunt gutxitan etortzen zuan herrira, ordukoan hiletaren bat kari izanen zuan. Ni hire loa zaintzen ari ninduan bazkal ondoan, huraxe zuan nire zereginetako bat. Hi lo utzita, sukaldetik zetorren sesioak erakarri nindian, ganbarako eskaileretatik entzun nian. “Puta!” izan zuan izeba Txarorengandik aditu nuen gozoena, eta tarteka izeba Ireneren negar zotinak. Denborarekin ulertu nian izeba Txaroren haserrearen arrazoia.

– Ni al naiz hau guztia ez zekien bakarra?

– Konturik ez duk atera gure etxeetako hormetatik landa.

– Eta aitak zer zioen?

– Gure aita bere anaiaren ifrentzua zuan. Gureak men egiten zioan zuen aitak esandako guztiari. Hire aitak ez zian neurririk.

– Eta honetaz inoiz mintzatu al haiz nire anai-arrebekin?

– Zerbait jakinen ditek, baina nik ez zieat sekulan ezer aipatu. Badakik, hi haiz nire lehengusu kutuna.

Remigioren eta Luisen kalakak iristen ziren estalpe kanpotik.

– Gozatu ezak hire ama –esan zion Pedrotxok–. Izeba Irene bezalakorik ez zagok familian.

Kanpokoen solasa gero eta gertuago aditzen zen barnetik. Remigio sartu zen aurrena estalpean:

– Gaur ere otordua irabazi dugu. Bazkaltzeko asmorik?

– Amarenera joatekoak gara –erantzun zion Martinek.

– Eta hik, Pedrotxo, lagunduko al didak Eulateko ostatura?

– Ez da plan txarra.

– Nire kontura Eulateko bermuta! –esan zuen Remigiok–. Eta gero nahi baduzue, etxekoak egindakoan, heldu zaitezte guregana, ez da mus partidarik faltako.

– Lizarrarako asmotan gaude –esan zuen Martinek, Luisi begira.

– Hala txapeloker nola txapelgorri, buruan hazka egin eta mila zorri!

Algaren oihartzuna Aranaratxeko herri kaskoraino iritsi zen.

30

–Martini bana, ezta?

Gazteek ameto eman zuten buruarekin.

Mahai baten bueltan bi agure ziren Eulateko ostatuan. Artean itxita zegoen jantokiko atea, baina barazki usaina iristen zen sukaldetik. Remigiok zerbitzaria agurtu zuen. Laurak barran zirelarik tangaren asotsa entzun zen komunean eta, segituan, gizon bat irten zen.

– Hara, osaba Jeronimo! Zer moduz zaude?

– Orain hobeki. Eta zuek nolatan hemen?

– Aspaldiko partez, badakizu, igandea da-eta –esan zion Martinek–. Begira, Luis, hauxe dugu osaba Jeronimo.

– Urte askotarako.

– Iruñeko lagun bat da Luis, elkarrekin gabiltza Unibertsitatean.

– Zuek beti estudiatzen deus ere ez ikasteko.

Remigiok eskuan zeukan diru-zorroa.

– Zer hartu behar duzue zuek?

– Etxerako asmotan ginen, baina atera guri basoerdi bana.

– Orduan, hiru basoerdi eta lau martini –eskatu zuen Remigiok denentzat–. Oliba batzuk ere bai.

Zerbitzariak bere denbora hartu zuen. Bi aizkolariren argazkia zegoen botilen apalean; Martinek bietako bat ezagutzen zuen, nahiz eta izena gogora etorri ez.

– Zer? –Remigio adarra jo nahian ari zitzaion Jeronimori–, ez zara Lizarrarako animatu?

– Oraindik ez diat burua galdu.

– Ba bi gazte hauek bai, joatekoak dira.

– Egin dezatela nahi dutena. Aski gurutze-bide eduki genian bere garaian. Ni ez naitek bi aldiz engainatuko.

– Ikusiko duzue –Remigiok zealdo plantak egin zituen–, gehienak arrailduta itzuliko dira Lizarratik.

– Arratsaldean ez naute hemen harrapatuko –esan zuen osaba Jeronimok–. Oraindik nor direla uste dute, eta gaurkoa bezalako egunetan txapela buruan jarri eta kaskoa berotzen diete. Total, arrastoan segi dezaten.

– Goazen bazkaltzera –despeditu zen Remigio–. Gero, nahi baduzue, mus partida bat botako dugu.

Pedrotxo haren gibeletik sartu zen jantokian. Jeronimok mahaiko bi agureak agurtu ondotik, Luisekin

eta Martinekin irten zen tabernatik. Kopilotuaren tokia utzi zion Luisek.

– Aizu, osaba –berehala galdegin zion Martinek–, zer egin zuen Fonsecak deia jasotakoan?

– Norabait hots egin zian. Luze eta sutsu aritu zuan hizketan, baina ez nian ezer konprenitzeko modurik izan; “Goizaldean, goizaldean” errepikatzen zuela, besterik ez.

– Eta deia akitutakoan?

– Deus ere esan gabe alde egin zian, aparkalekutik beherantz.

Aranaratxeko frontoi aldamenean aparkatu zuen Martinek. Ez zioten erreparatu izkina batean zegoen pintadari.

– Kasu eman, ez ibili jolasean Fonsecarekin! –gaztigatu zion osabak.

– Lasai. Baina zuk belarriak tente.

– Hori beti.

Latsarritik gora desagertu zen Jeronimo. Bakarrik bazkalduko zuen. Aitaren aldetiko osaba gazteenak mendia eta ardoa zituen bizio bakarrak. Honek ere jakinen zuen bi ahizpen artekoa, azken batean Txaro eta Irene, biak ala biak koinata zituen. Pedrotxo kenduta,

Jeronimo zen familia hurbileko fidagarriena Martinen begietan.

Etxean mahaia prest zegoen lau lagunendako.

– Eta Pedrotxo? –Txarok botila ardoa paratu zuen–. Ez al da zuekin etorri?

– Bazuen beste plan bat...

Ia isilean eman zuten otordua hirurek. Baba gorriak jan zituzten, eta gero txahal xerra birrineztatuak piperrekin. Luis ez zen gose geratu. Pitxer bat natilla ekarri zuen Txarok. Mahai ondoko komodaren gainetik hautsontzia hartu zuen Martinek, Luisek zigarreta bat erre zezan. Eta horrelaxe bukatu zen bisita.

– Kaferik hartuko al duzue?

– Ez. Luisek Lizarran behar du arratsalderako.

– Ados –platerak batu zituen Txarok.

Bi gazteak mahaitik altxatu ziren.

– Hago! –agindu zion emakumeak–. Otarre bat eraman behar duk bueltan.

Aldi berean ama eta izeba zen Txaroren eskua ferekatu zuen Martinek otarrea hartzean, baina nahita egin ote zuen ezin jakin.

– Hurren arte.

– Bai, hurren arte.

– Mila esker bazkariarengatik –Martinek emakumearen masaila bilatzeko imintzioa egin zuen.

– Ez da zeren –eskua luzatu zion Txarok.

Lizarrarako errepidean, Jurramendiko gurutze-bidetik zetorren trafikoarekin topo egin zuten. Nahaste-borrastea zegoen leku guztietan; istripu txiki bat ere bai: auto batek motoa jo zuen, edo alderantziz.

– Zer dakigu gure jeep berriaz? –galdetu zion Luisek.

– Pedrotxok esan didanez, udarako edukiko diagu sakramentu guztiekin.

– Dirurik eman al diok?

– Hik adina jaso dik.

– Eta gainerakoarekin, zer?

– Gastu guztiak berdindutakoan ikusiko diagu.

– Egin ditzagun gauzak garbi –nabari zen Luis ez zela konforme.

– Duela astebete nork esan behar zian hiri jeep bat eta hogeita hamar mila duro edukiko hituela?

– Ez nauk kexu.

– Ba eman ezak bakea behingoz. Eta fida hadi nitaz.

– Ez diat beste erremediorik.

Luisek begiak itxi zituen kuluxka bat egiteko. Martin usu baino astiroago gidatzen ahalegindu zen.

– Zer plan daukak Lizarran?

– Ez diat planik –begirik zabaldu gabe jarraitu zuen Luisek–. Giroa ikusi, besterik ez. Izeba Paula edo aita ez ikusita ere, berdin zaidak. Bihar kontatu ahal izanen zieat bederen San Juan plazan egon naizela arratsaldean.

Zalduko gurutzera iritsi eta zezen plaza aldera jo zuen Martinek.

– Ez al duk kuartelean aparkatu behar?

– Utikan kuartela! –esan zuen Martinek–. Zer gerta ere, hobe horiengandik urruti.

– Gu ere horiek gaituk.

– Ez. Gu, gu gaituk. Ez atzendu inoiz, Luis.

31

Lizarran zezen plaza ondoan aparkatu zuten. Entrañas aldaparen hasieran geratu eta ibai aldera begiratu zuen Martinek. Egaren emari biziak bereganatu zuen gaztearen soa. Luis lagunarengana itzulikatu zen:

– Zer ari haiz hor geldi?

– Barrandan.

Martinek ibai ertzeko etxetzarraz ohartarazi zion. Ibilgailu berde andanak inguratzen zuen Guardia Zibilaren kuartela.

Entrañasetik sartu ziren Santiago plazan. Mariano taberna jendez mukuru zen San Juan elizako ezkilek arratsaldeko laurak jo zutenean. Kafe huts bana hartu bitartean arreta erakarri zieten *El Pensamiento Navarro* kazetaren lehen orriko bi argazki handiek.

– Ostia! Lehengo eguneko pintada duk hori, ezta? –esan zuen Luisek–. “GORA Dn CALO, firmo yo”.

– Edo kale egin zitean ortografiarekin –zuzendu zion Martinek– edo guk izutu genitian jeeparekin pasatu ginenean.

Albiste labur bat ageri zen bi argazkien aldamenean: “En la Calle Aralar. Tres disparos al aire”.

– Atzo Iruñean izandako tiroez ari duk. Nonbait gizonezko baten atzetik ari zituan, baina atxiki ez.

– Terroristaren bat izanen zuan...

– Edo gu baino ebasle premiatsuago bat.

Tabernatik irten eta Kale Nagusitik abiatzear zirela, jende multzo batekin topo egin zuten. Ia karrika osoa hartzen zuen alderik alde pankarta batek: “Franco: Ya lo ves, el Carlismo con los Borbón-Parma”. Ez baitzegoen erdialdera sartzerik, San Juan plazaren sarrerako ezkerreko arkupean geratu ziren Martin eta Luis. Han ere zailtasunez mugitzen zen jendea, txapel gorriz gehienak, txapel zuriz gutxi batzuk. Kioskoaren inguruan pankartak astintzen ziharduten; haietarik nabarmenena: “Franco a la horca”.

– Iaz Javier gure erregea Espainiatik kanporatu zutenez gero, ez zaudek gozo diktadorearekin.

– Ze errege eta ze kristo! –erantzun zion Martinek–. Burua galdu al duk hik ere?

Kea zerion plazari, su bat piztu zuten kiosko aldean. Hiru gaztek koadro bat altxatu eta garretara bota zuten. Beste batzuk harri kozkorrekin zetozen goiko arkupeetatik, erasorako prest. Kristal hautsien asotsa

entzun zen plazako hainbat tokitan. Jendearen oihuek tentsioa areagotu zuten.

– Goazemak! Hemen ez zagok giro.

Oñati kaletik barrena utzi zuten San Juan plaza, eta lasaiago zegoen Santiago plazara itzuli ziren. Eskuineko arkupeetan, mahai luze baten inguruan eserita zen taldean, Luisen aita aurkitu zuten; gizon sendo bat, mendiko bota handi batzuk zeramatzan.

– Hara berantiarra!

– Bahituta gauzka Unibertsitateak. Martinekin etorri naiz.

Gizonarengana hurbildu zen ameskoarra. Bostekoa eman zioten elkarri. Pattar hutsa zen haren hatsa.

– Izeba ez al da zurekin? –galdetu zion semeak.

– Hor zehar ibiliko duk. Maria Teresak eskua eman diola-eta, ezin kabiturik zabilek.

Solasak ez zuen gehiagorako eman. Inork ez zuen interesik luza zedin, inork ez baitzuen esateko ezer, are gutxiago Luisen aitak. Zertarako hizketan segi deus ez esateko? Batez ere Kaldereriatik txapel zuriz apaindutako dozena bat margarita hurbiltzen ari zenean, eta haien artean izeba Paula.

– Heldu zarete!

– Bai, baina ez dakigu zertara –esan zion Luisek.

– Gu ere bagoaz! Hemen ez dugu zereginik! –purrust egin zuen andereak–. Gazte buruarin horiek!

– Ba zuk mugiarazi beharko duzu aita, baina *Oriamendi* abesteko puntuan dira kuadrillan.

– Zer iskanbila! Zuek ere hobe zenukete Iruñera itzultzea.

Anaiaren mahaira joan zen izeba Paula. Jeepa utzia zuten zezen plaza inguruarantz joan ziren bi gazteak. Sorbaldara eraman zuen eskua Martinek, ez zitzaion mina arintzen. Entrañas aldapan berriz ere, Ega ibaiaren aldera begira geratu zen: guardia zibil saldoa zegoen kuartel ondoko zubian, formazioan, berrogeita hamar bat.

– Ez zirudik trafikoa zuzentzeko plantan daudenik.

– Horiek ere erasorako prest!

Kotxe ilara astiro zihoan errepide nagusitik. Zubi parera iritsitakoan gelditu egin behar izan zuten, kuarteletik geltoki aldera errepidea zeharkatzen ari baitziren txapelokerrak. Trafikoa zuzentzen ziharduena ezagutu zuten. Fonsecak aurreneko kotxeei pasoa eman zien, baina Armadako jeepari erreparatu bezain laster altxatu zuen eskua.

– Hara nortzuk ditugun hemen! Non zineten gaur eguerdian? –esan zuen guardia zibilak–. Tira, segi bazterrera!

Errepide nagusiaren eskuinaldean aparkatu zuen Martinek. Fonsecak beste kide bati trafikoa zuzentzeko agindua eman eta gazteengana heldu zen.

– A ze marikoiak Armadako hauek! Eguerdian ez zarete kapaz izan artaburu hauek gelditzeko Lizarran sar ez zitezen! Eta orain lan zikina guretzat!

– Bestelako zereginak genituen guk –xalotasunez erantzun zion Luisek–. *Patton* filmaren grabazio lanetan laguntzen dihardugu.

– *Patton*, bai, marikoikeriak! –Fonsecak Martini tinkatu zion begirada–. Eta hik zer, ez al daukak mingainik?

– Agintarien mandatuak bete besterik ez dugu egiten.

– Zuen agintariak! Kakatzarra! Esaiek muga ez dela filmazio tokia. Esaiek hori ez dela haien eremua.

Jeepa miatzen hasi zen Fonseca, atzealdeko otarrea zabaldu zuen, eskuan hartu zuen zizez betetako beirazko potea.

– Filmazioko produktua al da hau?

– Ez, jauna –esan zuen Martinek.

– Nora zoazte?

– Iruñera itzuli behar dugu lehenbailehen.

– Zertara?

– Gaurkoaren berri eman behar dugu.

– Segi aitzina, zerriak!

Zizak konfiskatu eta ilaran sartzeko bidea eman zien Fonsecak. Aurreraxeago geltokiranzko bidean ezkerraldean guardia zibilen multzoa ikusi zuten hiriaren erdigunera hurbiltzen; eskuinean, aldiz, berebizikoa zen jendearen mugimendua aparkaturik ziren autobusen inguruan. Kosta egin zitzaien Lizarratik irtetea, Luisek tarteka biraoren bat botatzen zuen guardia zibilen kontura, bereziki Fonsecaren kontra. Hiltegi parean foruzainak ari ziren trafikoa zuzentzen. Hortik aitzina karabanan egin zuten Gareseraino. Han ordu laurden bat geldirik egon behar izan zuten metalezko zubian.

Ilunabarra zen Iruñeko aldirietara iritsi zirenerako. Martinek leihatila jaitsi zuen laguna lozorrotik atera zedin.

– Itxi ezak hori!

– Izebarenean utziko haut, ezta?

– Bai, txikituta nagok. Egun gogorrak izan ditiagu.

Apaiztegitik sartu ziren Baztan kalean. Izeba Paularen etxera heldu baino lehenago gelditu zuen jeepa, motorra martxan.

– Hemen utzi behar al nauk?

– Zabaletaren Seat beltza zagok hor!

– Eta zer egin behar duk, hemen zelatan geratu?

– Ez, banoak. Hik zainduko duk, ea bakarrik dagoen, edo militarrekin, edo Estherrekin, Almandoztik bueltatu baldin bada.

– Bai, to! Ni ohatzera noak. Ezin diat gehiago.

– Hoa goiko pisura eta begiratu leihotik. Dirua ebatsi zieagu eta orain maleta hutsarena nola hartu duten jakin behar diagu.

– Ziur pozez zoratzen ari direla.

Zain geratu zen Martin harik eta Luis txaletean sartu arte. Biharamunean Komandantzian ikusiko zuen Gendulain; litekeena zen Goñi lotinant-koronela ere han izatea. Zabaleta noiz itzuliko ote zen Madrilera? Alde batetik ez zitzaion batere inporta; gertatuak gertatu, hobe horiengandik urruti. Baina bestalde jakin-minak barruak kiskaltzen zizkion: zer gertatu ote zen goizean?

Autobus geltokitik igaro zen etxerako bidean. Han ere guardia zibilak zebiltzan Armadak hustu berriko

Kuartel Zaharraren inguruan. Mendi ostatuaren parean aparkatu zuen. Loa, sorbaldako mina eta gosea, denak batera etorri zitzaizkion Txarok emandako otarrea atzealdetik ateratakoan. Astiro igo zituen eskailerak, argia piztuta zegoen sukaldean, korridorean utzi zuen otarrea, balkoiko logelara joan zen, maleta hartu zuen ezkutatu zuen tokitik. Ireki ez ireki egon zen une batez. Azkenean maleta bere tokian utzi, korridorea zeharkatu eta sukaldean sartu zen.

– Gabon.

– Gabon, bai.

– Hauxe eman dit Txarok –Martinek harriaren ondoan ipini zuen otarrea.

– Ongi da. Zer moduz? Lizarran egon al zarete?

– Itzuli bat eman dugu arratsaldean. Zer moduz zure aldaka?

– Hor da, hobeki. Ezer afaldu nahi al duzu?

– Ez, ohatzera noa. Bihar egun luzea dut.

Logelan berriz, maleta zabaldu zuen. Zortzi billete multzoei begira geratu zen, berandu baino lehen banatu behar lituzkeela erabaki zuen. Gendulain kapitainaren bisaia irudikatzen ahalegindu zen. Pete Domezaini ulertu zionez, Armadaren parte-hartzea ia akitua zen filmazioan, hurrengo egunean teorian zeregin be-

rriak aginduko zizkieten eta, ohi zen gisan, zerbait antolatuko zuen berak iskin egiteko. Maleta ezkutatu, argia itzali, ohatzean biluzik sartu eta Giselerekin gogoratu zen.

32

Gauza gutxi izanen dira kafe urrinak esnatzea baino ederragorik, baina Martinek ez zekien esnatu ote zen urrinarengatik edo asteko loaldi luzeena eginagatik gorputza ohitu gabe zuelako. Maiatzaren 5eko goizeko zortziak ziren, astelehenarekin.

– Kalera al zoaz?

– Estherri lagundu behar zioat. Ea nagusiak nola utzi duen txaleta, arroparik ba den garbitzeko, eta halako kontuak... Etorriko al haiz bazkaltzera?

– Baliteke. Gaur ez da filmaziorik.

– Gero arte orduan. Prestatuko diat espero ez duan zerbait.

Martinek piper-opil bat busti zuen kafetan. Bizkorturik sentitzen zen, astebete zeraman zazpi orduko loa gozatu gabe. Zoko batean zeuden botei distira ateratzeari ekin zion gero. Zartaturik zeukan lokarri bat, eteteko zorian.

Komandantziarako bidean anbulantzia bat ikusi zuen eraikinaren ondoko eremutik irteten. Gainerakoan, ohiko mugimendua zebilen sarrera aldean. Atariko

guardiakoei aginduzko agurra egin eta bulegora joan zen zuzenean. Baina han, ezustekoa.

–Zer egiten duk hik hemen horren goiz? –Martinek ezin zuen sinetsi Luisek aurrea hartzen ahal ziola–. Arazoak ala?

– Itxi atea eta eseri hor.

– Ezer onik ez...

– Atzo izebarenera iritsi eta, hik agindu moduan, leihotik txaleta zelatatzen jarri ninduan. Argi guztiak piztuta zeudean.

– Bai, Zabaletaren kotxea ikusi genian.

– Tarteka oihuren bat aditzen zuan, baina ez nian deus ere entelegatzen. Horretan nengoela, izeba zetorrela ikusi, leihoa itxi eta eskailerak jaitsi nitian. Izeba Paula bere gelan sartu zuan.

– Labur eta aratz, mesedez –Martin gaixotu egiten zuten Luisen detaile ezdeusek.

– Hago, hau da-eta garrantzitsuena. Etxeko txirrina jo zitean. Izeba arropaz aldatzen ari zenez, nik zabaldu nian atea.

– Eta?

– Esther zuan. Bestelakotuta zegoan. Izeba Paulaz galdegin zidaan. Itxaroteko esan eta egongela txikira lagundu nioan. Almandoztik heldu berria ote zen gal-

detu nioan, eta berak baietz. Baina gaur edo atzo? Eta berak: arratsean. Monosilaboekin ari zuan, garbi zegoan arranguraren bat zuela barnean...

– Esan ezak behingoz esatekoa, Luis!

– Izeba Paulari galdetu zioan ea larunbatean txaletean ezer arrarorik sumatu zuen. Izebak ezetz. Almandoztik heldu eta nagusia bere onetik aterata kausitu omen zian, txaletean lapurrak ibili zirela errepikatzen omen zian Zabaletak behin eta berriz. Izeba Paulak zerbait faltan ote zuten galdetu zioan, baina Estherrek ez zian erantzuten jakin.

– Ez al zekien ba?

– Auskalo. Agian bazekian, baina ezin ezer esan.

– Eta hori al da dena?

– Bai.

– Hor bukatu zen bisita?

– Ez. Estherrek alde egin aurretik, aipatu nioan larunbat iluntzean tiroak izan zirela, esnatu egin nindutela desarrek, *El Pensamiento*k atzo bazekarrela albiste txiki bat...

– Bizkor ibili hintzen. Bikain, Luis.

Baina orduan Martini ere bizkortu egin zitzaizkion kezkak. Arrastoren bat topatu ote zuten sinfonierrean?

Ohartu ote ziren koadroak ere desagertu zirela sototik? Nola jakin?

– Joan hadi Gendulain kapitainaren bulegora, ea zer giro duten.

– Akort.

Luisek alde egin eta hausnarrean segitu zuen Martinek. Bazekien nora deitu behar zuen gertatutakoaren berri izateko. Zabaletaren etxeko zenbakia bilatu zuen telefono-gidan.

– Bai esan? –Estherrek hartu zuen.

– Egun on. Martin naiz, Ireneren iloba. Izeba hor al da?

– Bai, segituan jarriko da.

Martinek bazekien zer nahi zuen Irenerengandik, baina ez zekien nola esan.

– Zer gertatzen da, Martin?

– Ezer ez. Komandantziatik deitzen dizut.

– Zerbait bai, hona hots egiteko.

– Fabore bat eskatu behar dizut. Eta ez dut inor enteratzerik nahi. Estherrek ere ez du ezer sumatu behar. Izan ere, Estherrek zerbait kontatuko zizun atzo hor gertatutakoaz...

– Nola ez ba!

– Zeren falta nabaritu duten enteratu behar duzu. Eta ezer arrarorik sumatu ote duten ere bai.

– Ongi da.

– Eta azkenik, disimuluan sukalde ondoko biltegira joan eta ikus ezazu ea zoruan dagoen tapiza bertan ote dagoen.

– Saiatuko nauk.

– Mila esker.

– Orduan bazkaltzera etorriko haiz, ezta?

– Bai. Gero arte.

Arriskutsua zen egindakoa. Bazekien Irenek ez zuela irrist eginen, ez zuela soberazko hitzik esanen, ez zela behar ez zuena galdetzen hasiko, eta era berean bazekien ez ziola eskatutakoarengatik kargurik hartuko. Baina arriskutsua izan zitekeen.

Bien bitartean, Gendulain kapitainaren bulego inguruan zer giro zegoen aztertzetik itzuli zen Luis, albiste bereziekin.

– Gendulainen arrastorik ez –esan zuen–. Baina Goñi lotinant-koronela ikusi diat. Gendulainen bulegotik atera duk ni heltzen ari nintzela. A ze matxura duen! Burua bendaz estalita zaramak. Istripua izan zitean mendialdean!

Beraz atzokoa handia izan zela pentsatu zuen Martinek. Zabaletaren haserrea, Goñiren kasko hautsia eta... Gendulain falta Komandantzian. Puzzlea osatu behar zuen. Ez baitzuen ahaztuta Fonseca guardia zibilak Lizarran esandakoa: muga ez omen zen militarrentzako eremua. Garbi zegoen Fonsecak bazuela mugaldean gertatutakoaren berri. Arrainak ongi heldu zion amuari. Ez alferrik erabili zuen Gisele Joana ohartarazteko. Eta La Campanatik Martinek berak egindako telefonoa deia.

– Gendulain ospitalean zagok! –argitu zion Luisek–. Bere bulegoko idazkariak kontatu zidak: laino itxia zegoan, bidetik atera zituan eta enbor baten kontra jo zitean. Istripuan Gendulainek izan dik parte txarrena. Oraintxe iritsi duk garabi bat patiora, haien jeepa mailaturik dakarrela.

– Badaezpada Goñi zelatatu behar duk, hori ez daeta geldirik egonen. Gera hadi bulego ondoko korridorean. Norbaitek ezer galdetzen badik, esaiok aste honetako aginduen esperoan hagoela. Eta batez ere Gendulainen osasun egoerari buruzko kezka adierazi beti. Inork ez dik susmorik hartuko, azken batean kapitaina duk gure agintari zuzena.

– Konforme. Baina iluntzean berriz elkartuko al gara?

– Maisonnaven edo Campanan, zortziak aldera.

33

Doi bat aitzinatzearren unibertsitateko lana, Komandantziako liburutegian alferkerian galdu zuen goiz partea Martinek, jakinki ez zuela deus eginen, beste toki batean zeukalako gogoa. Gelak ez zuen argi naturalik, karratua zen; erdian mahai luze bat, hormak apalategiz beterik. Bigarren Mundu Gerrari zegozkion hiru liburu hartu zituen. *A soldier's story of the Allied campaigns from Tunis to the Elbe*, by Omar N. Bradley, 1951. *Wings for Peace*, by Bonner Fellers, 1953. *The Rommel Papers*, by Basil H. Liddell-Hart, 1953. Aurkibideak begiratu zituen, ohartxo batzuk hartzen hasi zen, irakurri zituen hiruretatik pasarte luze bana, aspertu egin zen, laster tripa-zorriak eginen zitzaizkiola gaztigatu zion erlojuak, alde egin zuen Luisen bila, ez zuen inon kausitu, eta etxera joan zen presarik gabe.

Ohe azpian utzia zuen maleta beste nonbaiten ezkutatzea otu zitzaion. Baina non? Irtenbideren bat eman beharko zioten dirutza hari. Ezin zuten Aurrezki Kutxara joan eta leihatilakoari esan, "Egun on! Milioi bat sartu nahi dut nire kontu korrontean, hemen daukazu" . Diru garbia izanen balitz ere, susmagarria za-

tekeen. Bestalde, kantitate handiegia zen Euskal Jai frontoian garbitzeko; Raul lesionaturik zegoen gainera, baina ongi pentsatuta, erremontista ez egotea aukera bikaina ere izan zitekeen. Koltxoipean sartu zuen dirua, iritsiko zen partiketak egiteko tenorea.

Santo Domingoko azokatik heldu zen Irene, bi poltsarekin.

– Goiz habil.

– Gaur ez didate mandaturik eman.

– Hasi mahaia jartzen, bazkaria ia prest zagok.

– Zer daukagu?

– Orburuak txirlekin, hire gustukoena.

– Mila esker, ama.

Martin bera harritu egin zen Ireneri lehen aldiz “ama” esan ziolako inpentsan. Emakumeak ez zuen esperoko, baina ez zuen zirkinik egin. Jaten hasi ziren.

– Zer moduz Esther?

– Ongi ez. Eta Zabaleta bere onetik aterata.

– Zer dela-eta?

– Ezin diat argibiderik eman. Giro txarra zegoan txaletean. Sukaldeko desmasiak garbitu eta itzuli egin nauk. Lapurreta izan dela asteburuan, hori bakarrik jakin diat. Zezenaren pare ibili duk marruka, gauzak falta omen dituk sotoan.

– Eta Madrilera joan al da?

– Martin... zertan zabiltzate?

– Kontatuko dizut bihar. Orain neska batekin geratu naiz kafea hartzeko, iluntzean afaria daukat amerikanoekin, eta berandu ailegatuko naiz gauean.

Martin berriz harritu zen bere buruarekin, lehen aldia zelako Ireneri neska konturik agertzen ziola.

– Hoa ba. Jantzi alkandora berria eta garbitu zapatak.

Bezperan Osasunak 8-0 irabazi baitzuen Zaragozako Arenasen aurka, *La Hoja del Lunes* leitzen ari zen Tres Reyes hoteleko zerbitzaria, bazkalondoan ia hutsik zen kafetegian. Giseleri laket zitzaion mahaian eseri zen Martin, leiho aldamenean, handik begiztatu ohi zituzten dendetara lanera zihoazenen ibilera presatuak astelehenero. Beti bezain zorrotz, orduari minutu erdia kenduta iritsi zen Gisele, tergalezko galtza zabalez eta bularrak goititzen zizkion sueter estu lepo luzeaz.

– Dena ongi?

– Bistan da. Te bat, ezta?

– Baiki.

Martinek kikara eta pitxer txikia zekartzan unean, taxi batetik irten zen emakumezko baten zetazko zapi koloretsuari so harrapatu zuen Gisele.

– Datorren astean hire urtebetetze eguna dun –esan zion Martinek.

– Elkarrekin bazkalduko diagu.

– Hik agindutako tokian.

– Kontent ikusten haut. Horren ederki atera al da dena?

– Ezin naun kexatu.

– A ze jira-bueltak eman dituzuen azken egunotan! Ez didak ezer kontatu behar?

– Noraino azaltzea nahi dun?

– Ez diat xehetasunik behar – Gisele muzindu egin zen pixka bat–, hobe ezer ez jakitea.

Martinek eskuak ferekatu zizkion, uros eta bihurri, titiei begirik kendu gabe. Giselek igarri zion zertan pentsatzen ziharduen, baina ezin zuen susmatu zer kontatu behar zion.

– Dirutza feriatu dinagu.

– Baita zera ere!

– Hiru lagunen artean banatu ondoren ere, pisu bat erosteko edo negozio bat jartzeko bezainbat.

– Ez niri adarrik jo.

– Ez nabilen txantxetan.

– Aberastu egin haiz orduan.

– Ez naun lander bat.

– Seduktorearena egin beharrik ez daukak nirekin –trufatu zen Gisele.

– Casa Marina uzteko plana aipatu izan didan noizbait...

– Txakur-ametsak.

– Iruñeko linjeria-denda ederrena izateko moduan hengoke.

– Zer esan nahi duk, niregatik egin duala?

– Hein batean bai.

– Baina hik zer uste duk? Ez ditiat gauzak hire erara sekula eginen. Ez gaituk bikotea.

– Errietarik gabe, Gisele. Adiskideak gaitun. Laguntza behar izatera, nirekin fidatu beti.

– Pentsatuko diat –esan zion ahalkez.

– Nik pentsatu dinat hire urtebetetzeko oparia.

– Zer da?

– Sekretua!

Martinek bilogorriaren ezpainak bilatu zituen, baina hark atzera egin zuen. Momentua bazen; tokia ez, ordea.

34

–Hiru patton, mesedez.

Grand Marnier, William Lawson eta Smirnoff botiletako likoreak irabiatu zituen Lizarbe barmanak, laranja azal eta gerezi banarekin dotore zerbitzatu aitzin.

– Gure osasunari! –topa egin zuten hirurek.

– Salvatore falta da, ordea.

– Ez da gurekin izanen, bukatu dira haren egitekoak –argitu zien Petek–. Esan dezagun bere artelanak leku seguruan uztera erretiratu dela.

– Salvatoreren eta Pedrotxoren alde orduan! –esan zuen Luisek.

– Baiki. Denok ikasi dugu zerbait eta denontzat izan da onuragarria.

– Zer atera duzu ba zuk honetatik? –galdetu zion Martinek, jakin nahi baitzuen zein izan ziren Pete Domezainen xedeak astebete hartan.

– Deus ez eta gauza garrantzitsuak, aldi berean zuen eskumenetik kanpo daudenak. Kontu batzuk ez esatekoak direla jabetu zarete zuek; nik, berriz, helburuak bazter bidez lortzen ikasi dut.

– Zeure gisara gobernatu gaituzu –protesta egin zuen Martinek–. Belatz begiz kontrolatu gaituzu lehen egunetik. Eskubidea izanen dugu ba ez dakiguna galdetzeko!

– Esan dezagun zuei dagozkizuenak soilik ezagutu behar zenituzketela. Bestelakoak ez.

– Kopon! –Luis gogaitzen ari zen–, espioiek bezala mintzatzeko modu horrek ez digu onik egiten. Zakurra eta katua ematen duzue. Uste nuen ospakizun bat zela hau!

– Eta halaxe da. Kontent gaude hirurok garbi atera dugunarekin.

– Baina oraindik zerbait aditzeko ere bagaude, ezta? Militarrek auto istripua izan zuten atzo...

Martinen errezeloak eta kezkak uxatu zituen Pete Domezainek:

– Guardia zibilek prestatu zuten segada, istripu itxura izan zezan. Enborra paratu zieten bidean eta militarrek huraxe jo zuten lainopean. Maleta ebatsi zieten, baina hura irekitakoan egunkari paperak besterik ez zituzten aurkitu. Gendulainek eta Goñik ziria sartu dietelakoan daude guardia zibilak egunkariz betetako maletaren kontu horrekin, amu bat izan dela, eta

beraz diruak mugako beste bide batetik iritsi direla Donibane Garazira.

– Biribila! –poztu zen Martin–. Baina zuk nola dakizu hori guztia?

– Iturriak ura dakar beti, goiz edo berant.

– Ados, ez esatekoen multzokoa da hori...

– Hain zuzen ere. Baina beste iturri bat ere zabaldu zait –segitu zuen Petek– ospitalean Gendulain kapitaina bisitatzen izan naizenean.

– Zer moduz dago? –galdetu zuen Luisek.

– Gerritik behera igeltsua besterik ez du. Morfinaz lokartuta daukate.

– Ezin izan duzu harekin solas egin...

– Baina Goñi lotinant-koronelarekin bai. Hantxe zegoen bere benda eta guzti. Alvarez sarjentuak eraman du Gendulain ikustera.

– Eta?

– Suak hartuta dabil. Sinetsita dago ez dela istripua izan, bide hura ongi ezagutzen dutela jakinarazi dit, ez dela zuhaitz erori baten enborra izan, berariaz botatakoa baizik. Halako batean Zabaleta lodikotea ere agertu da ospitalean, eta eztabaidan aritu dira aparte batean. Baina hori La Campanan kontatuko dizuet, dagoeneko Josefak prest izanen baitu afaria.

– Tokia hartzera joan al zara ba?

– Atzo sobera gelditu zitzaizkion itsaski batzuk jarriko dizkigula ulertu diot. Txipiroiak aipatu ditu. Baietz esan diot, berari egokien iruditzen zaiona. Egia esan, ez dakit zer diren.

– Kalamarak. Plateraren aurrean zer aurpegi ipintzen duzun ikusi nahiko du.

Maisonnaveko kafetegian aurreko egunetan baino sosegatuagoa zegoen filmazio taldea, dena zen atseginezko tratua eta festarako giroa, lanak ongi burutu izanaren ordaina merezi dutenen fribolitatea, nekearen nagiarekin nahasian. Makillajeko Margareti azken agurra egitera joan zen Luis. Losintxaka jardun zuten bazter batean, beste batzuk ari ziren antzera. Martini iruditu zitzaion, haiek biak larrutan ibiliak zirela inoren begietatik landa, nahiz eta maitaketa haien berri ziur aski jakinen zuen Pete Domezainek. Margaretek despedidako musua eman zion Luisi, Warren Beatty eta Natalie Wood balira bezala, eta Giseleren laztanen premian zegoela sentitu zuen Martinek ere.

Bien bitartean Domezain hiru gizon helduren eskuak estutzen ari zen ate ondoan. Laukotearen elkarrizketa atal bat entzun zuen kalerakoan, zinegotziren bat ustelkeria urbanistikoan harrapatu zutela, eta al-

kateak ez zuela osasun itxura onik, edo halako zerbait; Martin harrituta geratu zen, nolatan Petek beti topatzen zuen modua horrelako solasaldietan egoteko.

– Zuk toki guztietan dituzu ezagunak. Nortzuk ziren horiek?

– Jauntxo batzuk. Euliak kakaren inguruan bueltaka.

Eta Martinek ez zuen jakin zer pentsatu. Aste hartan Luis eta biak izan ote ziren euliak?; edo, alderantziz, Domezain bera?

Lehendabiziko egunean amerikanoa kafetegian hurbildu zitzaienean, Martin liluratuta geratu zen haren kontuekin: Aezkoako izeba, Kaliforniako osaba artzaina, gerrako pasadizoak Europan. Ez ote zen dena gezurra eta abarra, attrezzoa eta efektu espezialak? Eta honaino helduz gero, zalantza egin zuen Martinek: ba ote zen mundu osoan Pete Domezain izeneko inor?

La Campanan bakarrik zeuden afaltzeko, astelehen buruzuria izaki. Josefak krispillaz beteriko erretilu bat ekarri zuen aurrena, ahate errota zatiekin eta perrexil xehatu ugariz. Erdi hutsik zen botila batetik ardo

zuri gozo sorta bat zerbitzatu zien sukaldera alde egin baino lehen.

– Kontatu egiguzu, Pete. Zertan izan da Zabaletaren eta Goñiren arteko ika-mika?

– Zatika baino ez dut aditzerik izan. Edozein gisaz, Goñik esan dio Fonsecaren taldeko guardia zibilek atxiki dutela maletako dirua, eta laster izanen dutela mendekua hartzeko parada. Zabaletak ez du bere burua horretan katramilatzeko batere gogorik, agian galtzeko gehiago izanen duelako irabazteko baino. Eta, aldiz, tematuta dago Goñi; uste baitu Alvarez lapiko-txikia denez, guardia zibilek haren bitartez antzeman zutela maleta mugaz bestaldera pasatzeko militarren asmoaren arrastoa.

– Horrek esan nahi du –lasaitua hartu zuen Luisek– gure susmorik ez dutela. Arriskutik libre gaude.

– Bai eta ez.

– Zergatik ez? –asaldatu zen Martin.

– Argaraiko txaletean koadro batzuk falta direla esan baitio Zabaletak Goñiri. Lapurreta izan dela sotoan, orain ez diola maletako diruak axola, benetan garrantzia dutenak artelanak direla, eta horien peskizan jarri behar dituztela indar guztiak. Goñiri ez zaizkio ko-

adroak inporta, hark diru freskoa besterik ez du buruan, eta orduan izan da bien arteko eskatima.

– Baina koadroak Salvatorek eraman ditu...

– Basianoren mihise bat duzue. Esan dezagun leherkari bat daukazuela esku artean. Kontuz ibiltzen ez bazarete, koadro horrek sala zaitzakete eta, orduan, finita comedia! Gogoratu nola harrapatu zuten Miarritzeko martxant hura.

– Zeuk eman zenigun leherkari hori –kexatu zen Martin–, guk eskatu gabe.

– Nik ez zaituztet sekula engainatu. Leialak izan gara denok.

– Erdizka mintzo zarenez, gaizki ulertu ez badizut –esan zion Martinek–, Basiano aldi baterako zure eskuetan uztea da zure proposamena. Ez da hala?

– Hemen! Badatoz Josefaren txipiroiak –moztu zuen Domezainek.

Plater beltzak ipini zizkien aurrean. Burlaizezko imintzio bat egin zuen Luisek, baina Petek espanturik gabe dastatu zituen, Josefak espero ez zuen deliberamendu biziz.

– Arrunt onak. Nola prestatzen dituzu?

– Pazientzia handiarekin. Tipula gorri franko, oliba olioa, baratxuria, piper berdea, ardo zuria, tomate tanta batzuk eta txipiroiaren tinta.

– Hori da dena?

– Sukalde bakoitzak baditu bere sekretuak, zurean ere izanen dira.

– Honek inork baino sekretu gehiago ditu, Josefa –irri egin zuen Martinek–. Amerikanoek inork baino gehiago beti.

– Sekreturik gabe ez dago leialtasunik –esan zion Domezainek.

– Baina zein da lehena? –galdetu zuen Luisek–, arrautza ala oiloa?

– Biak dira bat, eta bat bitan erditzen da –bota zuen Josefak, sukaldera aienatu aurretik–. Ez ahantzi, leialtasunak traizioa ekar lezakeela.

Martinek pentsatu zuen astebetean sekretu truke ikaragarria agitu zela, baina handik geroetan parada izanen zela beste hainbatentzat.

– Traizio guztiak dira leialtasunaren aldean mendreak –nabarmendu nahi izan zuen Domezainek–. Zeuek ere engainatu dituzue zuen agintariak...

– Zeure laguntzarekin, dena esan behar baldin bada –ohartarazi zion Martinek.

– Eta bidenabar geure arteko leialtasuna finkatu dugu. Horrela bilakatu gara indartsuagoak, konpromisoa hartu dugu elkarrentzat lan egiteko, konfiantza horrekin erdietsi du nork bere onura.

– Esan dezagun, zuk ohi duzun gisan –zehaztu zuen Martinek–, beste botere baten alde lerrokatu garela. Ez gaitezen tronpa!

– Baina zer arraio da hau? –Luis aspertuta zegoen–, xake partida bat ala ospakizuna?

Zigarreta bat piztu eta zutitu egin zen Pete Domezain.

– Azken gaua da –esan zuen ke bafada bat botaz batera–. Goazen Casa Marinara!